


# Jasangarritasun Txostena

**Informazio ez-  
finantzarioaren  
egoera-orria  
2023**



**Sharing your challenges**

- 1** Lehendakariaren eta zuzendari nagusiaren gutuna 5. or.
- 2** 2023a begiratu batean 8. or.
- 3** Nor garen 9. or.
- 4** Enpresa lehiakorra eta berritzailea gara 24. or.
- 5** Lurraldean errotutako enpresa demokratikoa gara 46. or.
- 6** Pertsonak zaintzen dituen enpresa gara 53. or.
- 7** Planetarekin konprometitutako enpresa gara 76. or.
- 8** Garapen komunitarioa sustatzen duen enpresa gara 98. or.
- 9** Txostena egiteko prozedura 111. or.

# Aurkibidea

|           |                                                              |                               |
|-----------|--------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| <b>1.</b> | <b>Lehendakariaren eta zuzendari nagusiaren gutuna .....</b> | <b>5</b>                      |
| <b>2.</b> | <b>2023a begiratu batean .....</b>                           | <b>8</b>                      |
| <b>3.</b> | <b>Nor garen.....</b>                                        | <b>9</b>                      |
| 3.1.      | Gure nortasuna .....                                         | 9                             |
| 3.2.      | Misioa, ikuspegia eta balioak .....                          | 11                            |
| 3.2.1.    | Fagor Taldearen kooperatiba-printzipioak .....               | 14                            |
| 3.2.2.    | Fagor Arrasateren 2021-2024 aldirako Plan Estrategikoa.....  | 18                            |
| 3.2.3.    | Mondragon Taldea.....                                        | 22                            |
| <b>4.</b> | <b>Enpresa lehiakorra eta berritzailea gara.....</b>         | <b>24</b>                     |
| 4.1       | Gure negozio-eredua .....                                    | 24                            |
| 4.2       | Joerak eta arriskuak .....                                   | 26                            |
| 4.3       | Mundu osoan dihardugu .....                                  | 28                            |
| 4.4       | Errentagarritasun ekonomikoa eta enpresa-jarduera .....      | 30                            |
| 4.5       | Kudeaketa-sistema integratua .....                           | 31                            |
| 4.6       | Berrikuntza Fagor Arrasaten .....                            | 34                            |
| 4.6.1     | Berrikuntzako erronkak .....                                 | 35                            |
| 4.6.2     | Proiektu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza.....    | 37                            |
| 4.7       | Gure produktuak .....                                        | 39                            |
| 4.8       | Gure hornidura-katea.....                                    | 40                            |
| <b>5</b>  | <b>Lurraldean errotutako enpresa demokratikoa gara .....</b> | <b>46</b>                     |
| 5.1.      | Eredu kooperatiboa.....                                      | 46                            |
| 5.2       | Jokabide-kodea.....                                          | 48                            |
| 5.2.1     | Giza eskubideak errespetatzea .....                          | 50                            |
| 5.2.2     | Etika eta zintzotasuna negozioetan .....                     | ¡Error! Marcador no definido. |
| 5.2.3     | Interes-gatazkak.....                                        | 51                            |
| 5.2.4     | Ustelkeriaren aurkako borroka .....                          | 52                            |
| <b>6</b>  | <b>Pertsonak zaintzen dituen enpresa gara .....</b>          | <b>53</b>                     |
| 6.1.      | Elkartasuna oinarri .....                                    | 53                            |
| 6.1.1.    | Enplegua .....                                               | 54                            |
| 6.1.2.    | Kontratu-modalitateak.....                                   | 55                            |
| 6.1.3.    | Elkartasuna ordainsarrietan .....                            | 57                            |
| 6.1.4.    | Lanaren antolamendua .....                                   | 60                            |
| 6.1.5.    | Harreman sozioraboralak .....                                | 61                            |
| 6.2       | Aniztasuna helburu, berdintasuna ardatz.....                 | 62                            |

|          |                                                                   |            |
|----------|-------------------------------------------------------------------|------------|
| 6.2.1.   | Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea .....                | 62         |
| 6.2.2.   | Aniztasuna kudeatzea .....                                        | 64         |
| 6.3      | Pertsonen garapena sustatzen dugu .....                           | 64         |
| 6.4      | Pertsonak zaintzen ditugu .....                                   | 68         |
| <b>7</b> | <b>Planetarekin konprometitutako enpresa gara .....</b>           | <b>76</b>  |
| 7.1.     | Ingurumen-kudeaketa.....                                          | 76         |
| 7.2      | Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa .....                | 79         |
| 7.2.1    | Hondakinen kudeaketa jasangarria .....                            | 80         |
| 7.2.2    | Materialen erabilera jasangarria .....                            | 84         |
| 7.2.3    | Baliabideen erabilera jasangarria: ura eta energia .....          | 85         |
| 7.3      | Isurtzeak: klima-aldaketa eta kutsadura .....                     | 89         |
| <b>8</b> | <b>Garapen komunitarioa sustatzen duen enpresa gara .....</b>     | <b>98</b>  |
| 8.1      | Fagor komunitatea: Fagorreko pertsonak GJHetan inplikatzeko ..... | 101        |
| 8.1.1    | Fagor Mugi.....                                                   | 101        |
| 8.1.2    | Fagor Elkarrekin .....                                            | 103        |
| 8.1.3    | Fagor Euskaraz.....                                               | 104        |
| 8.2      | Debagoiena.....                                                   | 104        |
| 8.2.1    | Debagoiena 2030 .....                                             | 105        |
| 8.2.2    | Gizabidea fundazioa .....                                         | 106        |
| 8.2.3    | Tokiko elkarten sustapena .....                                   | 106        |
| 8.3      | Euskal Herria.....                                                | 106        |
| 8.3.1    | Fagor Herrigintza.....                                            | 107        |
| 8.3.2    | Euskal Herri mailako beste proiektu batzuk.....                   | 108        |
| 8.4      | Garapenerako lankidetzak .....                                    | 108        |
| 8.4.1    | Mundukide fundazioa .....                                         | 108        |
| 8.4.2    | Garabide.....                                                     | 109        |
| 8.5      | Informazio fiskala .....                                          | 109        |
| <b>9</b> | <b>Txostena egiteko prozedura.....</b>                            | <b>111</b> |
| 9.1      | Materialtasun-analisia .....                                      | 111        |
| 9.1.1    | Gure interes-taldeak.....                                         | 112        |
| 9.1.2    | Materialtasun bikoitzeko analisia FAGOR ARRASATEn.....            | 113        |
| 9.2      | 11/2018 Legearen trazabilitatea.....                              | 119        |
| 9.3      | GRI edukien aurkibidea.....                                       | 130        |
| 9.4      | Informazio osagarria, langile-kontuei buruzko taulak .....        | 135        |
| 9.5      | Kanpo-egiaztapena.....                                            | 140        |

## 1. LEHENDAKARIAREN ETA ZUZENDARI NAGUSIAREN GUTUNA

(2-22)



**Ignacio Martínez**

Presidente de Fagor Arrasate S. Coop.

2023a ilusioz betetako urtea izan da FAGOR ARRASATErentzat. Jarduera-maila normalizatua lortzeko esperantzarekin hasi genuen urtea, eta inbertsio-fasean dagoen merkatua aurkitu dugu. Hala, aise gainditu ditugu Gestio Planean aurreikusitako eskaerak. Gainera, proiektuak gauzatzeko izaten dugun batez besteko epea hamabi hilabete ingurukoa dela kontuan hartuta, nolabaiteko lasaitasunarekin ekin diogu 2024ko ekitaldiari. Bestalde, azken bi urteetan salmentak moteldu ondoren, produktibitatea aktibatzea zen gure erronka, eta hori ere lortu dugu. Beraz, enpresa martxan dugu, urte on bat burutzeko moduko proiektu-zorroarekin. Automobilgintzaren aldakortasuna da puntu negatiboa —hein batean bakarrik—. Guretzat sektore nagusia den horrek gorabehera nabariak ditu, automobil elektrikoaren merkatuaren ziurgabetasunagatik. Horren ondorioz, ohi baino eskabide gehiago geratu dira bertan behera.

Urtearen amaierari erreparatuta, emaitzak Gestio Planean aurreikusitakoak baino hobeak izan dira. Salmenten gorakadak eta gastuei eutsi izanak eragin dute hori. Alde horretatik apalagoak izan diren azken bi urteen ondoren, pozarren hartu ditugu emaitzak.

Aurreikusita zegoenez, urtean zehar konpondu egin dira iazko ekitaldian eragozpen izan ziren hornidura-arazoak, eta hori lagungarria izan da marjinei eusteko eta baita horiek hobetzeko ere.

Eskabideen jatorrizko herrialdeei dagokionez, NAFTAko herrialdeak nabarmendu dira, aurreko urteetako joerari jarraikiz. Iberiar penintsulako merkatua ere suspertu da 2023an. Azken bi urteetan oso aktiboa izan den Turkiako merkatuari eutsi zaio, baina neurri txikiagoan.

FAGOR ARRASATEren barne-kudeaketari dagokionez, **Antolamendu Eredu Berriarekin** arindu egin da erabakiak hartzeko prozesua eta, era berean, negozioen arteko lankidetzara areagotu da. Pentsatzekoa da oraindik ere egokitzapenen bat izango dela enpresaren prozesuetan.

Alde sozialean, konfinamendu aurreko **soldata-maila berreskuratu** dugu. Horri esker, inflazioak gure erosahalmenean duen eragina murriztu egin da. Zorionez, badirudi munduko banku zentralek hartutako neurriak baliagarriak izaten ari direla inflazioari eusteko.

**Gizarte-erantzukizunaren** atalean, aplikagarriak diren legeak eta araudiak garapen-fasean daude, eta, ondorioz, errekerimendu gehiago sortzen ari dira, salaketa-kanaleko (*whistleblowing*) anonimotasunarena, adibidez. Gainerako enpresak bezala, horretara egokitzen ari gara.

Aurrerapausoak eman ditugu **jasangarritasunarekiko konpromisoan**, alde ekonomikoan, ingurumenekoan zein sozialean. Urtero, gure emaitzen zati garrantzitsu bat helburu horietara bideratzen da; hain zuzen ere, ingurunea hezkuntzaren bidez eraldatzera, beste herrialde batzuetako proiektuekiko lankidetzara — beharrean dauden kolektiboak laguntzera—, gizarte-intereseko tokiko erakundeak babestera eta kultura autoktonoak sustatzera.

2023an azpimarragarria da beste kooperatiba batzuekin batera **energia fotovoltaikoa sortzeko instalazioa** erosi izana. Gure argindar-kontsumoko beharren zati handi bat estaliko du. Bestelako neurri batzuk hartzen jarraitzen dugu, jakina: ontzien birziklapena handitzen, birziklatutako materialen erabilera sustatzen eta

kontsumo arduratsurako sentsibilizazio-kanpainak egiten. Gizartearen arloan, bultzada berria eman diegu **Berdintasun Planari** eta familia eta lana bateragarri egiteko neurriei. Era berean, bazkideak **compliance penaleko** sisteman trebatzen jarraitzen dugu.

Laburbilduz, 2023ko ekitaldiak etorkizunari baikortasunez begiratzeko aukera ematen digu, proiektuak ditugu egiteko eta merkatuan dugun posizioa are gehiago sendotu dezakegu. Automobilgintzako sektorea inbertsio-fasean dago une honetan, automobil elektrikoen eskariaren gorabeherak zalantzak eragiten dituzten arren. Guri dagozkigun gainerako sektoreak —etxetresna elektrikoenak eta zerbitzu-zentroenak, adibidez— fase egonkorragoan daude eta hazteko aukera ematen digute. Gure produktu berriei esker —laser bidez mozteko lerroak (Laserblanking), besteak beste— salmenten zenbatekoa handitzen eta sektore berrietan sartzen ari gara.

Ez dut ahaztu nahi teknologiaren esparruan 2024an jarriko dugun mugarria: automatizazio propioa duten prentsen lehenengo lerroa osatuko dugu. Kadentzia handiko (*High Speed*) lerroa izango da, automobilgintza-sektoreko OEM ( ekipamendu originalen fabrikatzaile) batentzat egindakoa. Urrats horrekin burutuko dugu 2006an hasitako ibilbidea, urte hartan erabaki baikenuen teknologia hori baliatu ahal izateko garapenei ekitea.

Urterako aurreikuspenak ezin hobeak dira.

## «Beste kontu batzuegatik kezkatuta zauden bitartean gertatzen den hori da bizitza»



**Unai Lopez**

Fagor Arrasate S. Coop. kooperatibako zuzendari nagusia.

FAGOR ARRASATEK (FAk) jarduten duen negozio guztietan **etenik gabeko jarduera indartsua** izan dugu, eta hori da 2023ko ekitaldiaz gogoratuko duguna. Urtean, mugikortasunaren elektrifikazioa izan da eragile nagusia, batez ere ibilgailu elektriko berrien merkaturatze masiboa. Inbertsio horiek nabarmendu egin dira, modu uniformearekin egin baitituzte OEM tradizionalak eta Faren ohiko bezeroek, bai eta marka berriek ere, sektorean ohikoak ziren sarrera-hesiak ezereztu ondoren iritsi direnek. Mugikortasunean izan den paradigma-aldaketa horrekin, FAk eskabide berrien zifra historikoa lortu du, aurrekaririk gabekoa. Sektore-portaera hori bera siderurgien eta lerro zurien sektoreetara estrapola daiteke. Bi jarduera-eremu horietan, FA oso positiboki ari da inbertsio-zikloa aprobetxatzen, eta bolumen handiko zorroa eskuratu du.

Geografiari erreparatuta, jarduera nagusiak azken urteotako joerari eutsi dio, eta are gehiago handitu da **Ipar Amerikako merkatuetan**, AEB eta Mexiko nagusi direla. Kontrara nabarmendu da Europa. Bertan, Faren jarduera ez dago unerik onenean, Iberiar penintsulan izan ezik.

Laser bidez jarraian mozteko teknologiaren eskaera handia izan da ekitaldian nabarmendu den beste faktoreetako bat. Azken urteotako joera berretsi da horrela. Teknologia horri esker, iraganean landu ez dituen aplikazio eta nitxo askotan sartu da FA, egungo aldi estrategikorako lehenetsitako dibertsifikazioaren estrategia-ildoari jarraikiz.

Arriskuen atalean, eskarian —ibilgailu elektrikoetan zein lerro zurian— izandako portaeren ondorioak nabarmendu dira. Automobil elektrikoen eskaria —batez ere mendebaldean— ez dator bat lehen aipatutako inbertsio handiekin. Hori dela eta, programa asko dezente atzeratzen ari dira, eta batzuk bertan

behera utzi dira. Lerro zuriaren kasuan, azken hiru urteotako etxeetako eskaria moteltzen ari da, eta horrek eragin nabaria du fabrikatzaile nagusiek planifikatutako inbertsioetan.

2023koa ere **geopolitikak baldintzatutako** ekitaldia izan da, 2022koa baino hein txikiagoan, hori bai. Nolanahi ere, ageriko eragina izan dute merkatu-arrisku ugariak, eskaintzaren eta eskariaren arteko ezegonkortasunak, dibisen gorabeherak edota lehengaien krisi amaiezinak.



## 2. 2023A BEGIRATU BATEAN

(2-6)



### JARDUERA

**220** milioi €-ko salmenta bateratuak



### BEZEROAK

**% 81**eko esportazioa



### PERTSONAK

**697** profesional



### I+G

Salmenten **% 1,86**ko inbertsioa berrikuntzan



### PRESTAKUNTZA

**14.358** prestakuntza-ordu



### GIZARTEA

**150** milioi €-ko tokiko erosketak (FAGOR ARRASATE)



### HORNITZAILEAK

**197** milioi €-ko erosketak (FAGOR ARRASATE)

Erosketen **% 76** herrialdean (FAGOR ARRASATE)



### INGURUMENA

Enpresa nagusiaren **elektrizitate-kontsumoaren % 100** jatorri berriztagarrikoa da

**Karbono-aztarna % 21** txikitu da 2022ko datuekin alderatuta

### 3. NOR GAREN

#### 3.1. Gure nortasuna

(2-1, 2-2, 2-6)

FAGOR ARRASATE Taldea osatzen duten enpresek txapa deformatzeko soluzio osoak eskaintzen dizkiete hainbat sektoretako bezeroei. Besteak beste, automobilgintza, zerbitzu-zentroak, siderurgia, estanpazioa, etxetresna elektrikoak eta metalezko altzariak dira sektoreak.

## NUESTRAS SOLUCIONES

Diseñamos, fabricamos, montamos e instalamos **instalaciones de corte y conformado de materiales** automáticas y personalizables para los sectores más exigentes.

**FAGOR ARRASATE S. Coop.** da taldeko enpresa nagusia. 1957an sortu zen Arrasaten, eta FAGOR Taldekoa da hasieratik. Enpresa nagusiarekin batera, honako enpresa hauek dira FAGOR ARRASATE Taldeko partaideak:

- **Fagor Arrasate México SACV**
- **Fagor Arrasate USA Inc.**
- **Fagor Metalforming Machine Tool (Kunshan) Co., Ltd.**
- **Koniker S. Coop.**
- **Fagor Arrasate Deutschland GmbH**
- **Ribinerf SL (2023an batu denez taldera, ez da astirik egon eman beharreko datuen sistema egokitzeko; beraz, enpresa horren datuak ez daude sartuta)**



| DESDE 1957                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | PRESENCIA GLOBAL                                                                                                                                                                                                                                                                                        | SERVICIO FLEXIBLE Y TOTALMENTE PERSONALIZADO                                                                                                                                                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Tras más de 65 años suministrando bienes de equipo a los sectores industriales más exigentes del mundo, en FAGOR ARRASATE venimos desarrollando una labor de innovación y mejora continua que nos ha permitido convertirnos en uno de los líderes tecnológicos en el diseño y fabricación de líneas y equipos para el procesamiento de piezas metálicas. | Disponemos de plantas de servicio en España, Alemania, Estados Unidos, China, México, Brasil y Turquía, que cuentan con equipos propios altamente especializados que pueden desplegarse en cualquier lugar del mundo en el menor tiempo posible para apoyar a nuestros clientes con la máxima eficacia. | Nuestro compromiso es ofrecer un servicio experto, cercano y directo, desde el inicio de la concepción del proyecto y durante todo su ciclo de vida. En FAGOR ARRASATE creemos que los retos de nuestros clientes son los nuestros, y por eso queremos acompañarles en su éxito. |

60 urtez baino gehiagoz munduko industria-sektore zorrotzeneri ekipamendu-ondasunak hornitzen aritu ostean, FAGOR ARRASATE berrikuntzara eta etengabeko hobekuntzara bideratzen joan da. Horri esker, **lider teknologikoetako bat gara balio erantsi handiko soluzioak diseinatzen eta fabrikatzen**. Soluzio horiek oso pertsonalizatuta daude gure bezeroek honako arlo hauetan dituzten beharren arabera:

- **prentsak eta estanpazio-sistemak;**
- **txapa moztu eta prozesatzeko lerroak;**
- **metalezko piezak prozesatzeko lerroak eta ekipamenduak.**

Metalezko txapa lantzeko produktu propioen **zorrorik zabalena** duen enpresa gara munduan. Horregatik, merkatuko soluziorik aurreratuenak, koordinatuenak, eraginkorrenak eta lehiakorrenak eskuratu eta eskaintzen ditugu. Gai gara gure produktuak eta zerbitzuak bezeroen beharrak azaldu ahala garatzeko eta teknologikoki bilakatzeko, eta horixe da, hain zuzen, gure **funtsezko indarretako** bat.

FAGOR ARRASATE **MONDRAGON Taldearen** sortzaileetako bat da. Talde horrek munduko kooperatiba-mugimendurik handiena biltzen du, eta erreferentziazkoa da ingurunearekin, lehiakortasuna hobetzearekin eta bezeroen gogobetetasunarekin duen konpromisoagatik. Enpresa-garapenaren bidez eta lanpostuak sortuz (kooperatiboak, batez ere), gizartean aberastasuna lortzea du xede. Euskal Herrian (Espainian) sustrai kultural sakonak dituen proiektu globala da, eta nazioartean sendo zabalduta dago. Oinarrizko printzipiotzat ditu elkartasuna eta antolakundean zein zuzendaritzan metodo demokratikoak erabiltzea, eta, horretarako, pertsonen partaidetza eta integrazioa sustatzen ditu emaitzen kudeaketan eta enpresen jabetzan. Gizartearen, enpresaren eta pertsonen aurrerabidea bateratuko dituen proiektu komuna garatu nahi du.




Kooperatiba garenez, honako hauek dira bereizten gaituzten gobernantza-ezaugarriak:

- **Batzar Nagusiak** dira gure gobernu-organorik gorena. Horietan hartzen ditugu etorkizunerako erabaki garrantzitsu guztiak.
- Kooperatiba barruan, **Estatutu Sozialek** eta **Barne Araudiak** zuzentzen dituzte harremanak.
- Lanpostu guztietan, **ordainsaria** egindako lanaren eta onartutako erantzukizunaren arabera finkatzen da, **ez da bereizketarik egiten** beste edozein arrazoi dela eta.
- FAGOR Taldeko kooperatiben **irabazien % 12 laguntza komunitarioko** proiektuak babestera bideratzen da.

### 3.2. Misioa, ikuspena eta balioak

(2-1, 2-22, 2-23, 2-24)

## MISIOA




Pertsonen bultzatutako proiektu sozioenpresariala, **lean??** eta jasangarria, nazioartean zabaltzeko nahi duena eta gure bezeroen zerbitzura dagoena

#### GURE ASMOA:

- Gure bezeroei balio erantsia handitzea
- Puntako teknologia erabiltzen duten soluzioen bidez
- Tokian eta hurbil egonda
- Produktuaren bizi-ziklo osoan
- *Best-value-for-money* edo kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena proposatuz
- Gure know-how teknologikoa gero eta aplikazio gehiagotara ekarriz
- Errentagarritasun eta hazkunde iraunkorrak ziurtatzeko
- Eta gure pertsonentzat ingurune profesional erakargarria garatzeko

## IKUSPENA

FAGOR ARRASATEn **proiektu sozioenpresarial berritzaile eta partekatua** garatu nahi dugu, gure pertsonen gaitasunetan eta egiten jakitean oinarrituta eta bezeroen eskakizun eta aurreikuspenekiko konpromisoa abiapuntu hartuta, materialak deformazio bidez mozteko eta konformatzeko makinak diseinuan eta fabrikazioan mundu-mailako erreferentzia den Europako enpresa gisa dugun posizioa indartuko duena.



# BALIOAK

**MONDRAGON Taldeko** kide eta sortzaile gisa, FAGOR ARRASATEN **Oinarrizko Kooperatiba Printzipioak** dira gure balioen euskarriak. Printzipio horietan daude jasota kooperatiben sei hamarkada baino gehiagoko ibilbidean ondu diren ideiak. MONDRAGON Taldearen lehenengo Kooperatiben Biltzarrean onartu ziren, 1987ko urrian.



FAGOR ARRASATEN gure egunerokoan partekatu eta ezartzen ditugu MONDRAGON Esperientzia Kooperatiboaren Oinarrizko Printzipioak, eta geure egiten ditugu **Estatutu Sozialen** goiburuan jasota dugun **Printzipioen Deklarazioen** bidez.

Honako hauek dira gure izaeraren ezaugarritzat nahi ditugun balioak, kohesioa ahalbidetu eta kudeaketa-filosofia berezia landuko duen nortasun-zentzua sortzeko:



**LANKIDETZA:** enpresako langileak FAGOR ARRASATEren jabeak gara eta jarduera-eremu guztietako protagonista.

**BERRIKUNTZA:** etengabeko berrikuntza dugu xede gure jarduketa-eremu guztietan.

**PARTAIDETZA:** erakundea osatzen dugun pertsona guztion eskubidea eta konpromisoa da kudeaketan parte hartzea.

**GIZARTE-ERANTZUKIZUNA:** FAGOR ARRASATE aberastasunaren elkartasunezko banaketarekin konprometituta dago, eta nabarmen eragin nahi du hurbileko ingurunean, solidario sentitzen baikara bertako hobeakuntzarekiko eta garapenarekiko.

## GURE HELBURUAK

---

- Deformazio-makinen negozio nagusiak lehenestea, eta horretarako, egungo jarduerak finkatzea eta bezero, merkatu geografiko eta produktu berriak garatzea.
- Balio erantsi handiagoko produktu- eta merkatu-segmentuetara jotzea, batez ere fidagarritasunaren eta gure bezeroentzako erosketa-esperientziaren (konfiantzaren, epearen, zerbitzuaren eta abarren) alderdietan indartutako balio-proposamenarekin.
- Mundu-mailako hornitzaile gisa dugun posizioa sendotzea; horretarako, helburu ditugun bezeroen eskaerei munduko edozein lekutan erantzuteko gai izatea, balio-kate osoko gure jarduerak gero eta gehiago nazioartekotuz.
- Gure kudeaketa-jardunbideak eremu guztietan garatzea, Kooperatibaren negozioen arteko sinergiak ahalik eta gehien aprobetxatuta.
- FAGOR ARRASATEren proiektu sozioenpresarial kooperatiboa bultzatzea, bai giza alderdian eta bai alderdi ekonomikoan ere.
- Negozioen asmoak aberastu eta bilduko dituen proiektu bakar gisa finkatzea.

## BEREIZTEN GAITUENA

---

### Gizarte- eta elkartasun-ekonomian parte hartzen dugu

**FAGOR Taldeko** partaideak gara. Kooperatiba-talde industrialak 8 kooperatiba biltzen ditu, 1.000 M€-tik gorako fakturazioa du urtean eta 10.000 langile baino gehiago ditu munduko hainbat lekutan.

### 3.2.1. Fagor Taldearen kooperatiba-printzipioak

(2-1, 2-22, 2-23, 2-24)

#### Kooperatiba-printzipioak:

|                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                          |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>01. Libre adhesión</b></p> <p>Es abierta y no discriminatoria para todas las personas que asumen los principios básicos y acrediten la competencia profesional para los puestos de trabajo que puedan existir, sin ningún tipo de discriminación.</p> | <p><b>02. Organización democrática</b></p> <p>Se reivindica la igualdad básica de todas las personas socias trabajadoras en cuanto a los derechos de ser, poseer y conocer. Eso trae consigo inevitablemente la asunción de una organización empresarial democrática.</p> | <p><b>03. Soberanía laboral</b></p> <p>El trabajo se considera factor principal de transformación de la naturaleza, la sociedad y el propio ser humano.</p>                                                                                                                                                                   | <p><b>04. Naturaleza instrumental y subordinada del capital</b></p> <p>El capital se considera una herramienta subordinada al trabajo, imprescindible para el desarrollo de la empresa.</p>                                                                                                                                                                                      | <p><b>05. Participación en la gestión</b></p> <p>Más allá de la relación de las personas socias, el carácter democrático del cooperativismo implica el desarrollo progresivo de la auto-organización y la participación en la gestión de la empresa.</p> |
| <p><b>06. Solidaridad retributiva</b></p> <p>Como principio básico de gestión, se fija una remuneración suficiente y solidaria.</p>                                                                                                                         | <p><b>07. Cooperación</b></p> <p>La cooperación se considera un requisito para una aplicación concreta de la solidaridad y para la eficiencia empresarial.</p>                                                                                                            | <p><b>08. Transformación social</b></p> <p>Se expresa la voluntad de transformación social solidaria con otros p. _blos, a través de la actuación realizada en Euskal Herria, para contribuir a la reconstrucción social y económica y para a la construcción de una sociedad vasca más libre, más justa y más solidaria.</p> | <p><b>09. Naturaleza universal</b></p> <p>Como expresión de la vocación universal, en el ámbito de la "economía social" se reivindica la solidaridad con todas aquellas personas que trabajen por una democracia económica. El cooperativismo, además, ha asumido como propios los objetivos de Paz, Justicia y Desarrollo correspondientes al cooperativismo internacional.</p> | <p><b>10. Educación</b></p> <p>Para promover el establecimiento de los principios anteriores, es imprescindible destinar a la educación los recursos humanos y económicos necesarios en todos los aspectos.</p>                                          |

## COOPERATIVAS

que forman el Grupo Fagor



fagoredenlangroup



2023an, **Fagor 2030 jasangarritasun-estrategia** landu zuen FAGOR Taldeak. Estrategia horrek kooperatiben eraldaketa bultzatzea du xede, errentagarri izaten jarrai dezaten lehia-testuinguru berrian, non digitalizazioak eta jasangarritasunak gero eta eragin handiagoa duten.

Fagor 2030 estrategiak Nazio Batuen agendari erantzun nahi dio, gizateriaren erronkak geure erronkak direlako.



Izan ere, Europak klima-aldaketari aurre egin eta jasangarritasunerantz abiatzeko ibilbide-orria diseinatu du. Tokikotik maila globalera, eta maila globaletik tokikora, Fagor 2030 gure etorkizuna hobetzeko apustu sendoa da.



## 5 KONPROMISO:

### 01.

**Transformar nuestros negocios para mejorar la competitividad y seguir creando empleo en el contexto de una economía digital y circular**

#### Digitalización

Estamos digitalizando nuestros procesos de producción, nuestros productos y servicios.

#### Diversificación



### 02.

**Desarrollar nuestro modelo de gobernanza democrático.**

#### Modernización del marco normativo

Estamos modernizando nuestro marco normativo para que además de democrático, sea un modelo de gobernanza eficaz.

#### Formación y empoderamiento de los miembros de los órganos

#### Cultura cooperativa

#### Comunicación

### 03.

**Desarrollar una cultura de empresa avanzada para que nuestras personas den lo mejor de sí mismas.**

#### Trabajo en equipo

Promovemos modelos organizativos más horizontales y el trabajo en equipo, para poner al servicio del proyecto empresarial todo el conocimiento y las capacidades de nuestras personas.

#### Empleabilidad

#### Conciliación corresponsable

#### Igualdad de género

#### Vigilancia de la salud

#### Normalización del euskera





**7** ENERGIA IRISGARRIA  
ETA EZ KUTSAGARRIA



**12** EKOKIZPEN ETA  
KONTSUMO  
ARDURATSUAK



**13** KLIMAREN  
ALDEKO EKINTZA



## 04.

Trabajar para reducir el impacto medioambiental de nuestros productos y procesos productivos para situar la actividad industrial dentro de los límites biofísicos del planeta.

Economía circular

Trabajamos para reducir el impacto ambiental de nuestros productos a lo largo de su ciclo de vida.

Net Zero

## 05.

Promover la autoorganización de la sociedad y la colaboración entre diferentes agentes para conseguir ciudades y comunidades sostenibles.

Debagoiena 2030

Somos promotores de la iniciativa D2030, la cual pretende impulsar la transición de nuestro territorio hacia la sostenibilidad desde el desarrollo comunitario.

Fundación Gizabidea

Fundación Mundukide

Comunidad Fagor



**1** POBREZIA  
DESAGERRARAZTEA



**4** KALITATEZKO  
HEZKUNTZA



**11** IRROI ETA KOMUNITATE  
JASANGARRIAK



**17** HELBURUAK  
LORTZEKO  
ALIANZA



Gure kooperatiben eraldaketa sustatzeaz gain, **Debagoiena 2030 garapen jasangarrirako sarearen** kide sortzaileak garenez, inplikazio irmoa dugu gure industria-jardueraren zatirik handiena hartzen duen lurraldearen jasangarritasunarekin. Hala, tokiko administrazioekin, unibertsitatearekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan dihardugu hainbat proiektu garatzen eta finantzatzen, 2050erako Debagoiena eskualde adimenduna, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izan dadin.



Somos uno de los principales promotores de **Debagoiena 2030**, una iniciativa que busca transitar hacia la sostenibilidad a través de la auto-organización comunitaria

«Gure ustez, jasangarritasuna aukera bat da kooperatiba-proiektuan berrikuntzari heltzeko; ildo horretan, liderrak izan nahi dugu kooperatiba-proiektua garai berrira egokitzeke, jasangarritasuna ezaugarri duen garaira, alegia»

Gainera, Fagor 2030 estrategiaren bidez, FAGOREko kooperatibek konpromiso esplizituak hartuko dituzte Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruan. Hain zuzen ere, gure ekarpena **1., 4., 5., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 16. eta 17. helburuetara** bideratuko da.



### 3.2.2. Fagor Arrasateren 2021-2024 aldirako Plan Estrategikoa

(2-1, 2-22, 2-23, 2-24)

**Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJHeK)** pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiek bakea eta oparotasuna izan ditzaten bermatzeko oinarrizko printzipioak adierazten dituzte.

Enpresak funtsezkoak dira munduak dituen erronka nagusiei aurre egiteko.

**2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak mundu-mailako konpromiso paregabea dira gaur egungo zein etorkizuneko erronkei aurre egiteko, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren eremuetan. Konpromiso hori geure egin dugu, eta FAGOR ARRASATEren GAI MATERIALETAN txertatu dugu; hala, helburuok gure erakundearen estrategiarekin lerrokatu ditugu.**

Fagor Arrasatek materialtasun-analisiaren ariketa egin zuen, erakundeak **ekonomian, ingurumenean eta gizarte**an eragiten dituen inpaktuak zehazteko orduan garrantzitsuak diren gaiak erabakitzeko abiapuntua izan dadin. Era berean, baliagarria da interes-taldeen balorazioetan eta erabakietan funtsezko eragina duten alderdiekin lotutako gaiak zehazteko, erakundearen balioan eragin dezaketelakoan.

Jasangarritasunarekiko konpromisoa FAGOR ARRASATEren parte da, eta jardueraren garapenari atxikita dago.

## IGG (ingurumena, gizartea eta gobernantza ona) eta GJH (garapen jasangarrirako helburuak) alderdiak Fagor Arrasaten



Fagor Arrasateren 2021-2024 aldirako plan estrategikoak 8 lerro estrategiko ditu. Horietako bat hauxe da: «Proiektu sozioenpresarial **JASANGARRIA** lortzea, **ekonomiari, gizarte**ari eta **ingurumenari** dagokienez (IGG)»

## ENFOQUE DE GESTIÓN GENERAL DE LA SOSTENIBILIDAD (económica, social y ambiental)

La **memoria anual de sostenibilidad** es el documento donde se reflejará la gestión y la evolución de los temas materiales de Fagor Arrasate, así como los principales riesgos y oportunidades. Esta memoria será divulgada a los socios y aprobada por la Asamblea general. Posteriormente se publicará en la web.



Alcanzar un proyecto socio-empresarial sostenible es una de las ocho líneas estratégicas recogidas en el Plan estratégico de Fagor Arrasate elaborado en 2021.

Fagor Arrasate entiende por sostenibilidad el desarrollo y gestión de los **ocho temas materiales** recogidos en su matriz de materialidad.

Para pilotar la gestión de la sostenibilidad, en 2021 se creó el **Comité de Responsabilidad Social Corporativa**. A partir de ahora, este comité coordinará y monitorizará la evolución de las actividades relacionadas con los temas materiales de Fagor Arrasate.

## Gai materialak, Fagor Arrasateren ildo estrategikoa eta GHJak

|                                               |                                                                                                            |
|-----------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>FAGOR ARRASATERen 8. ildo estrategikoa</b> | <b>Proiektu sozioenpresarial JASANGARRIA lortzea ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokienez</b>    |
| <b>Estrategia</b>                             | Gure materialtasun-matrizean jasotako lehentasunen arabera jasangarritasun-estrategia zehaztu eta garatzea |

| OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE                          | TEMAS MATERIALES DE FAGOR ARRASATE                    |
|-------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|
| Trabajo decente y crecimiento económico                     | Rentabilidad / Desempeño                              |
| Energía asequible y no contaminante<br>Acción por el clima  | Cambio climático / Energía                            |
| Igualdad de género<br>Paz, justicia e instituciones sólidas | Ética e integridad en los negocios                    |
| Paz, justicia e instituciones sólidas                       | Gobierno cooperativo                                  |
| Trabajo decente y crecimiento económico                     | Formación y desarrollo profesional                    |
| Salud y bienestar                                           | Seguridad y salud en el trabajo                       |
| Industria, innovación e infraestructura                     | Innovación aplicada al desarrollo de nuevos productos |
| Reducción de las desigualdades                              | Euskera                                               |

### 2030 AGENDA KO GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK GURE JASANGARRITASUN-ESTRATEGIAREKIN BATERATU DITUGU

**Garapen Jasangarrirako Helburuak** mundu-mailako konpromiso paregabea dira gaur egungo zein etorkizuneko erronkei aurre egiteko, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren eremuetan. Konpromiso hori geure egin dugu, eta Fagor Arrasateren estrategian txertatu dugu; hala, helburuok gure erakundeak dituenekin lerrokatu ditugu.

Fagor Arrasaterentzat, **jasangarritasuna da bere negozio-eredua egoki kudeatzeko zutabe garrantzitsuenetako bat.**

Fagor Taldearen 2023rako jasangarritasun-estrategia da horren erakusgarri. 2021ean onartu zen eta bost ardatz nagusi ditu: lehiakortasuna, gobernantza kooperatiboa, pertsonak, ingurumena eta komunitatea.

Estrategiaren ildotik, ekintza eta politika espezifikoak bideratu dira ingurumenari eragindako inpaktu negatiboa ahalik eta txikiena izateko, gizartearen ongizatea areagotzeko eta, aldi berean, erakundearen bideragarritasun eta oparotasun ekonomikoa bermatzeko.

**Fagor Arrasaten gure jasangarritasun-estrategian sakondu dugu, ikuspegi integrala eta epe luzekoa erabiliz, merkataritza-jarduerak gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasunerako helburuekin lerrokatzeko.**

Horregatik, **ESG irizpideak** txertatu ditugu gure Plan Estrategikoan. ESG kontzeptuak *Environmental* (ingurumena), *Social* (gizartea) eta *Governance* (gobernantza korporatiboa) alderdiak batzen ditu, eta gure enpresaren faktore ez-finantzario garrantzitsuenak hiru ardatz horietan sartuta daude. Gure jarduera jasangarritasunaren aldetik ebaluatzeko ikuspegi estrategikoa eta analitikoa da.

| ALCANCES DE LAS EMISIONES |                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                    |
|---------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ÁMBITO                    | TEMA MATERIAL                                                                                                                                                      | ACCIÓN                                                                                                                                                                                                                                             |
| MEDIOAMBIENTAL            | Emisiones, cambio climático y energía                                                                                                                              | Cambio climático y reducción de emisiones:<br>Net Zero antes de 2040<br>Consumo de energía de origen renovable<br>Placas fotovoltaicas<br>Uso racional del agua<br>Eficiencia energética<br>Gestión de residuos<br>Economía circular<br>Innovación |
|                           |                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                    |
| SOCIAL                    | Seguridad y salud en el trabajo<br>Innovación aplicada al desarrollo de nuevos productos<br>Formación y desarrollo profesional<br>Cultura y lengua local (Euskera) | Satisfacción del cliente<br>Igualdad de género y diversidad<br>Apoyo a colectivos vulnerables y ayudas sociales<br>Contribuciones a la comunidad<br>Formación<br>Derechos humanos<br>Puntos de carga de coches eléctricos                          |
|                           |                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                    |
| ECONÓMICO Y GOBERNANZA    | Rentabilidad/Desempeño<br>Ética e integridad en los negocios<br>Gobierno Corporativo                                                                               | Sistema de Gobierno corporativo<br>Remuneraciones<br>Ciberseguridad<br>Cadena de suministro responsable<br>Sistemas de cumplimiento                                                                                                                |
|                           |                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                    |

Hori dela eta, **2021-2024 aldirako Plan Estrategikoan** jasota dagoen ildo estrategiko bat dugu: **Proiektu sozioenpresarial jasangarria lortzea ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokienez.**

Fagor Arrasaterentzat, materialtasun-matrizean jasota dituen 8 gai materialen garapenean eta kudeaketan datza jasangarritasuna. Modu horretan, ESG irizpideak gure gai materialetako batean jasota daude. Jasangarritasunaren kudeaketa bideratze aldera, Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Batzordea sortu zen 2021ean, Fagor Arrasateren gai materialekin lotutako jardueren bilakaera koordinatzeko eta monitorizatzeko.

### 3.2.3. Mondragon Taldea

(2-1, 2-22, 2-23, 2-24)

MONDRAGON Taldeak bere unibertsitatea eta I+Garen arloko 15 zentro ditu talentua kooperatibetara bideratzeko eta haien berrikuntza-estrategiak laguntzeko, eta lehiakortasun inklusiboaren eredua da nazioartean. MONDRAGON Taldeko kooperatibek, guztira, 11.000 M€-tik gorako fakturazioa dute eta 80.000 langile baino gehiago dituzte munduan, horietatik % 45 industriaren esparruan lanean.


**MONDRAGON**  
**Taldeko**  
partaide gara

Munduko korporazio kooperatiborik handiena, honako hauek partaide dituen:

- **90 kooperatiba baino gehiago**
- 140 filialetik gora
- **266 enpresa** 5 kontinenteetan zehar barreiatuta
- taldea osatzen duten **80.000 pertsona** baino gehiago
- 4 negozio-areatan antolatuta
  - Finantzak
  - Industria
  - Banaketa
  - Ezagutza



FINANZAS



INDUSTRIA



DISTRIBUCIÓN



CONOCIMIENTO



**80.000**  
PERSONAS



VENTAS EN MÁS DE  
**150**  
PAÍSES

Bai MONDRAGON Taldean eta bai FAGOR Taldean ere, elkar-lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat mekanismo ditugu, eta horiei esker erresilienteagoak gara. Mekanismo horiek funtsezkoak izango dira datozen urteetan egin beharko ditugun eraldaketei arrakastaz ekiteko. Kooperatibei hiru alderdi nagusitan laguntzera bideratuta daude:

- **Emaitzak birmoldatzea.** Mekanismo horren helburua da, batetik, zailtasunak dituzten kooperatibei ekonomikoki suspertzen laguntzea. Horretarako, ekitaldian izan dituzten galeren zati bat konpentsatzen zaie, testuinguru ekonomiko zailetan enpresa-proiektuak bideratzeko aukera izan dezaten. Hala, soberakin positiboak izan dituzten kooperatibek emaitzen % 10eko ekarpena egiten dute gutxienez, galerak dituzten kooperatiben emaitza negatiboen % 30 gehienez konpentsatzeko, eta horien ondare-narriadura txikitzen dute horrela. Bestetik, eta aldi berean, mekanismo horrek elkartasuna sustatzen du kooperatiba-itzulkinen eta -estornuen banaketan, bilakaera indibidualetatik

haratago. (Kooperatiba-itzulkinak eta -estornuak: nahitaezko funtsak hornitu ondoren bazkideari bere jardueraren arabera itzultzen zaion mozkinen edo galeren zatia).

Era berean, birmoldatzearen esparruan, emaitza positiboak dituzten kooperatibek emaitza horien % 5 bideratzen dute elkar-lankidetzako eta elkartasuneko beste mekanismo bat eratzerako. Beste mekanismo horren bidez, Taldeko kooperatibetako bazkide langileen ordainsarien arteko aldeak hein batean murrizten laguntzen zaie kooperatibei, ondare-egoera ahulean badaude.

- **Enpresa-garapena laguntzea.** MONDRAGONeko kooperatiba guztiek, oro har, lortu dituzten emaitza positiboaren % 5eko ez itzultzeko ekarpena egiten diote urtero MONDRAGON Fundazioari, Kohesio eta Garapen Funtsa eratzerako. MONDRAGON Esperientzia Kooperatiboaren kohesioa eta garapena ahalbidetuko duten proiektuak garatzerako bideratzen da funts hori. Hain zuzen ere, Sustapen Zentroa finantzatzeko, bideragarritasun-azterketak egitera eta I+G+b-aren arloko proiektuak finantzatzeko bideratzen da, besteak beste. Era berean, oro har, emaitza positiboaren % 5aren pareko ekarpena egiten dute kooperatibek MONDRAGON Inversiones S. Coop. kooperatibak kudeatzen duen nazioarteko hedapenerako funtsa eratzerako. Baliabide horiekin, nazioarteko hedapen- eta hazkunde-prozesuetan laguntzen zaie kooperatibei, enpresa-proiektuak bultzatzen dira edota kooperatiben ondare-egiturak indartu, besteak beste.

(201-3, 401-3, 403-3)

- **LagunAroren prestazioak.** MONDRAGONeko kooperatibak LagunAro izeneko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeko kide gara. Bazkideek (mutualistek) euren lan-indizearen arabera egiten dituzten ekarpenekin osatutako ondare-funtsa kudeatzen du erakunde horrek. Funtse horren helburua da mutualistentzako prestazio definituko pentsioen estaldura bat bermatzea, Gizarte Segurantzak aitortutako erretiro publikoko prestazioa osatzeko —LagunArok mutualista bakoitzaren izenean langile autonomoen erregimenari egindako kotizazioen araberrako prestazioa, hain zuzen—. Erretiro-prestazioez gain, mutualisten alarguntza- edo zuzentasun-prestazioak ere kudeatzen ditu.

Halaber, mutualistek egindako ekarpenen beste zati bat askotariko prestazioak batera finantzatzeko erabiltzen dira, hala nola osasun-laguntzaren estaldura, amatasuna eta aitatasuna, aldi baterako lan-erantzukizunak eta enplegurako laguntza. Enplegurako laguntzaren prestazioa elkar-lankidetzako tresna da, eta garai ekonomiko txarrei aurre egiteko diseinaturik dago. Hainbat neurri proposatzen ditu, eta kooperatibekin batera finantzatu, horien artean bazkideek lanpostuari eustearekin zuzenean lotuta daudenak: aurretiko erretiroen finantzaketa, egutegi mugikorra, langabezia efektiboa, mutualisten birmoldaketa profesionala, bazkideak LagunAroko kide diren kooperatibetan birkokatzea —aldi baterako edo behin betiko— eta abar.

## 4. ENPRESA LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA GARA

Berrikuntza funtsezkoa izango da ekonomiaren jasangarritasuna eta digitalizazioa ardatz dituen aro berrira egokitzeko. Berrikuntza-eredu irekian sinesten dugu. Horregatik, erakundeekin eta inguruneko beste eragile batzuekin lankidetzan, gure kooperatibak eraldatzea xede duen berrikuntza-ekosistema irekia eraikitzen dihardugu.

### 4.1. Gure negozio-eredua

(2-1, 2-6)

Gure enpresa-misioa **4 NEGOZIOTAN** antolatuta daramagu aurrera. Jarraian aipatzen diren negozio horiek txapa-deformazioko soluzioak eskaintzen dituzte hainbat sektoretan:

- **Siderurgia.** Altzairu lauen (bobinen) siderurgia-sektorerara bideratuta dago, altzairutegietatik hasi eta txapa-bobinen akaberaz arduratzen diren zerbitzu zentroetaraino. Aluminioa fabrikatzen duen sektorerako ere egiten du lan. Altzairua, herdoilezina eta aluminioa dira prozesatzen diren material nagusiak.
- **Automobilgintza.** Ibilgailu arinen fabrikatzaileei (OEMei) eta haien hornitzaileei (Tier-ei) bideratuta dago.
- **Etxetresna elektrikoak.** Etxetresna elektrikoen OEM fabrikatzaile nagusiekin egiten du lan.
- **Service.** Lerroak eta instalazioak egoki erabiltzeko eta mantentzeko laguntza teknikoa eskaintzen die gure bezeroei. Horretarako, Laguntza Teknikoko zerbitzua jartzen du haien esku. Bezeroak zerbitzu horrekin jartzen dira harremanetan gure ekipamenduren baten inguruan aholkularitza behar badute.

### LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA: SERVICE



#### NUESTRO SERVICIO DE ASISTENCIA TÉCNICA SE DIVIDE EN TRES BLOQUES PRINCIPALES

- Servicio de atención al cliente**
  - Asesoramiento técnico del funcionamiento de la máquina.
  - Resolución de consultas técnicas vía online y telefónica.
  - Documentación de las instalaciones.
  - Experiencia y Know-how para responder de forma rápida ante cualquier necesidad.
- Teleservicio**
  - Telediagnóstico para poder valorar la situación de la instalación y de las necesidades.
  - Conexión remota a la máquina para diagnóstico de cualquier incidente que pueda surgir.
- Asistencia en planta**
  - Mantenimiento de emergencia.
  - Planificación de la reparación.
  - Implantación de servicios digitales.

Gure produktu-zorro zabalean honako hauek nabarmentzen dira:

- Prentsa mekanikoak eta hidraulikoak.
- Estanpazio-sistema osoak.

- Transfer prentsak.
- Prentsetako, beroko estanpazioko eta forjako lerro robotizatuak.
- Zeharkako eta luzetarako ebaketa-lerroak, ebaketa-lerro konbinatuak eta formatu askotakoak.
- Bandako prozesuko lerroak, tentsiopeko lautze lerroak, adibidez
- Metalezko piezak konformatzeko sistema bereziak, banda-profilaketa, profilaketa malgua, errotorea eta estatorea ebakitzeko ekipamenduak, trokelak eta konformazio metalikoaren esparruko beste ekipamendu asko
- Laser bidezko ebaketa-lerroak


## 2023

**FAGOR ARRASATE** beste jauzi teknologiko bat eman du eta biltegi robotizatuak garatu du zizaila-ebaketarako tresneria automatikoki konfiguratzeko, luzetarako ebaketa-lerroetan: Fagor Arrasate Slitter Tooling Robot (FASTR).

Ebaketa-hortzak automatikoki konfiguratzeko biltegi robotizatuarekin jauzia eman da teknologian, luzetarako ebaketa-lerroen produktibitatea hobetzen baitu.

Azken produktuaren kalitateari dagokionez, robotak ebakiduraren zehaztasuna ere bermatzen du, erreminten ahoa automatikoki ikuskatzeko sistemari eta erreminten garbigailuari esker.

Era berean, biltegi robotizatuak aurrerapen handia da segurtasunaren eta ergonomiaren arloan, makinako langileek ebaketarako tresneria manipulatu behar izatea saihesten baitu.



| Jarduera duen sozietatea          | Sozietatearen negozio nagusiak                        | Jarduerak    |      |          |             |                              | Plantillako langileak |
|-----------------------------------|-------------------------------------------------------|--------------|------|----------|-------------|------------------------------|-----------------------|
|                                   |                                                       | Merkataritza | I+Ga | Diseinua | Produktzioa | Laguntza Teknikoko Zerbitzua |                       |
| Fagor Arrasate (% 100) (Espainia) | Automobilgintza + Siderurgia + Etxetresna elektrikoak | Bai          | Bai  | Bai      | Bai         | Bai                          | 561                   |
| FMMTK (% 100) (Txina)             | Automobilgintza + Siderurgia + Etxetresna elektrikoak | Bai          | Ez   | Ez       | Bai         | Bai                          | 79                    |
| FADG (% 100) (Alemania)           | Automobilgintza + Etxetresna elektrikoak              | Bai          | Ez   | Ez       | Ez          | Bai                          | 8                     |
| FAMEX (% 100) (Mexiko)            | Automobilgintza + Etxetresna elektrikoak              | Bai          | Ez   | Ez       | Ez          | Bai                          | 25                    |
| FAUSA (% 100) (AEB)               | Automobilgintza + Siderurgia + Etxetresna elektrikoak | Bai          | Ez   | Ez       | Ez          | Bai                          | 10                    |
| KONIKER (% 65) (Espainia)         | Automobilgintza + Siderurgia + Etxetresna elektrikoak | Ez           | Bai  | Ez       | Ez          | Ez                           | 14                    |
| GUZTIRA (urteko batezbestekoa)    |                                                       |              |      |          |             |                              | 697                   |

## 4.2. Joerak eta arriskuak

(3-3, 2-25)

2023an, pandemiak ekarri zituen erronken ondoren, aurrerapen ekonomikoak izan dira munduan, tentsio geopolitikoek eta sozialek iraun duten arren. Teknologia eraldaketaren funtsezko eragilea izan zen, batez ere berrikuntzari, adimen artifizialari eta digitalizazioari dagokienez.

Jasangarritasunaren arloan nolabaiteko aurrerapena egin da, bereziki ESG irizpideak betetzeari buruzko araudien inplementazio berrian, energia berriztagarrien alde egiteari dagokionez eta nazioarteko lankidetzarako aliantzetan.

Azpimarragarriak dira 2024ari hausnarketa eginez eta ekimenez aurre egitera gonbidatzen gaituzten joera-azterketak, Munduko Ekonomia Foroaren Arriskuei buruzko Txosten Globala, esaterako. Txostenaren arabera, aurrerantzean ere teknologia izango da aldaketa-eragile nagusia, eta batez ere zibersegurtasunera eta informazioaren erabilera egokira bideratuko da. Kontzientzia soziala eta ingurumenaren ingurukoa handitu egingo direla aurreikusten da; era berean, 2030erako nazioarteko agendaren helburuak lortzeko bidean, nazioarteko lankidetzaren areagotuko dela espero da.

Gure ingurunearekin dugun konpromisoaren ildotik, **IGG arriskuen azterketaren** bidez (ingurumena, gizartea eta gobernantza ona irizpideen arabera arriskuak analizatuz), FAGOR ARRASATEn esparru globala eta sektoriala testuinguruan kokatzeko egin dugu lan, egungo eta etorkizuneko joerekin bat egin eta haien arabera egokitzeko helburuarekin.

Arrisku globalak eta sektorialak analizatu dituzten bi azterlanak, hain zuzen, materialtasun bikoitzeko analisiaren ikuspegi finantzario berriaren barruan kontuan hartu beharreko inpaktuak identifikatzeko finkatu diren inputetako bat izan ziren. Aintzat hartu dituzte enpresaren balioan eragin dezaketen edo eragiten ari diren inpaktuak.

Munduko Ekonomia Foroaren Arrisku Globalei buruzko 2022ko Txostenaren (*The Global Risks Report 2022* delakoaren) bidez neurtu zuen FAGOR ARRASATEk nazioarteko arriskuen inpaktua. Enpresan epe laburrera eragin handiena izan dezaketen arrisku globalak zehaztu ziren, honako hauek, besteak beste:

klimateko alderdiaren porrota, gizarte-kohesioa ahultzea, zorpetze-krisiak eta muturreko meteorologiek ekar ditzaketen ondorioak.

Sektore-arriskuen analisia Risk Horizon plataformaren bidez egin zen. Enpresak lan egiten duen lekuaren arabera arrisku nagusiak direnak biltzen ditu azterlanak, honako sektore hauei dagokienez: Industrial Machinery & Goods eta Electrical & Electronic Equipment.

Nabarmentzekoa da datorren ekitaldian Fagor Arrasatek CSRDaren metodologiaren arabera eguneratuko duela arrisku-analisiaren ariketa. Hala, IGG alderdien eragin, arrisku eta negozio-aukerak analizatuko ditu balio-kate osoa kontuan hartuta.

**IGG alderdiei (ingurumenari, gizarteari eta gobernantza onari)** dagokienez, honako hauek dira FAGOR ARRASATEk kontuan hartu behar dituen inpaktu handieneko ARRISKUAK:

- **laneko osasuna eta segurtasuna**
- **etika negozioan**
- **natura-baliabideen kudeaketa; besteak beste, urarena eta energiarena**

**Ekonomiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin** lotutako alderdietan, honako hauek dira FAGOR ARRASATEren kasuan identifikatu ditugun **arrisku nagusiak**:

- **Segurtasun- eta osasun-arriskuak.** Laneko segurtasuna eta osasuna gai oso garrantzitsua da edozein enpresatan. Horregatik, FAGOR ARRASATEren gai materialetako bat da. Askotarikoak dira langileen osotasun fisikoan eragin dezaketen segurtasun- eta osasun-arriskuak. Arrisku horien artean daude, besteak beste, segurtasun-arriskuak, biologikoak, fisikoak, ergonomikoak, kimikoak, antolamendukoak eta ingurumenekoak. Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatze aldera, FAGOR ARRASATEk arriskuen ebaluazioa egin du, lantoki bakoitzeko arriskuak ezagutu eta horiek eraginkortasunez kontrolatzeko neurriak hartzeko. Batzorde bat daukagu horretarako, eta Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Urteko Gestio Plana egitea da haren zeregin nagusietako bat. Plana egin ondoren, Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Errektoreak onartu behar dute. Gainera, batzorde horren ardura da prebentzio-neurriak zehaztea egun dauden laneko arriskuei aurrea hartzeko, segurtasun- eta osasun-arloko istripuak aztertzea, eta prebentzio-prozedurak eta segurtasuneko larrialdietako plana balioztatzea, besteak beste.
- **Kostuen gorakada eta lehengaien eskasia.** Merkatu globalean gertatzen ari dira, eta arriskuan jarri dute gure hornidura-katearen egonkortasuna. Zuzenean eragiten diote gure produktuen kostuari. Gure erosketako eta bilketako departamentuek etengabe lan egin behar izaten dute gure hornitzaileen stockaren egoera une oro monitorizatzeko, baita hornidura-epeak, teknologia eta produktu-familia kritikoak aztertzeko eta entregatzeko dauden eskaeren egoera ikusteko ere. Horrela, behar izanez gero, premiazko bidalketak kudeatzen dituzte, edo faltan izan ditzakegun lehengaien eta osagaien kalitatezko alternatibak bilatzen dituzte.
- **Produktuarekin lotutako arriskuak.** FAGOR ARRASATEk fabrikatu eta saltzen dituen produktu gehienak arau eta erregulazioen eraginpean daude; izan ere, horiek betetzen ez badira, kalte pertsonalak eta materialak eragin daitezke. FAGOR ARRASATEk bere produktuen segurtasuna ziurtatzen du eta arriskuak murrizten ditu produktu berriak garatzeko eta plazaratzeko finkatuta duen prozeduraren bidez, beharrezko laborategi-probak eginez eta produktu-familia bakoitzari dagozkion arauak betez. Gainera, produktu askok kanpoko laborategien ziurtagiria dute.
- **Ingurumen-inpaktuekin lotura duten erregulazioak.** Merkatuaren eskakizunak eta erregulazio berriak gero eta zorrotzagoak izango dira, erakundeen eta horien produktuen ingurumen-inpaktua ahalik eta txikiak izan daitezen lortzeko. Gaur egun, FAGOR ARRASATEk Espainian dituen

lantegiek ISO 14001 ziurtagiria dute, eta elektrizitatearen, gas- eta ur-kontsumoa murriztea faktore kritikoa da produktu berriak plazaratzeko orduan.

- **Zibersegurtasunarekin lotutako arriskuak.** Eraso zibernetikoak goraka ari dira munduan. Horrelako esku-hartze batek fabrikazio-prozesuak eta IT sistema guztiak geldiaraz ditzake, eta ondorio larriak eragin finantza-mailan. FAGOR Taldeak zibersegurtasuneko protokoloak ditu ezarrita, eta IT departamentuak zorroztasunez zaintzen ditu, etengabe.

### 4.3. Mundu osoan dihardugu

(2-1)

FAGOR ARRASATEren bezero nagusiak AEBn, Alemanian, Mexikon, Txinan eta Espainian daude, baina mundu osoan dihardugu gure bezeroen ondoan. Atzerriko salmenten zenbatekoa da horren erakusgarri: **produkzioaren % 90 inguru esportatzen dugu, etengabe**, 70 herrialde baino gehiagotara.

## Talde globala

FAGOR ARRASATEk lau negozioetako bezeroen beharrei erantzuteko aurrera daramatzen eragiketek honako baliabide hauek dituzte euskarri:



Fabrikazioko, prestaketako eta SERVICEko **6 lantegi**



**5 kontinenteetan** merkaturatzen ditu produktuak



Laguntza teknikoa eskaintzen duten **3 enpresa filial**



Zerbitzu-instalazioak ditugu Espainian, Alemanian, Estatu Batuetan, Txinan eta Mexikon, eta zerbitzu-akordioa dugu Turkian. Leku horietan diharduen **gure giza taldea oso espezializatuta** dago eta munduko edozein tokitara joan daiteke, gorabeherak ahalik eta azkarren eta eraginkortasunik handienarekin konpontzeko.


Gainera, kalitate-estandarrik zorrotzenak betetzen dituzten **tokiko hornitzaile-sarea dugu mundu osoan zabaldurik**, eta haiek trebatzeaz arduratzen gara, gure ekipamenduei buruzko ezagutza espezifikoia izan dezaten.

Halaber, **teknologian azken belaunaldikoak diren produkzio- eta zerbitzu-instalazioak** ditugu Europan, Amerikan eta Asian. Azkartasuna, fidagarritasuna eta gaitasuna ezaugarri dituen zerbitzu profesionala eskaintzen dute, bezeroen eskakizun zorrotzei modu eraginkorrean erantzuteko. Guretzat funtsezkoa da bezeroekiko hurbiltasuna, edozein eskaeraren aurrean ahalik eta azkarren erantzungo dugula bermatzeko.

# 2023

**FAGOR ARRASATE RIBINERF** enpresa teknologikoaren kapitalean sartu da. Enpresa hori aditua da piezen kalitatea kontrolatzeko prozesuak, sailkapena, pickinga eta rackinga automatizatzeko robotika industrialean, 3D ikusmenean eta adimen artifizialean.

Teknologiaz gain, materialen **OPTIMIZAZIOA** eta **EFIZIENTZIA** ere hobetzen ditu, hondakinak murriztuz eta lehengaien zein energiaren erabilera optimizatuz.



## Ribinerf

**MONDRAGON** korporazioko **Fagor Arrasatek**, material metalikoak eta konpositeak konformatzeko eta prozesatzeko ekipamendu-ondasunen garapenean espezializatutako konpainiak, fabrikazio-prozesuen automatizazioan nazioarteko erreferentzia izateko estrategian maila bat igotzea aurreikusten du, **Ribinerf** enpresaren kapital sozialean sartuta. Ribinerf aditua da piezen kalitatea kontrolatzeko prozesuak, sailkapena, pickinga eta rackinga automatizatzeko robotika industrialean, 3D ikusmenean eta adimen artifizialean.

Ribinerfen akzioen % 70 erosita, fabrikazio-prozesuen automatizazioarekin lotura duten gaitasun teknologikoak indartzeko asmoa du Fagor Arrasatek. Fagor Arrasateko zuzendari nagusi Unai Lopez Moñuxek adierazi duenez, «eragiketa hori bat dator gure berrikuntza-estrategiarekin, hau da, gero eta adimentsuagoak, malguagoak eta produktiboagoak izango diren automatizazio-soluzioak eskaintzearen alde egiten dugun apustuarekin». Egoitza Arrasaten duen enpresako arduradun nagusiaren esanetan, «erosketa horrekin, Fagor Arrasatek merkatuan puntakoa den teknologia eskuratu du kalitate-kontrolako, pickingeko eta rackingeko prozesuak automatizatzeko, eta horiek kritikoak dira automobilgintzako, etxetresna elektrikoetako eta siderurgiako sektoreetako gure bezeroentzat».

Hain zuzen ere, Ribinerfen gaitasunak eta know-howa izango ditu eskura Fagor Arrasatek. Ezagutza hori, orain arte automatizatu ezin izan diren egoera ez-deterministikoetarako soluzio estandarizatuen fabrikazioan dago oinarrituta. Ribinerfen makinak ez dira zeregin horretara mugatzen; izan ere, adimen artifizialari esker, erabakiak hartzeko eta ekoizpen aldakorrean gertatzen diren gorabeherak konpontzeko gai dira. Horrela, lerroen gelditueneen iraupena murrizten da eta ahalik eta errendimendurik handiena lortzen da lanean. Modu horretan, bezeroek euren prozesuen lehiakortasuna optimizatu eta hobetu dezakete.

**Aliantzari esker, prozesuak automatizatzeko eta kalitatea ziurtatzeko arloetan bezeroen eskaerei erantzuteko soluzioak eskaini ahal izango ditu Fagor Arrasatek.**

#### 4.4. Errentagarritasun ekonomikoa eta enpresa-jarduera


(3-3)

FAGOR ARRASATEn, honako hauek dira errentagarritasun-helburuak lortzeko oinarriak:

— **BERRIKUNTZA.** Merkatuari begira gure balio-proposamena etengabe handitzeko funtsezko eragilea da; era berean, lehiakortasun-bereizgarria ere bada.

— **EGITURA-GASTUAK DOITZEA.** Jardun hori ohikoa da gure jardueraren urteko zikloen plangintzan. 2023an doikuntzak jarraipena izan du.

— **BIKAINTRASUN OPERAZIONALA.** Gure prozesuen eta eskura ditugun baliabideen errendimendu egokia lortzeko estrategia da. Gure **Bikaintasun Operazionalako Ereduan** oinarrituta dago. Eredu hori 2019an garatu genuen, 2020an hasi ginen sistematikoki ezartzen eta hurrengo urteetan ildo beretik jarraitu dugu.



# 2023

Fagor Arrasaten zehaztutako 8 prozesu eta azpiprozesuen behin betiko ezarpena izan da Bikaintasun Operazionalako urteko proiektu handietako bat.

## 4.5. Kudeaketa-sistema integratua

(2-22, 2-23, 2-24, 3-3)

FAGOR ARRASATEko zuzendaritzak argi du garrantzitsua dela enpresaren jardura gizartearekiko modu arduratsuan eta jasangarrian garatzea, eta hori bateragarri egitea produktu eta zerbitzuen kalitatearekin, ingurumenaren babesarekin, laneko arriskuen prebentzioarekin eta informazioaren segurtasunarekin. Horregatik, **kudeaketarako printzipio orokor hauek** finkatu ditu lantegi guztietan:

- **Gizarte-erantzukizunaren** printzipioak errespetatzea eta gure **jokabide-kodearekin** bat datorren portaera etikoari eustea une oro.
- **Bezeroa asebetetzea** erabilgarritasun eta iraupen handiko produktuekin eta bere beharren arabera zerbitzuekin.
- **Lan-baldintza seguruak eta osasungarriak** eskaintzea.
- **Legezko betekizunak eta barneko zen kanpoko arauak** betetzea produktuen kalitateari, ingurumenaren babesari, laneko arriskuen prebentzioari, informazioaren segurtasunari eta negozioetako etikari dagokienez.
- **Etengabe hobetzea** eremu guztietan, eta horretarako, ohiko kudeaketa-lanean honako alderdi hauek lantzea: helburuak ezartzea, hedatzea eta betetze-mailaren jarraipena egitea, ekintzak erabakitzeke.
- **Arazoei eta arriskuei aurrea hartzea.** Horretarako, bakoitzak bere erantzukizunak hartu behar ditu lanean, lehenengoan ondo egiteko.
- **Arazoei taldean aurre egitea**, eraginpeko guztiekin batera: lankideekin, hornitzaileekin, bezeroekin, administrazioarekin, auzotarrekin...
- **Ahalik eta gaitasun profesionalik handiena** lortzea, ezagutza barneratzeko eta partekatzeko asmoarekin.
- Euskal Herriko lantegietan **euskaraz lan egiteko** aukera bermatzea.

FAGOR ARRASATEren kudeaketa-eredua PDCA (Plan, Do, Check, Act) etengabeko hobekuntza-sistema batean oinarrituta dago, eta kudeaketa-sistemen arauak hartzen ditu kontuan. Erakundeko maila guztietan aplikatzen da: maila estrategikoan, prozesu eta zerbitzuen mailan eta sistemen mailan.

Kudeaketaren eremuetan arriskuak eta aukerak identifikatzeko balio duten ingurunearen azterketa eta barne-azterketa egiteko, **MSG3 Kudeaketa Sistemaren Eskuliburua** eta kudeaketa estrategikoko prozesua hartzen dira kontuan. Gogoeta estrategikoan —elkarrizketen eta lantegien bidez— identifikatutako arrisku eta aukera nagusiak AMIA matrize batean jasotzen dira. 2021ean egindako gogoetan, identifikatutako arriskuak markatuaren eta lehiakideen eremuetakoak dira. Ez da gizarte-arriskurik edo hornitzaileekin lotura duenik identifikatu, adibidez. Nabarmentzekoa da arriskuak kualitatiboki ebaluatzen direla, horrek aukera ematen baitu heldu beharreko erroka estrategikoak zehazteko. Gogoeta horren ondorioz, komenigarritzat jo da FAGOR ARRASATEren gai materialetan oinarritutako **jasangarritasun-estrategia** finkatzea.

## PLAN ESTRATEGIKOA

**Plan Estrategikoa** urtero hedatzen da, **Gestio Planaren (GP)** bidez. Bi tresna horien bitartez, beharrezko baliabideak kuantifikatzen dira; epe luzerako, ertainerako eta laburrerako estrategia hedatzeko antolamendurik egokiena zehazten da, eta definitutako erronka bakoitzaren aurrerapena egiaztatzeko eta arrisku-mailaren jarraipena egiteko aginte-aula estrategikoa zehazten da.


Prozesuen eta zerbitzuen mailan, urtero jasotzen dira **Gestio Planaren** ondoriozko jarraibideak eta helburuen betetze-mailari, ekintza-planei eta arrisku-analisiari buruzko informazioa. Hurrengo kudeaketa-ziklorako helburuak finkatzen dira, eta ondoren, doitu beharreko prozesuko elementuak identifikatzen dira eta jarraibide egokiak helarazten zaizkie taldeei, departamentuei eta pertsonari. Prozesuen jabeek eta haien taldeek dagokien kudeaketa-eremuko helburuen eta ekintzen aldizkako jarraipena egiten dute.

Ildo beretik, zuzendaritzak eta kudeaketa-sistema integratuko arduradunak arriskuak ebaluatu eta politika egokiak bideratzen dituzte (kudeaketa-sistema integratuak barne hartzen ditu kalitatea, ingurumena, laneko segurtasuna eta osasuna, informazioaren segurtasuna, euskara-plana eta gizarte-erantzukizun korporatiboa). Taldeekin batera, erakundean hedatzen dituzte, aldizka funtzionamendua ebaluatzen dute, eta urtero sistemaren egokitasuna berrikusi eta horri buruz informatzen dute.

Jarraian azaltzen den taulan, FAGOR ARRASATEk gai ez-finantzario nabarmenetan erabiltzen dituen **KUDEAKETA-IKUSPEGIAK** agertzen dira, kudeaketa estrategikoko prozesuan egindako arriskuen analisiarekin bat:

| Gaia                                                                                                                                                                                                                         | Kudeaketa-eredua                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ingurumena</li> <li>➤ Arrisku ertaina - Eragina gure bezeroen energia-efizientzian</li> </ul>                                                                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kudeaketa-sistema integratua, ISO 14001 ziurtagiria</li> <li>✓ Ekodiseinua erabiltzea gure produktuen energia-efizientzia hobetzeko</li> <li>✓ Arriskuen ebaluazioa Ingurumena Kudeatzeko Sistemari</li> </ul>                                                                                |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gai sozialak eta pertsonalak</li> <li>➤ Arrisku handia - Pertsonak ardatz dituen eredu kooperatiboa</li> </ul>                                                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Estatutu Sozialak</li> <li>✓ Barne Araudi Kooperatiboa</li> <li>✓ Jokabide-kodea</li> <li>✓ Erakunde-kulturari buruzko inkesta</li> <li>✓ Kudeaketa-sistema integratua (ISO 45001 ziurtagiria)</li> <li>✓ Arriskuen ebaluazioa Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemari</li> </ul> |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Giza eskubideak errespetatzea</li> <li>➤ Arrisku txikia balio-kate osoan</li> </ul>                                                                                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Estatutu Sozialak</li> <li>✓ Barne Araudi Kooperatiboa</li> <li>✓ Jokabide-kodea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                   |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka</li> <li>➤ Arrisku ertaina – Nazioarteko eragiketak</li> </ul>                                                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Estatutu Sozialak</li> <li>✓ Barne Araudi Kooperatiboa</li> <li>✓ Jokabide-kodea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                   |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gizartea</li> <li>➤ Arrisku txikia – Gure eragin-eremuan oso sustraituta dagoen eredu kooperatiboa</li> <li>➤ Gure produktuek ez dute eragin zuzenik kontsumitzaileengan</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ FAGOR Taldeko elkartasuna</li> <li>✓ MONDRAGON elkartasuna</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                         |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Arrisku penalak</li> </ul>                                                                                                                                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Estatutu Sozialak</li> <li>✓ Barne Araudi Kooperatiboa</li> <li>✓ Jokabide-kodea</li> <li>✓ Arrisku penalen prebentziorako eskuliburua</li> </ul>                                                                                                                                             |

Urtero planifikatzen diren **gai ekonomiko**en jarraipena hilero egiten da Gestio Kontrolaren bidez. Finantza-departamentuak argitaratzen du, gure kudeaketa estrategikoko prozesuan aurreikusita dagoenez:



**Gai sozialei** dagokienez, horien jarraipena ere hilero egiten da Kooperatibako organoetan:

- ♦ **Kontseilu Errektorean** (bazkideen ordezkaria da)
- ♦ **Kontseilu Sozialean** (langileen ordezkaria da; langile gehienak bazkide ere badira)

2021ean, adierazitako balioekin bat datorren jokabide-kodea zehaztu eta **Gizarte-erantzukizun Korporatiboko Batzordea** eratu zen, arlo horretako jarduketak sustatu eta koordinatzeko. Ildo horretan, **compliance penalarren diagnostikoa** egitea eta **Arrisku penalen prebentziorako eskuliburua** zehaztea izan da jarduketa nabarmenetako bat.



## 4.6. Berrikuntza Fagor Arrasaten

(2-6, 3-3)

**Gure produktuak eta zerbitzuak bezeroen beharrak azaldu ahala garatzeko eta teknologikoki bilakatzeko gaitasuna da FAGOR ARRASATEren funtsezko indarretako bat.**

Gure ustez, hori lortzeko gakoetako bat berrikuntza da, eta horrekin batera, prozesuetako eta teknologietako know-howa eta bezeroentzako zerbitzu bikain eta hurbilekoa.



### LA INNOVACIÓN DE FAGOR ARRASATE EN CIFRAS



3,5 millones de euros de presupuesto para Innovación



Más de 30 profesionales trabajando en I+D



Activa participación en proyectos colaborativos de I+D. Actualmente estamos trabajando en 20 proyectos



10 proyectos de I+D con participación de clientes

FAGOR ARRASATE instalazioen hornitzailea da munduko industria-sektore zorrotzenetako batzuetan: automobilgintzan, lerro zurian eta altzairuaren eta aluminioaren balio-katean.

Gure bezeroek soluzio integralak, fidagarriak eta produktiboak eskatzen dituzte, eta gero eta interes handiagoa dute adimendunak eta energiaren aldetik efizienteak ere izan daitezen. Konponbide horiek errentagarritasuna handitzeko eta merkatuaren joera berrien aurrean malguak izateko garatzen ditugu. Horregatik, hau da gure berrikuntza-estrategia osoaren zutabeetako bat: gure I+Gko teknikariek zentro teknologikoekin, unibertsitateekin eta enpresetako I+G unitateekin duten

lankidetzak sistematikoa, soluzio berriak garatzea eta zerbitzu berrien prestazioan aurrera egitea helburu duena.

#### 4.6.1. Berrikuntzako erronkak

Honako hauek dira FAGOR ARRASATEn aurrean ditugun erronketako batzuk:



- **KONPONBIDE TEKNOLOGIKO BERRIAK.** Ibilgailuak arintzea eta mantentze-lan prediktiboa dira FAGOR ARRASATEn teknologia berriak garatzearen arloan dugun apustu handietako bat. Ildo horretan, mantentze-lanetako adierazle prediktiboak garatzeko lanean jarraitzen dugu.

2023an mantentze-lan produktiborako hiru adierazle-mota aztertu dira:

- Engranajeetarako adierazle prediktiboak.
- Errodamenduetarako adierazle prediktiboak.
- Ponpa hidraulikoetarako adierazle prediktiboak.

Horrez gain, adierazleok bezeroen txostenetan sartzen jarraituko dugu.

- **ESTRATEGIA DIGITALA.** FAGOR ARRASATEn duela urte batzuk ekin genien fenomeno digitalerako eraldaketari eta egokitzapenari. Gaur egun, lortutako ezagutza guztia gure instalazioetan aplikatzen dugu, bezeroei hobekuntzak eskaintzeko gure makinaren fidagarritasunean eta fabrikatutako produktuaren kalitate-prozesuan. Era berean, FAGOR ARRASATEn makinak online monitorizatzeko

aukera lantzen dihardugu. Gainera, hobekuntzak egin ditugu gure instalazioetan, eta makinen mantentze-lanak urrutitik egitea ahalbidetuko duten aldagai sentorizatuak sartu ditugu.

- **EKONOMIA ZIRKULARRA.** Ekonomia zirkularrak proposatzen duen eredu ekonomiko eta produktiboaren ezaugarri nagusiak jasangarritasuna eta baliabideen zein energia-iturrien aurrezpena dira. FAGOR ARRASATEN kausa horrekin konprometituta gaude, eta horregatik, soluzio eta zerbitzu berriak lantzen ari gara.
- **EMANDAKO PROIEKTUAK.** FAGOR ARRASATEN materialen (altzairuaren, aluminioaren eta konposatuen) konformazioari aplikatutako ikerketa industrialeko proiektuak egiten ditugu. Gainera, honako arlo hauek ere egiten dugu lan: transferizazioko manipulatzailen eta elementuen garapenean; robotikan; makinen ekoizpena eta energia optimizatzeko funtzionalitate berrietan, eta sistema ziberfisikoak eta datu-analisiak integratzen dituzten mantentze-lanetan. Halaber, ikerlanean dihardugu, besteak beste, automobilak arintzera bideratutako ekoizpen-prozesuetan eta lerro zuriko etxetresna elektrikoaren kabineteen hobekuntzan.

## 2023

**Prentsa-lerroetarako FOLaren (Front Of Line delakoaren) garapena, merkatuari prentsa-lerroetarako soluzio osoa eskaintzeko helburuarekin.**

### 2023an azpimarratzekoak

- ❖ **Automatizazio aurreratua.** Automatizazio-sistemak garatu dira, eta horretarako, simulazio-inguruneak, diseinu mekanikoa eta simulazio zinematikoak aplikatu dira, 3D inguruneen eta kalkulu-tresnen bidez (KUKA SIM v3, FANUC Roboguide eta SIEMENSEN Press Line Simulation, besteak beste).
- ❖ **Hortzen aldaketa automatikoa luzetarako ebaketa-lerroetarako.** Hortzak automatikoki aldatzeko sistemaren garapena bultzatu da, biltegi gehigarriarekin. Bertan, aldaketa automatikoki egiteaz gain, biltegiko kudeaketa egiten da hurrengo serieko hortzak konfiguratzeko, eta serie jakin batzuetan higatutako hortzak erabili edo ez erabakitzen da. Horretarako, sistemak txertatuta du hortzen higadura neurtzeko sistema.
- ❖ **FOLaren garapena prentsa-lerroetarako.** Iaz prentsa lerroetarako automatizazioa (*Feeder Wave*) merkaturatu ondoren, beharrezkotzat jo dugu biraketa-ardatz gehigarri bat eranstea piezaren aitzinamenduaren noranzkoan, lehiakideen besoen ezaugarri berberak izateko. Prentsa-lerroetarako formatuen desapilatzaila —FOL (Front Of Line) esaten zaiona— garatzen hasi gara, merkatuari prentsa-lerroetarako soluzio osoa eskaintzeko helburuarekin.

- ❖ **Transferretan abiadura azkartzea.** Merkatu batzuetan, «low-cost» lehiakideak guk bezeroei eskaintzen dizkiegun kadentzietara iristen ari direla ikusi da. Gure transferren ezaugarriak hobetze aldera, kontrola aldatuz transferraren bibrazioak gutxitzeko sistema garatu da.
- ❖ **Bend4Me.** Tolestaketa-prozesua offline simulatzeko softwarea da. 2021ean ekin genion proiektuari, eta harrera ona izan zuen bezeroen artean. Aurten, softwarearen prestazioak hobetzen jarraituko dugu.

## 4.6.2. Proiektu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza

(3-3)


Produktua berritzeko jarduerak BK2Da Berrikuntza-ereduaren bidez egituratzen dira. Eredu hori 2022an berrikusi zen eta 2023an ezarri:

### IKUSPENA:

FAGOR ARRASATEren produktuak eta zerbitzuak hobetzea, teknologikoki puntakoak izaten jarrai dezaten, barruko eta kanpoko eragileen ezagutza aprobetxatuz.

### ZER DA?

BK2Da eredu integratua da, eta berrikuntza-sustapena-ezagutza hirukoa nola kudeatu zehazten du. Partaidetza eta harremana sustatzen ditu berrikuntzako ekosistema irekian —bezeroak, enpresak, unibertsitateak eta ikerketa-zentro teknologikoak barne hartzen dituen horretan—. Bertan, etengabeko harremana izango du kanpoko eragileekin eta administrazio publikoekin.



BK2Da ereduaren barruan jasota dago Kooperatibaren gogoeta estrategikoarekin bat datorren **berrikuntza-estrategia** nola ezarri. Berrikuntza-estrategia hori **ibilbide teknologikoan** (road map delakoan) dago jasota. Era berean, ereduak **berrikuntza-proiektuen garapena** ere finkatzen du.

### ○ Berrikuntza-estrategiaren definizioa



### ○ Berrikuntza-proiektuen garapena



Beraz, 2022an berrikusi egin zen ibilbide-orri teknologikoa, 2021ean egindako gogoeta estrategikoaren emaitzarekin lerrokatzeko, eta 2022-2023an hasi da aplikatzen.

## 4.7. Gure produktuak

(2-6)

FAGOR ARRASATEN **balio erantsi handiko** soluzio oso pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, bezeroen beharrei erantzuteko eta haien erronkei aurre egiteko, gure ingeniartzako ezagutza eta tokiko zerbitzua eskaintzeko dugun ahalmenean oinarrituta. **Proiektua zehazteko hasierako fasetik hasita, instalazioaren bizi-ziklo osoan laguntza ematea** dugu helburu.

| SECTORES                      |                             |
|-------------------------------|-----------------------------|
| Automoción                    | Aluminio                    |
| Aerospacial                   | Electrodomésticos           |
| Forja                         | Fabricantes de troqueles    |
| Acerías                       | Solar                       |
| Centros de servicios          | Racking system              |
| TECNOLOGÍAS                   |                             |
| Prensas mecánicas             | Líneas de corte transversal |
| Prensas hidráulicas           | Líneas de procesamiento     |
| Líneas blanking               | Aplanado                    |
| Estampación en caliente       | Soluciones de apilado       |
| Composites                    | Plegado                     |
| Automatizaciones para prensas | Perfilado                   |
| Líneas de corte longitudinal  | Troqueles                   |



### GURE IKUSPENA: BALIOA SORTZEA GURE BEZEROENTZAT

FAGOR ARRASATEN txapa konformatzeko balio erantsi handiko soluzio pertsonalizatuak eskaintzen ditugu bezeroen erronkei aurre egiteko, gure ingeniartzako ezagutza eta tokiko zerbitzua emateko dugun ahalmenean oinarrituta.

## 4.8. Gure hornidura-katea

(2-6, 204-1, 308-1, 308-2, 414-1, 414-2)

**Hornitzaileak funtsezkoak dira gure produktuen errentagarritasuna, kalitatea eta fidagarritasuna ziurtatzeko.**



Gure hornidura-katearekin lotutako arriskuek hornigaien kalitatearekin dute zerikusia, batez ere azpikontratutako hornitzaileei dagokienez. Hornitzaileak hautatu eta etengabe ebaluatzeko prozeduren bidez, haien kalitate-kudeaketako sistemen bermea eta entregatutako produktuen kalitatea ebaluatzen ditugu.

Gure hornidura-katean honako hornitzaile-mota hauek ditugu:

**Lehengaien hornitzaileak** (altzairua, brontzea eta burdinurtua).

Industria-sektore guztietarako lan egiten duten dimentsio handiko hornitzaileak; haien kudeaketa-sistemetan eragiteko gaitasun txikia dugu.

**Galdaragintzako eta piezen mekanizazioko hornitzaileak** (tokikoak eta txikiak izan ohi dira).

ISO 9001 arauaren arabera ziurtagiria eskatzen diegu.

**Garraioaren eta zerbitzuen hornitzaileak.**

Fabrikaziorako beharrezkoak diren materialak ekartzeaz eta bukatutako produktuak bezeroei eramateaz arduratzen diren garraiolaria.

**Merkaturatutako produktuen hornitzaileak**

(motor elektrikoak, osagai elektronikoak, osagai hidraulikoak eta osagai pneumatikoak). Mundu-mailako hornitzaileak, nazioarteko kalitate- eta segurtasun-estandar guztiak betetzen dituzten produktu propioak eskaintzen dituztenak.

**Multzoen eta instalazioen muntaketako hornitzaileak** (noizean behin gure instalazioetan lan egiten duten hornitzaileak; tokikoak izan ohi dira).

ISO 9001 ziurtagiria eskatzen diegu, bai eta legeria (ingurumenekoa eta laneko arriskuen prebentziokoa) betetzea ere gure instalazioetan lan egiten dutenean.



## EROSKETA-FAMILIAK

FAGOR ARRASATEren hornidura-katean **218** erosketa-familia daude.

**3.554** hornitzaile ditugu.

FAGOR ARRASATE S. Coop. enpresaren 2023ko erosketa-datuei dagokienez:

- Erosketa guztien % 76 herrialdean egindakoak dira.
- Erosketa guztien % 11,4 Asian egin dira, eta % 10,7 Txinan (gehien bat FMMTK gure filialari egindakoak dira).
- Erosketa guztien % 9,2 Europan egin dira (Espainia kontuan hartu gabe).
- Erosketa guztien % 3,2 Amerikan egindakoak dira.


**% 76,2**

herrialdean  
egindako  
erosketak

**% 10,7**

Txinan  
egindako  
erosketak

Gastuen proportzioa herrialdeen arabera - Fagor Arrasate




Salmenta gehienak nazioartean egiten baditugu ere (% 80tik gora, sarritan), **erosketen bidez gure inguruko gizartean eragiten dugu batez ere (erosketen % 76).**

## EROSKETA-FAMILIAK (KATEGORIAK)

Honako hauek dira erosketa-bolumenik handieneko material-taldeak FAGOR ARRASATE S. Coop. kooperatiban:



| FAMILIA-MOTA / URTEA    | 2023            |      | 2022            |      | 2021            |      |
|-------------------------|-----------------|------|-----------------|------|-----------------|------|
|                         | Erosketak €-tan | %-a  | Erosketak €-tan | %-a  | Erosketak €-tan | %-a  |
| ELEMENTU KOMERTZIALAK   | 59.568.442 €    | % 30 | 43.923.054 €    | % 31 | 32.619.949 €    | % 28 |
| ERAGIKETAK              | 22.219.986 €    | % 11 | 20.343.073 €    | % 14 | 13.440.477 €    | % 11 |
| MAKINAK / AZPIMULTZOAK  | 59.283.224 €    | % 30 | 33.184.648 €    | % 23 | 41.786.234 €    | % 35 |
| AZPIKONTRATAZIOA        | 24.997.529 €    | % 13 | 16.403.634 €    | % 12 | 13.333.410 €    | % 11 |
| LEHENGAIK               | 19.172.665 €    | % 10 | 19.272.286 €    | % 14 | 10.958.994 €    | % 9  |
| GARRAIOA ETA BILGARRIAK | 7.755.036 €     | % 4  | 6.391.544 €     | % 4  | 4.530.116 €     | % 4  |
| ZEHARKAKOAK             | 4.394.495 €     | % 2  | 2.824.602 €     | % 2  | 1.779.234 €     | % 2  |
| GUZTIRA                 | 197.391.377 €   |      | 142.342.844 €   |      | 118.448.415 €   |      |



Datu horiek agerian uzten dutenez, oso garrantzitsua da erosketen kudeaketa egokia egitea lehengaiei, elementu komertzialei, galdaragintzari eta piezen mekanizatuari dagokienez, horrelako material-multzoen hornikuntzak eta prezioek une kritikoa bizi baitute mundu osoan.

**FMMTK enpresaren erosketak**, berriz, honela daude banatuta:

- Erosketen **% 71,6 herrialdean** egin dira.
- Erosketen **% 28 European** egin dira, eta horietatik **% 99 Espainian**, gehien bat enpresa nagusiak egindakoak.
- Gainerako **% 0,68a** garrantzi gutxiko erosketak dira, Mexikon, Vietnamen eta Japonian egindakoak.



## HORNITZAILEEN HOMOLOGAZIOA ETA EBALUAZIOA

FAGOR ARRASATEk hiru hornitzaile-mota bereizten ditu **homologatzeko** orduan:

- **1. mota:** lehengaien (txapa, altzairu forjatua, burdinazko eta ez-burdinazko galdaketa eta ereduak), pieza erdilandu edo landuen, multzoen, tresna edo makinen eta ekipamenduen hornitzaileak.
- **2. mota:** diseinuko, muntaketako, instalazioetako, bilketako eta garraio berezietako zerbitzuen hornitzaileak.
- **3. mota:** elementu komertzialen eta katalogoko ekipamenduen hornitzaileak, profiletarako eta barra komertzialetarako lehengaien hornitzaileak barne. Produktu horien artean daude, besteak beste, motorrak, erregulazio-sistemak, enbrage-balaztak, material hidraulikoa, elektrikoa eta pneumatikoa eta abar.

**1. motako** hornitzaileak homologatzeko, lehenik eta behin, hornitzaileari ebaluazioa egiten zaio, FAGOR ARRASATEren barruko homologazio-arauak oinarri hartuta. Arau horiek teknologien arabera daude antolatuta. Ebaluazio hori ez da beharrezkoa izango hornitzaileak Enpresa-erregistroko ziurtagiria baldin badu. Hornitzaileak «gai» edo «ez-gai» gisa homologatuko dira. Kalitateko departamentuaren ardura da ebaluazioa egitea edo beste pertsona bati eskatutako ebaluazioa balioztatzea.





**2. motako** hornitzaileei dagokienez, muntaketako, instalazioetako eta bilketako zerbitzuen hornitzaileak 1. motakoen kasuan adierazitakoaren arabera homologatuko dira, dagozkien Arrasate Arauak helarazteko. Gainerako hornitzaileek ez dute Kalitateko departamentuaren homologaziorik behar. Azpikontratazioko arduradunak haien egokitasuna aztertuko du ISO 9001 arauaren arabera ziurtagiriaren edo baliokideen bidez. Ziurtagiririk ez duen hornitzaileak dokumentuak aurkeztu beharko ditu (beste bezero batzuen erreferentziak, esperientzia, eskura dituen baliabideak eta abar), kontratatutako jarduerarako duen gaitasuna egiaztatzeko.

Azkenik, **3. motako** hornitzaileek ez dute Kalitateko departamentuaren homologaziorik beharko. Teknikariak edo erosleak hornitzaile horien katalogoak hartuko dituzte kontuan produktuek edo zerbitzuek beharrezkoak diren espezifikazioak betetzen dituzten ikusteko. Zalantza-kasuetan, egindako aplikazioei buruzko erreferentziak eskatuko zaizkie.

Gure hornidura-kateari begira, **ingurumen- eta gizarte-gaiei** dagokienez, hornitzaile guztiei aplikatuko zaien jokabide-kodea zehazten ari da FAGOR Arrasate. Jasangarritasunaren, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren eremu guztiak hartuko ditu kontuan, eta hornitzaileek nahitaez bete beharko dute. 2023an kodea zehazten jarraituko dugu, hornitzaileen ebaluazioan eta homologazioan sartzeko.

**Hornitzaileen ebaluazioan** honako irizpide hauek hartzen dira kontuan:

- **Prezioen ebaluazioa.** Prezioa (iturria: OBIEE): erosketa-zuzendaritzak eta bere kolaboratzaileak aztertzen dute.
- **Kalitatearen ebaluazioa.** Kalitatea (iturria: OBIEE): hiru hilean behin, erosketa-zuzendaritzak eta kalitatea bermatzeko sailak datuen analisia egiten dute, emaitzak aztertzeko eta horien arabera erabakiak hartzeko; hala, arazoak antzematen direnean, hobetzeko eta/edo zuzentzeko ekintzak proposatzen dituzte.
- **Zerbitzuaren ebaluazioa.** Zerbitzua (OBIEE): erosketa-zuzendaritzak eta kolaboratzaileak aztertzen dute.
- **Ordainketa-baldintzen ebaluazioa.** Ordainketa (OBIEE): erosketa-zuzendaritzak eta bere kolaboratzaileak aztertzen dute.



# 2023

## HORNIDURA-KATEAREN EGONKORTASUNA

- Prezioak egonkor mantendu dira merkatuan.
- Lehengaien eta merkataritza-osagaien hornidura-arazoak gutxitu egin dira.
- Funtsezkoa da erosketen eta bilketen sailek hornitzaileen jarraipena egitea.

## 5. LURRALDEAN ERROTUTAKO ENPRESA DEMOKRATIKOA GARA

Gure esperientziak demokrazia ekarri zuen enpresaren eremura. Bazkide bakoitzak boto bat, printzipio horren arabera jarduten dugu. Gure bazkide langileek jabetzan, irabazien banaketan eta kudeaketan hartzen dute parte.

**Garapen Jasangarrirako Helburuekin** (GJHeKin) konprometitutako gobernantza-eredu kooperatiboa garatzen ari gara. **Batzar Nagusiak** dira gure organorik gorena, eta bertan hartzen ditugu etorkizunerako erabaki garrantzitsuak.

### 5.1. Eredu kooperatiboa


(2-9, 2-10, 2-11, 2-13, 2-14, 2-18)

Gure lan-komunitatearen oinarrizko printzipioak zehaztu eta adierazten dituen **EREDU KOOPERATIBOAREN** helburua kideen giza eta gizarte-nahiak asetzea da, eta, horretarako, enpresa-egitura errentagarria eta sendoa lortzea; era berean, eredu horrek pertsonaren zerbitzura jarri nahi du lankidetzat, munduarekiko eta ingurunearekiko elkartasunez.

- Lana, giza nahiak pixkanaka asetzeko eta giza aurrerapena lortzeko baliabidea dela uste dugu. Elkartasun zorrotz eta arduratsua du oinarri, enpresa-errealitatearekiko konpromiso indibidual eta kolektiboa bultzatuko duena.
- Produkzio-bideen jabetza bazkide langileen esku dago, eta gizarte-eskubideen erabilera pertsonaren lanarekin lotuta dago, eta ez kapitalaren jabetzarekin.
- Kooperatibako kide guztiek hartzen dute parte ordezkaritza- eta gobernu-organoen hautaketan eta enpresaren norabidea zehazten. Eredu demokratiko baten alde egiten dugu, kolektibitatearen erantzunkidetasuna ahalbidetu eta bultzatuko dituen, bai sozietate-araubidean eta bai enpresa-kudeaketan ere.

Hezkuntza eta garapen kooperatiboarekin batera, **printzipio kooperatiboek** jokabideak adierazten dizkiete gure erakundeko kideei, Kooperatibaren balioak erabil ditzaten. Proiektu partekatua eraikitzen diharduten pertsonak dira.

Kooperatibaren gobernu-organoak eta horiek egiten duten lana benetan demokratikoak izan daitezen lortzeko, bazkideek haien hautaketan parte hartzea bultzatzen da, eta, horrekin batera, haietako partaide izan daitezen eta laneko partaidetza- eta subiranotasun-sistema bati dagozkion komunikazio- eta erabaki-sarean aktiboki parte har dezaten sustatzen da.



Erakunde-organismoek partaidetzarako mekanismoak eskaintzen dizkigute kideoi. Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Nagusia elkargunea da, bertan partekatu eta onartzen da guztien artean zehaztutako proiektua, eta Kontseilu Errektoreko, Zaintza Batzordeko eta Kontseilu Sozialeko kideak izendatzen dira.

**Kontseilu Errektorea** kide anitzeko organoa da, eta berari dagokio Kooperatiba kudeatu eta ordezkatzeari. Eremu instituzionala eta estrategikoa gobernatu, onartu eta gainbegiratzen ditu.

**Gerentziak** eremu estrategikoa eta kudeaketa operatiboari dagokiona proposatu eta gauzatzen du. Kontseilu Errektoreak izendatzen du, eta Zuzendaritza Kontseiluaren laguntza eta aholkua jasotzen ditu..

Erabaki ekonomikoetan, antolamendukoetan eta lanekoetan ordezkari sozialei kontsultatzeko eta haiekin negoziatzeko metodoak erabiltzen ditugunez, **Kontseilu Soziala** da lan-komunitateak Kooperatibaren administrazioan etengabe parte hartzeko organoa; izan ere, Kontseilu Errektorearen eta Gerentziaren aholkularitza- eta kontsulta-organoa da.

| Gobernantza kooperatiboaren egitura | 2023      | 2022      | 2021      | 2020      | 2019      |
|-------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| <b>ZAINTZA BATZORDEA</b>            | <b>3</b>  | <b>3</b>  | <b>3</b>  | <b>3</b>  | <b>3</b>  |
| Emakumeak                           | 1         | 2         | 2         | 2         | 2         |
| Gizonak                             | 2         | 1         | 1         | 1         | 1         |
| <b>KONTSEILU ERREKTOREA</b>         | <b>10</b> | <b>10</b> | <b>10</b> | <b>10</b> | <b>10</b> |
| Emakumeak                           | 2         | 2         | 1         | 1         | 2         |
| Gizonak                             | 8         | 8         | 9         | 9         | 8         |
| <b>KONTSEILU SOZIALA</b>            | <b>23</b> | <b>23</b> | <b>26</b> | <b>26</b> | <b>26</b> |
| Emakumeak                           | 0         | 0         | 0         | 0         | 0         |
| Gizonak                             | 23        | 23        | 26        | 26        | 26        |
| <b>ZUZENDARITZA BATZORDEA</b>       | <b>9</b>  | <b>9</b>  | <b>8</b>  | <b>8</b>  | <b>8</b>  |
| Emakumeak                           | 1         | 1         | 1         | 1         | 1         |
| Gizonak                             | 8         | 8         | 7         | 7         | 7         |

Gobernu-organismoen egitura eta funtzionamendua arautzen dituzten arau-, printzipio- eta prozedura-multzoan —gobernu kooperatiboa deritzon horretan— zehazten dira Kontseilu Errektorearen, Zuzendaritza Kontseiluaren eta Kontseilu Sozialaren arteko harremanak. Organo sozial horiek, erantzukizunez jokatzuz,


aintzat hartuko dute beti Batzarrak onartutako proiektu partekatua, eta beren jardunean Kooperatibaren interes orokorra lehenetsiko dute.

Horretarako, hautaketa-prozesuak modu proaktiboan kudeatzen dira eta sistematikoki jartzen dira martxan organoetako kideentzako prestakuntza-planak.

Halaber, Kooperatibaren izaera demokratikoak, sozietate-alderdiaz gain, autogestioaren eta, ondorioz, bazkideek enpresaren kudeaketan parte hartzearen garapen progresiboa ere badakar. Ildo horretan, hileroko parte hartzeko mekanismoak eta bideak ezarrita daude, eta informazio gardena eskaintzen da Kooperatibaren kudeaketako oinarritzko aldagaien bilakaerari buruz.

## 5.2. Jokabide-kodea

(2-23, 2-24, 2-25, 2-26, 2-27)



2021ean zehaztu zen FAGOR ARRASATE Taldeko sozietate guztietan (Fagor Arrasate S. Coop. kooperatiban eta horren kontrolpeko sozietate guztietan) aplikatzen den **jokabide-kodea**. Langile guztiei dagokie, haien postua edo kokapen geografikoa eta funtzionala edozein direla ere.

### JOKABIDE-KODEAREN HELBURUAK:

- Balio eta printzipio etikoak ezartzea, honako alderdi hauetan jarraitu beharreko jokabideak oinarritzat hartuta: lanbide-jarduera, FAGOR ARRASATE Taldearen barruko harreman pertsonalak, eta enpresa hornitzaileekiko, elkartuekiko, bezeroekiko, administrazio publikoekiko eta, oro har, gizartearekiko harremanak.
- Kooperatiba-kulturarekin bat datozen kudeaketa-dinamikak sustatzea, etikoa, jasangarria eta sozialki arduratsua izango den jarduera-eredu komun bat bideratzeko.
- FAGOR ARRASATE Taldeak jarduten duen herrialde batzuetako ordenamendu juridikoetan jasota dauden pertsona juridikoen arrisku penalei aurrea hartzea.
- Ustelkeriaren kontrako gaiak eta giza eskubideen zein laneko, gizarteko eta ingurumeneko eskubideen ingurukoak jasotzea.

FAGOR ARRASATE Taldearekin zerikusia duen edozein pertsona fisiko edo juridikori aplikatuko zaio jokabide-kodea, osorik edo partzialki.

Kooperatibako Kontseilu Errektoreak onartu zuen jokabide-kodea; Taldearen balioetan oinarrituta dago, eta bat dator gure **Estatutu Sozialekin** eta **Barne Araudi Kooperatiboarekin**.

FAGOR ARRASATEk jokabide-kodearen inguruko irregulartasunei eta ez-betetzeei buruzko jakinarazpenak eta kontsultak kudeatzeko prozedura ezarri du. Erakundeko kideek eta interes-taldeek honako kanal hauek erabil ditzakete, **IGG alderdien** inguruko zalantzak argitzeko eta irregulartasunen edo ez-betetzeen berri emateko (**etikari, alderdi sozialei, giza eskubideei, ingurumenari, osotasunari** edo jokabide-kodean ezarritako jarraibideen kontrako jardueri buruzkoak jakinarazteko):



Gure INTRANETeko aplikazioa

**elk@rNET**

eta [Fagor Arrasate/Jokabide-kodea](#) webgune korporatiboa



KANAL ETIKO ELEKTRONIKOA  
[Kanaletikoa@fagorarrasate.com](mailto:Kanaletikoa@fagorarrasate.com)  
[canaletico@fagorarrasate.com](mailto:canaletico@fagorarrasate.com)  
[ethicalchannel@fagorarrasate.com](mailto:ethicalchannel@fagorarrasate.com)



FAGOR ARRASATEREN WEB-ORRIALDEA  
[Kudeaketa-politika – Fagor Arrasate](#)

Kontseilu Errektorea arduratzen da GEKeko (Gizarte Erantzukizun Korporatiboko) Batzordearen osaera zehazteaz eta GEKen arduraduna izendatzeaz.

Gaur egun honako hauek dira partaideak:

- **Kontseilu Errektoreko lehendakaria, GEKen arduraduna dena**
- **Pertsonen zuzendaria**
- **Kontseilu Sozialeko lehendakariordea**
- **Finantza-zuzendaria**
- **Jasangarritasuneko burua**

Batzordearen ardura-eremuak Fagor Arrasate Talde osoa hartzen du barne, eta erantzukizun nagusi hauek ditu:

- Gizarte-erantzukizun korporatiboaren sistema kudeatzea, helburu hauekin:
  - Erantzukizunaren ezarpena eta eraginkortasuna bultzatu eta gainbegiratzea.

- Prestakuntza ematea erakundeko kideei.
  - Sistemari dagozkion erantzukizunak lanpostuen deskribapenetan eta erakundeko kideen jardura kudeatzeko prozesuetan sar daitezen sustatzea.
  - Erakundean eragina izan dezaketen lege-, gizarte-, lan- eta ingurumen-arriskuak (penalak) identifikatzea —negozio-bazkideekin lotutakoak barne—, horien ebaluazioa egiteko eta horiek saihesten edo gertatzeko probabilitatea murrizten lagunduko duten ekintzak erabakitzeke.
  - Zuzendaritza Kontseiluari (goi-zuzendaritzari) eta Kontseilu Errektoreari (gobernu-organoari) aholku ematea.
- Iradokizunak, ekimenak eta hobekuntza-proposamenak direla eta:
- Jokabide-kodearen berri zabaltzea eta egoki komunikatzea.
  - Jokabide-kodearekin zerikusia duen guztiaren interpretazioari buruzko galderei eta zalantzei erantzutea.
  - Jasotako komunikazioak eta salaketak ikertzea, bai eta egoera susmagarriak ere, eta Kontseilu Errektoreari (gobernu-organoari) dagokion irizpena eta ekintza-proposamena helaraztea.
  - Jokabide-kodearen kudeaketarekin zerikusia duen guztiaren betetze-maila eta edukia urtean behin berrikustea, eta beharrezko eguneraketak proposatzea Kontseilu Errektoreari.
  - Jarduera-adierazleak ezartzea eta neurtzea, hobetzeko.
  - Urteroko Batzar Nagusian, jokabide-kodearen kudeaketa aplikatzearen ondoriozko emaitzen berri ematea Zuzendaritza Kontseiluari (goi-zuzendaritzari), Kontseilu Errektoreari (gobernu-organoari) eta erakundeari.
  - Kontseilu Errektoreak agindutako zeregin guztiak, compliance penalaren gainbegiratze- eta kontrol-organoa baita.

Batzordea hiru hilean behin bilduko da, gutxienez, eta egoeraren arabera beharrezkoa den guztietan.

Jokabide-kodean jasota dagoenez, jakinarazpen edo kontsultak modu anonimoan egin daitezke.

### 5.2.1. Giza eskubideak errespetatzea

(3-3, 2-26, 409-1)

Kooperatibaren forma juridikoa —eta, beraz, FAGOR ARRASATE GROUPena— Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioen asmo handiko garapena da; hain zuzen, gizaki guztiak duintasun eta eskubide berak dituztela dioen printzipioarena.

FAGOR ARRASATEk aintzat hartzen ditu **Giza Eskubideen Adierazpenaren** funtsezko printzipioak, Nazio Batuen 1948ko definizioaren arabera, eta erreferentzia-esparrutzat hartzen ditu taldekide dituen erakundearen jarduteko moduari dagokionez. Aintzatespen horrekin bat, jokabide-kodeak bere egiten ditu Nazio Batuen Mundu Itunaren hamar printzipioak.

Barrura begira, kontratazio-politikak eta lanaren antolamenduari buruzkoak ezartzeko, herrialde bakoitzean indarrean dauden araudiak eta legediak hartu dira kontuan, bai eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak sustatzea eta betetzea ere (lan egiteko gutxieneko adina, elkartzeko askatasuna, negoziazio kolektiborako eskubidea, diskriminaziorik eza eta abar).

**FAGOR ARRASATE GROUPEk, bere printzipioen arabera, gaitzetsi egiten ditu lan behartua, haurren lana eta era guztietako diskriminazioak, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko hitzarmenak betetzen ditu.**

Enpresan lan egiten duten pertsonak eskubide eta betebeharrak berberak dituzten bazkideak dira, haien ezagutza edo hierarkia-egoera edozein dela ere. Guztiak dira enpresa-jardueraren arriskuen eta irabazien partaide.

Gure jarduera-eremuan ez dugu nabaritu Giza Eskubideak ez betetzearekin lotutako arrisku nabarmenik. Beraz, eremu horretan arrisku nabaririk ikusi ez dugunez, ez da beharrezkoa izan arreta egokiko prozedurarik aplikatzea Giza Eskubideen esparruan.

# 2023

FAGOR ARRASATE GROUPen ez da Giza Eskubideen urraketa-kasuen salaketarik jaso.

## 5.2.2. Etika eta osotasuna negozioetan

Etikaren eta osotasunaren balioak zabal jasota daude gure jokabide-kodean, hainbat ikuspuntu kontuan hartuta. Era berean, gure prozesuak bideratzen dituzten jarraibideak jasotzen dira, ingurunearekiko inplikazioari eta alderdi interesdunei dagokienez.

2021ean **Gardentasun-politika** zehaztu zen, merkatuei eta, oro har, gizarteari (administrazio publikoak barne) informazio fidagarria helarazteko konpromisoa hartuta. **Konfidentzialtasun-politika** ere finkatu genuen, informazio ez-publikoa erabiltzeari eta babesteari buruzkoa. Era berean, **Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak errespetatzeko politika** finkatu genuen.

## 5.2.3. Interes-gatazkak

(2-15)

Jokabide-kodean **Interes-gatazken politika** zehaztu da, negozioetako etikaren funtsezko elementua delako eta gure erakundearen oinarritzko gaia delako gobernantzari dagokionez. Bertan jasota dagoenez, interes-gatazka baten aurrean dagoen pertsonak ahalik eta lasterren emango dio horren berri Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Batzordeari. Era berean, eragindako pertsonak ez du erabakietan esku hartuko edo eragingo, ez du parte hartuko erabaki horiek planteatzen diren bileretan, eta ez du gatazka horri eragiten dion informazio konfidentziala eskuratuko.

## 5.2.4. Ustelkeriaren aurkako borroka

(3-3, 205-1, 205-2, 205-3)

Finkatu dugun **Ustelkeriaren aurkako politikaren** arabera, FAGOR ARRASATE Taldea era guztietako ustelkeriaren kontra dago, eta etekin edo abantailaren bat lortzeko asmoz enpresatik kanpoko pertsonengan legez kontra ez eragiteko konpromisoa du. Politika horren barruan **Oparien politika** zehaztu da, eta bertan adierazten denez, enpresarekiko harremanetan legez kontra eragitea xede duten oparirik, mesederik edo konpentsaziorik ezin izango da eman ez onartu, ez dirutan ez gauzatan, ez zuzenean ez zeharka, haien izaera edozein dela ere.

Ustelkeriaren ondoriozko arriskuen aldetik ebaluatutako eragiketei dagokienez, bezeroekin dugun harremanari lotutako arriskuak nabarmentzen dira. Agentzia-kontratu guztietan gizarte-erantzukizun korporatiboari buruzko klausula bat dago, eta horren arabera, gure agenteen konpromisoa da giza eskubideak, aukera-berdintasuna, eroskeriaren edo xantaiaren debekua eta abar babesteari buruzko printzipioak errespetatzea.

2023an ez da ustelkeriaren aurkako berariazko ekintzarik egin, baina bai jokabide-kodearen inguruan (5.2. *Jokabide-kodea* taulan azaltzen denez), eta kodeak ustelkeriaren aurkako eta etikari buruzko terminoak biltzen ditu. 2023an ahalegin berezia egin da lanpostuei dagozkien arriskuen berri emateko kolektiboari. Urte horretan lehentasuna eman zaie, batetik, prozedurak eta kanalak martxan jartzeari, eta bestetik, kolektibo hartzailearentzat egokia den informazioa lantzeari.


# 2023

**0** kontu ustelkeriarekin edo eroskeriarekin lotuta.

Ustelkeriaren kontrako politika lantzen eta balioztatzen jardun duten pertsonak prestakuntza jaso zuten. 2023an, politika horri eta Kode Etikoari buruzko prestakuntza eskaini da. Era berean, jokabide-kodearen edukia jakinarazi zaio kolektibo osoari, Ustelkeriaren kontrako politika barne. Gainera, gure jarduerak dituen arrisku nagusien inguruko beste prestakuntza-jarduera batzuk zehaztu dira, datozen urteetara begira.

2021ean, halaber, **Fundazioetan eta elkarteetan dohaintzak egiteko, babesa emateko eta parte hartzeko eta ekarpen politikoak egiteko politika** finkatu zen. Ildo horretan, FAGOR ARRASATE Taldeak aitortu du ez duela jarduera politikoetan parte hartzen, eta ez duela izaera politikoko inolako dohaintza ekonomikorik egiten. Jarduera politikoetan egiten diren esku-hartze guztiak pertsonalak izango dira. Babesletza- eta dohaintza-jarduerak modu etikoan egiteko jarraibideak ere zehazten dira.

## 6. PERTSONAK ZAINTZEN DITUEN ENPRESA GARA



**FAGOR ARRASATEn pertsonak gaude erdigunean.** Pertsonok eraikitzen dugu etorkizuna, partekatzen dugun proiektuarekiko erantzunkidetasunez eta belaunaldi berriei guk jaso genuena baino Kooperatiba hobeaz uzteko konpromisoarekin. Pertsonak beren onena eman dezaten, enpresa-kultura aurreratua eraikitze lanean ari gara. Enpresa-kultura horretan talde-lana sustatu behar da, aniztasuna kudeatzen jakin, pertsonen osasuna zaindu eta laneko bizitza eta familia bateragarri egin.

**Pertsonen eta erakundearen arteko ekitatean eta elkartasunean sinesten dugu, eta, horregatik, gure kooperatibetan **ordainsarien eskala 1-6\* tartera mugatuta** dago.**

*\* 1-6 ordainsarien eskalan, gehien kobratzen duenak gutxien kobratzen duenak baino sei aldiz gehiago irabaz dezake gehienez. Hori kontrolatzeko, lanpostu bakoitzari lan-indize bat esleitzen zaio: 1 da txikiena eta 6 handiena. Gaur egun, gutxieneko indizea 1etik gorakoa da kasu guztietan. Beraz, ordainsarien arteko aldea 1-6 eskalak adierazten duena baino txikiagoa da, eta elkartasun-konpromisoari eusten zaio ordainsariei dagokienez.*

### 6.1. Elkartasuna oinarri

(3-3, 2-23, 2-24)

(taula guztietan 2023ko abenduaren 31ko datuak hartu dira kontuan, batezbestekoa zehazten dutenetan izan ezik)

Gure ikuspenaren eta balioen arabera, pertsonak gara gure proiektu sozioenpresarialaren jasagarritasunerako faktore nagusia. Gainera, azpimarragarria da FAGOR ARRASATEko langile gehienak bazkide langileak direla, eta beraz, beren sozietatearen kudeaketan parte hartzen dutela.

Pertsonak kudeatzeko zerbitzuaren bidez aurrera daramatzagun pertsonen politikak bat datoz arau-izaera duten barne-dokumentu hauekin:

- **Enpresa nagusiaren Estatutu Sozialak, Lanaren eta Elkartasunaren printzipioa jasotzen dutenak.**
- **Barne Araudi Kooperatiboa, aplikatzen den Ordainsari-politikaren oinarria jasotzen duena.**

Politika horiek langile guztiei ezartzen zaizkie, bakoitzaren izaera sozietarioa edozein dela ere. Pertsonak kudeatzeko taldeak, Pertsonen Zuzendaritzarekin batera (jabe gisa), politiken hedapena eta inplikaturako

prozesuen funtzionamendua ebaluatzen du aldian behin: pertsonen hautaketa, prestakuntza, ordainsariak eta abar.

Aldizka, FAGOR ARRASATEko pertsona guztiek uneko antolamendu-kultura ebaluatzen dute, aplikatutako politiketan eta prozeduretan arrisku-eremuak eta behar diren hobekuntzak identifikatzeko.

### 6.1.1. Enplegua

(2-7, 2-8)



**697** langile




**% 90** gizonak



**% 10**  
emakumeak

| Langile-kopurua sexuaren arabera* | 2023       | 2022       | 2021       | 2020       | 2019       |
|-----------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| Emakumeak                         | 72         | 77         | 85         | 97         | 106        |
| Emakumeen %-a                     | % 10       | % 11       | % 12       | % 12       | % 12       |
| Gizonak                           | 625        | 594        | 623        | 736        | 784        |
| Gizonen %-a                       | % 90       | % 89       | % 88       | % 88       | % 88       |
| <b>Guztira</b>                    | <b>697</b> | <b>671</b> | <b>708</b> | <b>833</b> | <b>890</b> |



| Langile-kopurua 12/31n | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 |
|------------------------|------|------|------|------|------|
| Guztira                | 704  | 671  | 677  | 770  | 872  |

# 2023

**% 4,9** handitu da plantilla 2022ko datuekin alderatuta.

FAGOR ARRASATEko batez besteko plantilla honela dago banatuta:



Zuzeneko laneskuak zuzenean parte hartzen du produkzio-prozesuan.



Zeharkako laneskuak produkzioaren inguruko laguntza-zerbitzuak ematen ditu.

Horiez gain, 2023an **21 lagun** izan ditugu gurean praktikak eta karrera-amaierako proiektuak egiten, **unibertsitateekin eta heziketa-zentroekin ditugun hitzarmenen ondorioz**. Pertsona horiek ez dira azalduko «Gai sozialak eta pertsonala» ataleko datuetan.

## 6.1.2. Kontratu-modalitateak

(2-7, 2-8, 401-1, 401-2)

# 2023 KONTRATUAK (\* urteko batezbestekoa)

- Lan-kontratu mugagabea: 630 LANGILE
- Aldi baterako lan-kontratua: 60 LANGILE
- Lanaldi partzialeko kontratua: 7 LANGILE
- Lanaldi osoa: 690 LANGILE
  - o Emakumeak → 71
  - o Gizonak → 619

## 2023 KONTRATUAK (\* urteko batezbestekoa)

- Lanaldi-erdia: 7 LANGILE
  - Emakumeak → 1
  - Gizonak → 6

### BORONDATEZKO BAJAK

**26** borondatezko baja

**3** emakume  
**23** gizon

**11** lagun <30 urtekoak  
**14** lagun 30-50 urtekoak  
**1** lagun >50 urtekoak

### ALTAK

**63** alta

**10** emakume  
**53** gizon

**26** lagun <30 urtekoak  
**31** lagun 30-50 urtekoak  
**6** lagun >50 urtekoak

### KALERATZEAK

**5** kaleratze  
Plantillaren % 0,71

**0** emakume  
**5** gizon

**4** lagun <30 urtekoak  
**0** lagun 30-50 urtekoak  
**1** lagun >50 urtekoa

### Borondatezko baje bilakaera, herrialdeka eta generoaren arabera

| Borondatezko baje herrialdeka eta generoaren arabera | 2023     |           |           | 2022     |           |           | 2021     |           |           | 2020     |           |           | 2019     |           |           |
|------------------------------------------------------|----------|-----------|-----------|----------|-----------|-----------|----------|-----------|-----------|----------|-----------|-----------|----------|-----------|-----------|
|                                                      | Emak.    | Giz.      | Guztira   | Emak.    | Giz.      | Guztira   | Emak.    | Giz.      | Guztira   | Emak.    | Giz.      | Guztira   | Emak.    | Giz.      | Guztira   |
| Espainia                                             | 1        | 8         | 9         | 2        | 19        | 21        | 2        | 15        | 17        | 1        | 14        | 15        | 3        | 10        | 13        |
| Txina                                                | 1        | 8         | 9         | 4        | 12        | 16        | 3        | 21        | 24        | 1        | 12        | 13        | 5        | 6         | 11        |
| Alemania                                             | 0        | 1         | 1         | 0        | 0         | 0         | 1        | 2         | 3         | 1        | 0         | 1         | 0        | 0         | 0         |
| Mexiko                                               | 1        | 4         | 5         | 0        | 1         | 1         | 0        | 4         | 4         | 0        | 1         | 1         | 0        | 0         | 0         |
| AEB                                                  | 0        | 2         | 2         | 1        | 0         | 1         | 0        | 0         | 0         | 0        | 0         | 0         | 0        | 0         | 0         |
| <b>Guztira</b>                                       | <b>3</b> | <b>23</b> | <b>26</b> | <b>6</b> | <b>32</b> | <b>38</b> | <b>6</b> | <b>42</b> | <b>48</b> | <b>3</b> | <b>27</b> | <b>30</b> | <b>8</b> | <b>16</b> | <b>24</b> |

### Borondatezko bajen bilakaera, herrialdeka eta adinaren arabera

| Borondatezko bajen herrialdeka eta adinaren arabera | 2023      |           |          |           | 2022     |           |          |           | 2021      |           |          |           | 2020     |           |          |           | 2019      |          |          |           |
|-----------------------------------------------------|-----------|-----------|----------|-----------|----------|-----------|----------|-----------|-----------|-----------|----------|-----------|----------|-----------|----------|-----------|-----------|----------|----------|-----------|
|                                                     | <30       | 30-50     | >50      | Guztira   | <30      | 30-50     | >50      | Guztira   | <30       | 30-50     | >50      | Guztira   | <30      | 30-50     | >50      | Guztira   | <30       | 30-50    | >50      | Guztira   |
| Espainia                                            | 3         | 5         | 1        | 9         | 2        | 18        | 1        | 21        | 8         | 8         | 1        | 17        | 2        | 11        | 2        | 15        | 7         | 3        | 3        | 13        |
| Txina                                               | 6         | 3         | 0        | 9         | 5        | 10        | 1        | 16        | 2         | 22        | 0        | 24        | 4        | 9         | 0        | 13        | 5         | 6        | 0        | 11        |
| Alemania                                            | 0         | 1         | 0        | 1         | 0        | 0         | 0        | 0         | 0         | 2         | 1        | 3         | 0        | 1         | 0        | 1         | 0         | 0        | 0        | 0         |
| Mexiko                                              | 2         | 3         | 0        | 5         | 0        | 0         | 0        | 0         | 4         | 0         | 0        | 4         | 0        | 1         | 0        | 1         | 0         | 0        | 0        | 0         |
| AEB                                                 | 0         | 2         | 0        | 2         | 0        | 0         | 1        | 1         | 0         | 0         | 0        | 0         | 0        | 0         | 0        | 0         | 0         | 0        | 0        | 0         |
| <b>Guztira</b>                                      | <b>11</b> | <b>14</b> | <b>1</b> | <b>26</b> | <b>7</b> | <b>28</b> | <b>3</b> | <b>38</b> | <b>14</b> | <b>32</b> | <b>2</b> | <b>48</b> | <b>6</b> | <b>22</b> | <b>2</b> | <b>30</b> | <b>12</b> | <b>9</b> | <b>3</b> | <b>24</b> |

### Kaleratzeen bilakaera herrialdeka

| Kaleratzeak herrialdeka | 2023     | 2022     | 2021     | 2020      | 2019     |
|-------------------------|----------|----------|----------|-----------|----------|
| Espainia                | 2        | 2        | 1        | 13        | 2        |
| Txina                   | 2        | 0        | 0        | 11        | 1        |
| Alemania                | 0        | 0        | 2        | 4         | 2        |
| Mexiko                  | 0        | 0        | 0        | 0         | 0        |
| AEB                     | 1        | 0        | 0        | 0         | 0        |
| <b>Guztira</b>          | <b>5</b> | <b>2</b> | <b>3</b> | <b>28</b> | <b>5</b> |

### Alten bilakaera herrialdeka eta generoaren arabera

| Altak Herrialdeka eta generoaren arabera | 2023      |           |           | 2022      |           |           | 2021     |           |           | 2020     |          |          | 2019      |           |           |
|------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|----------|-----------|-----------|----------|----------|----------|-----------|-----------|-----------|
|                                          | Emak.     | Giz.      | Guztira   | Emak.     | Giz.      | Guztira   | Emak.    | Giz.      | Guztira   | Emak.    | Giz.     | Guztira  | Emak.     | Giz.      | Guztira   |
| Espainia                                 | 9         | 31        | 40        | 7         | 31        | 38        | 0        | 5         | 5         | 1        | 4        | 5        | 11        | 31        | 42        |
| Txina                                    | 1         | 10        | 11        | 3         | 13        | 16        | 0        | 0         | 0         | 0        | 0        | 0        | 2         | 1         | 3         |
| Alemania                                 | 0         | 1         | 1         | 1         | 0         | 1         | 0        | 0         | 0         | 0        | 3        | 3        | 0         | 4         | 4         |
| Mexiko                                   | 0         | 10        | 10        | 0         | 5         | 5         | 1        | 5         | 6         | 0        | 1        | 1        | 0         | 1         | 1         |
| AEB                                      | 0         | 1         | 1         | 1         | 1         | 2         | 0        | 0         | 0         | 0        | 0        | 0        | 0         | 0         | 0         |
| <b>Guztira</b>                           | <b>10</b> | <b>53</b> | <b>63</b> | <b>12</b> | <b>50</b> | <b>62</b> | <b>1</b> | <b>10</b> | <b>11</b> | <b>1</b> | <b>8</b> | <b>9</b> | <b>13</b> | <b>37</b> | <b>50</b> |

### Alten bilakaera herrialdeka eta adinaren arabera

| Altak Herrialdeka eta adinaren arabera | 2023      |           |          |           | 2022      |           |          |           | 2021     |          |          |           | 2020     |          |          |          | 2019      |           |          |           |
|----------------------------------------|-----------|-----------|----------|-----------|-----------|-----------|----------|-----------|----------|----------|----------|-----------|----------|----------|----------|----------|-----------|-----------|----------|-----------|
|                                        | <30       | 30-50     | >50      | Guztira   | <30       | 30-50     | >50      | Guztira   | <30      | 30-50    | >50      | Guztira   | <30      | 30-50    | >50      | Guztira  | <30       | 30-50     | >50      | Guztira   |
| Espainia                               | 16        | 19        | 5        | 40        | 11        | 25        | 2        | 38        | 4        | 1        | 0        | 5         | 3        | 1        | 1        | 5        | 20        | 20        | 2        | 42        |
| Txina                                  | 8         | 3         | 0        | 11        | 8         | 7         | 1        | 16        | 0        | 0        | 0        | 0         | 0        | 0        | 0        | 0        | 1         | 2         | 0        | 3         |
| Alemania                               | 0         | 1         | 0        | 1         | 0         | 1         | 0        | 1         | 0        | 0        | 0        | 0         | 0        | 1        | 2        | 3        | 2         | 0         | 2        | 4         |
| Mexiko                                 | 2         | 8         | 0        | 10        | 3         | 2         | 0        | 5         | 5        | 1        | 0        | 6         | 1        | 0        | 0        | 1        | 1         | 0         | 0        | 1         |
| AEB                                    | 0         | 0         | 1        | 1         | 1         | 0         | 1        | 2         | 0        | 0        | 0        | 0         | 0        | 0        | 0        | 0        | 0         | 0         | 0        | 0         |
| <b>Guztira</b>                         | <b>26</b> | <b>31</b> | <b>6</b> | <b>63</b> | <b>23</b> | <b>35</b> | <b>4</b> | <b>62</b> | <b>9</b> | <b>2</b> | <b>0</b> | <b>11</b> | <b>4</b> | <b>2</b> | <b>3</b> | <b>9</b> | <b>24</b> | <b>22</b> | <b>4</b> | <b>50</b> |

## 6.1.3. Elkartasuna ordainsarietan

(2-19, 2-20, 201-3, 202-1, 405-2)

Enpresa nagusiaren ordainsari-sistema erreferentziazkoa da, metodologiari dagokionez, FAGOR ARRASATE Taldeko lantegi guztientzat. Oinarri horiek errespetatu eta betetzen dituzte, eta hortik aurrera, lantegi bakoitza kokatuta dagoen herrialdearen idiosinkrasiara egokitzen da, kasu bakoitzean aplikagarriak diren araudiak eta hitzarmenak kontuan hartuta.

Lanpostu guztietan, egindako lanaren eta onartutako erantzukizunen arabera finkatzen da ordainsaria, ez da bereizketarik egiten beste edozein arrazoi dela eta.

Errelebo-plusak, gaueko lanari dagozkion plusak, antzinasunagatiko plusak eta antzekoak lantegi/herrialde bakoitzeko erreferentziako araudiekin eta hitzarmenekin lotuta daude, eta pertsonari aplikatzen zaizkio, betetzen duen lanpostuaren arabera.

**«Ez dira onarpena ukatzeko arrazoiak izango ideia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak, ez eta eskatzailearen arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila ere, salbu eta sozietatearen helburuarekin bateraezinak badira».**

*FAGOR ARRASATEren Estatutu Sozialak*

- Ekitaldi batean egiten diren **ordainsari- edo soldata-igoerak** berdin aplikatzen zaizkie lantegi osoko langile guztiei, ez da inolako bereizkeriarik egiten ideia politikoak, sindikalak eta erlijiosoak direla eta, ez eta arrazagatik, hizkuntzagatik, sexuagatik edo egoera zibilagatik ere.
- **Laneko ordainsariak** bat datoz dagokion herrialdeko lan-merkatuan indarrean daudenekin, eta hitzarmenaren eta/edo sektorearen erreferentziak errespetatzen dira kasu guztietan.
- **Zuzendaritzari** Taldeko langile guztiei ezartzen zaizkien **ordainsari-irizpide berak** aplikatzen zaizkie.

Beraz, urteetan kontratatutako metodologia erabiltzen da ordainsariak finkatzeko, erabateko gardentasuna eta homogeneotasuna bermatzen dituen (bai FAGOR ARRASATEren lantegietan, bai FAGOR Taldean); gainera, eskualdean desoreka sozialik txikiena egon dadin bermatzen saiatzen da. Balorazioan aditua den batzorde bat arduratzen da metodologia aplikatzeaz. Giza Baliabideen areako eta organo sozialetako ordezkariak osatzen dute batzordea, eta erabateko gardentasuna bermatzen dute prozesuan.


**Enpresa nagusiko eta filialetako gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala kalkulatzeko honako formula hau erabiltzen da:**

$$\text{Soldata-arrakala} = \frac{(\text{gizonen batez besteko ordainsaria} - \text{emakumeen batez besteko ordainsaria})}{\text{gizonen batez besteko ordainsaria}}$$

FAGOR ARRASATEn gizonen eta emakumeen lanpostu-mota desberdinak dira arrakalaren arrazoiak; izan ere, lanpostu berdinetan ez dago alderik batzuen eta besteen ordainsarien artean.

| Soldata-arrakalaren batezbesteko aritmetikoa* | 2023          | 2022          | 2021          | 2020          | 2019          |
|-----------------------------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| Sexuaren arabera, FA Groupen                  |               |               |               |               |               |
| Emakumeen urteko soldata gordina              | 35.567        | 30.495        | 25.607        | 23.979        | 23.915        |
| Gizonen urteko soldata gordina                | 49.513        | 41.044        | 39.201        | 36.149        | 38.118        |
| <b>Ratioa</b>                                 | <b>% 28,2</b> | <b>% 25,7</b> | <b>% 34,7</b> | <b>% 33,7</b> | <b>% 37,3</b> |


\*Soldata-arrakalaren batezbesteko aritmetikoa: Taldeko enpresen (enpresa nagusiaren eta filialen) soldata-arrakalaren batezbesteko aritmetikoa.



Enpresa nagusiko eta filialetako plantilletan soldata-arrakala haztatuta neurtu da, eta emaitza hauek lortu ditugu:

| Soldata-arrakalaren batezbesteko haztatua** | 2023          | 2022          | 2021          | 2020          | 2019          |
|---------------------------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| Sexuaren arabera, FA Groupen                |               |               |               |               |               |
| Emakumeen urteko soldata gordina            | 35.095        | 31.662        | 25.952        | 27.199        | 29.510        |
| Gizonen urteko soldata gordina              | 44.227        | 39.156        | 32.823        | 32.505        | 35.444        |
| <b>Ratioa</b>                               | <b>% 20,6</b> | <b>% 19,1</b> | <b>% 20,9</b> | <b>% 16,3</b> | <b>% 16,7</b> |

\*\*Soldata-arrakalaren batezbesteko haztatua: Taldeko enpresa guztien soldata-arrakalak (zein bere plantillarekin biderkatuta) batu eta plantilla osoarekin zatituta ateratzen dena.



Bazkideen erretiroari dagokionez, Kooperatibak erretiro-estaldura hobetzeko beharrezkoak diren tresnak ditu. Xede horrekin sortu zen Arogestión Ahorro-Jubilación borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundea (aurrerantzean, Arogestión EPSV). 1999ko martxoaren 23an eratu zen, bazkideei —bai babesleei (kooperatibei) bai bazkideei (afiliatutako kooperatibetako mutualistei)— **erretiro-estaldura hobetzeko** behar diren tresnak eskaintzeko.

| Zuzendaritza Kontseiluko kideen batez besteko soldata (eurotan) | 2023   | 2022   | 2021   | 2020   | 2019   |
|-----------------------------------------------------------------|--------|--------|--------|--------|--------|
| Emakumeak                                                       | 77.463 | 71.256 | 57.281 | 60.545 | 66.616 |
| Gizonak                                                         | 80.808 | 67.721 | 57.794 | 63.292 | 70.500 |

| Kontseilu Errektoreko kideen batez besteko soldata (eurotan) | 2023   | 2022   | 2021   | 2020   | 2019   |
|--------------------------------------------------------------|--------|--------|--------|--------|--------|
| Emakumeak                                                    | 48.375 | 34.084 | 33.897 | 34.633 | 30.508 |
| Gizonak                                                      | 51.842 | 49.812 | 39.098 | 36.175 | 43.670 |

| Elkartasuna ordainsarietan (Fagor Arrasate S. Coop.) *eurotan (Lanbide-taldeak / sexua)* | 2023      | 2022      |
|------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|
| <b>Batez besteko ordainsaria</b>                                                         |           |           |
| <b>1. taldea</b>                                                                         |           |           |
| Emakumeak                                                                                | 22.628    | 23.307    |
| Gizonak                                                                                  | 27.642    | 28.888    |
| <b>2. taldea</b>                                                                         |           |           |
| Emakumeak                                                                                | 31.847    | 26.384    |
| Gizonak                                                                                  | 32.501    | 29.123    |
| <b>3. taldea</b>                                                                         |           |           |
| Emakumeak                                                                                | 37.968    | 33.346    |
| Gizonak                                                                                  | 41.448    | 36.010    |
| <b>4. taldea</b>                                                                         |           |           |
| Emakumeak                                                                                | 43.530    | 38.803    |
| Gizonak                                                                                  | 47.016    | 41.799    |
| <b>5. taldea</b>                                                                         |           |           |
| Emakumeak                                                                                | 64.839    | 50.616    |
| Gizonak                                                                                  | 53.935    | 55.396    |
| <b>Kontseilu Errektoreko kideak</b>                                                      | <b>10</b> | <b>10</b> |
| Emakumeak                                                                                | 2         | 2         |
| Gizonak                                                                                  | 8         | 8         |
| <b>Zuzendaritza Batzordeko kideak</b>                                                    | <b>9</b>  | <b>9</b>  |
| Emakumeak                                                                                | 1         | 1         |
| Gizonak                                                                                  | 8         | 8         |

\*Lan-indizeetan oinarritutako lanbide-taldeak.

## 6.1.4. Lanaren antolamendua

(401-3)

Lan-baldintzak Kooperatibaren Barne Erregimeneko zenbait artikulutan (45.etik 56.era bitarteko artikuluetan) daude jasota. Honako gai hauei buruzko lan-baldintzak arautzen dira: lanaldia, lan-egutegiak, aparteko orduak, lanaldi-erdia, txandakako lana, ordutegi malgua, asteko atsedena, jai-egunak, baimenak eta urteko oporrak.

Kooperatiba-esparrua eta herrialde bakoitzean indarrean den legeria kontuan hartuta finkatzen dira taldeko langile guztien kontratuak. Langileen lanaldia edo lan-egutegia erabakitzeke, legezko mugak errespetatzen edo hobetzen dira, eta berdin jokatzen dugu mota guztietako baimenen kasuan ere (gaixotasuna, oporrak, amatasuna, jai ofizialak eta baliokideak).

| Guraso-baimena                                                                                                                          | 2023         | 2022         | 2021         | 2020         | 2019         |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| <b>Guraso-baimenerako eskubidea izan duten langileak</b>                                                                                | <b>27</b>    | <b>30</b>    | <b>35</b>    | <b>30</b>    | <b>36</b>    |
| Emakumeak                                                                                                                               | 3            | 1            | 4            | 3            | 3            |
| Gizonak                                                                                                                                 | 24           | 29           | 31           | 27           | 33           |
| <b>Guraso-baimena baliatu duten langileak</b>                                                                                           | <b>27</b>    | <b>30</b>    | <b>35</b>    | <b>30</b>    | <b>35</b>    |
| Emakumeak                                                                                                                               | 3            | 1            | 4            | 3            | 3            |
| Gizonak                                                                                                                                 | 24           | 29           | 31           | 27           | 32           |
| <b>Aurrekoetatik, guraso-baimenaren ondoren bere lanpostura itzuli duten langileak</b>                                                  | <b>27</b>    | <b>30</b>    | <b>35</b>    | <b>30</b>    | <b>35</b>    |
| Emakumeak                                                                                                                               | 3            | 1            | 4            | 3            | 3            |
| Gizonak                                                                                                                                 | 24           | 29           | 31           | 27           | 32           |
| <b>Aurrekoetatik, guraso-baimenaren ostean lanpostura itzuli eta gero, 12 hilabeteren ondoren erakundean jarraitzen duten langileak</b> | <b>27</b>    | <b>30</b>    | <b>35</b>    | <b>30</b>    | <b>35</b>    |
| Emakumeak                                                                                                                               | 3            | 1            | 4            | 3            | 3            |
| Gizonak                                                                                                                                 | 24           | 29           | 31           | 27           | 32           |
| <b>Lanerako itzultze-tasa*</b>                                                                                                          | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> |
| Emakumeak                                                                                                                               | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        |
| Gizonak                                                                                                                                 | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        |
| <b>Atxikipen-tasa**</b>                                                                                                                 | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> | <b>% 100</b> |
| Emakumeak                                                                                                                               | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        |
| Gizonak                                                                                                                                 | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        | % 100        |

\*Itzultze-tasa: (aitatasun- edo amatasun-baimena bukatu eta urtebeteko epean lanera itzuli diren enpresako langileak / aitasun- edo amatasun-baimena baliatu duten enpresako langileak) \*100.

\*\*Atxikipen-tasa: (aitatasun- edo amatasun-baimena bukatu ondoren lanera itzuli eta 12 hilabeteren ondoren bertan jarraitzen duten langileak / aitasun- edo amatasun-baimena bukatu eta urtebeteko epean lanera itzuli diren enpresako langileak) \*100.

Familia eta lana bateragarri egite aldera, ordutegi malgua zabaldu dugu eta etxetik lan egitea (TELELANA) erraztu dugu.



## 2023 TELELANA

- 2023an 117 lagunek eskatu dute FAGOR ARRASATE GROUPen telelanean jardutea (6.990 ordu).

### 6.1.5. Harreman soziorabak

(2-29, 2-30)

**Kontseilu Sozialak bideratzen ditu harreman soziorabak. Organo horretan pertsona guztiak daude ordezkakuta.** Hilean behin biltzen da, eta kolektibo osoak demokratikoki aukeratzen ditu bere ordezkariak (pertsona bat, boto bat).

Bazkide ez diren pertsonen harreman soziolaboralak lan- eta sindikatu-legerien arabera kudeatzen dira, eremu geografiko bakoitzeko arau-esparruak kontuan hartuta, betiere.

Arau-baldintzatzaileak direla eta, Espainiatik kanpoko lantegietan ezin da finkatu negoziazio kolektiboko akordioak.

| Negoiazio kolektiboko akordioetan sartuta dauden langileen %-a, herrialdeka | 2023  | 2022  | 2021  | 2020  | 2019  |
|-----------------------------------------------------------------------------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Espainia                                                                    | % 100 | % 100 | % 100 | % 100 | % 100 |
| Txina                                                                       | 0     | 0     | 0     | 0     | 0     |
| Alemania                                                                    | 0     | 0     | 0     | 0     | 0     |
| Mexiko                                                                      | 0     | 0     | 0     | 0     | 0     |
| AEB                                                                         | 0     | 0     | 0     | 0     | 0     |
| GUZTIRA                                                                     | % 82  | % 84  | % 84  | % 84  | % 84  |

## 6.2. Aniztasuna helburu, berdintasuna ardatz

(405-1, 406-1)

### 6.2.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea

Enpresen berdintasun-planetan modu antolatuan jasotzen dira egoera-diagnostikoaren ondoren hartutako neurriak. Horien bidez, emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna lortu nahi da enpresan, eta sexuagatiko diskriminazioa desagerrarazi. Berdintasun-planetan finkatuko dira lortu nahi diren berdintasun-helburuak eta horretarako estrategiak eta jardunbideak, bai eta helburuon jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema eraginkorrak ere. **3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa. 46.1 artikulua.**

Berdintasunaren inguruan dugun posizionamendua gure Estatutu Sozialetan azaltzen da: **«Ez dira onarpena ukatzeko arrazoiak izango ideia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak, ez eta eskatzailearen arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila ere, salbu eta sozietatearen helburuarekin bateraezinak badira».**

Posizionamendu hori gidalerroa da pertsonak hautatzeko gure prozeduran.


Langile guztientzat funtsezkoa den berdintasun-printzipioetako bat —lanaldia alde batera utzita— onura sozialei buruzkoa da, denentzat berdinak baitira: bizitza-aseguruak, osasun-laguntza, ezintasun- eta baliaezintasun-estaldura, erretiro-hornidura, emaitzetan parte hartzea eta abar.

FAGOR ARRASATEk laneko gatazkak eta jazarpena kudeatzeko prozedura du ezarrita, edozein diskriminazio-motarekin (sexuagatiko diskriminazioarekin, agintekeriarekin edo pertsonen arteko desadostasunekin) lotutako kasuei heltzeko.

*FAGOR ARRASATEk landu duen Berdintasun eta Aniztasun Planean nazionalitate, kultura eta generoen aniztasuna nabarmentzen da.*

- **2016**tik, Kooperatibak Berdintasun Plana eta **Berdintasun Batzordea** ditu. Hauek dira batzordekideak: lehendakaria, Zuzendaritza Kontseiluko ordezkari bat, Kontseilu Sozialeko ordezkari bat eta erakundearen lantegiak eta negozioak ordezkatzeko dituzten boluntario batzuk.
- **2019**an, FAGOR ARRASATE S. Coop. kooperatibak **Berdintasun Planari heldu** zion, aldezturik gure erakundearen egindako genero-berdintasunari buruzko diagnostikoa oinarri hartuta. Langileen parte-hartzearekin landu zen proiektua, eta Berdintasun Batzordea eratu zen.
- **2020**an, Berdintasun Plana berrikusi zen, eta 2021-2024 aldirako plan berria zehaztu zen. Beraz, FAGOR ARRASATE S. Coop. kooperatibaren **I. Berdintasun Plana** 2020-2024 aldira egongo da INDARREAN, kooperatibaren Plan Estrategikoa bezala (2021-2024). [Fagor Arrasate S. Coop.en I. Berdintasun Plana-2020ko maiatza](#)
- **2022**an **Berdintasun Plana aplikatu zen**.
- **2023**an, sexu-jazarpenari, sexuan oinarritutako jazarpenari eta askatasun sexualaren zein osotasun moralaren aurkako bestelako jokabideei **aurrea hartzeko eta aurre egiteko protokoloa zehaztu eta onartu** zen.

Hau da I. Berdintasun Planaren PROIEKTUA/EMAITZA:



Para cada uno de estos proyectos se desarrollan **MEDIDAS ESPECÍFICAS Y MEDIDAS COMPLEMENTARIAS DE TRES PROCESOS TRANSVERSALES CLAVES** para favorecer el logro de los resultados perseguidos y aumentar el impacto en los indicadores del diagnóstico en los que se pretende incidir.

COMUNICACIÓN

FORMACIÓN/SENSIBILIZACIÓN

SISTEMATIZACIÓN

# 2023

0 gatazka salatu dira berdintasunaren arloan (salaketak edo diskriminazio-kasuak).

## 6.2.2. Aniztasuna kudeatzea

FAGOR ARRASATEk desgaitasunen bat duten 12 lagun ditu plantillan.

Lanpostuetako segurtasun-fitxetan zehazten dira horietan jarduteko osasun-eskakizun kritikoak. Eskakizunok egokitu egiten dira, behar izanez gero.

Ekipamendu produktiboen muntaketarekin eta instalazioarekin lotura duten produkzio-guneetan debekatuta dago gurpil-aulkian eta bestelako gailuekin sartzeara; dena den, instalazio nagusietara eta bulegoetara sartzeko igotze-sistema automatikoak daude.

| Desgaitasuna duten langileen kopurua FA Groupen, lanbide-kategorien arabera, abenduaren 31n | 2023      | 2022      | 2021      | 2020      | 2019      |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| <b>Zuzeneko laneskua</b>                                                                    | 4         | 3         | 3         | 3         | 3         |
| Emakumeak                                                                                   | 0         | 0         | 0         | 0         | 0         |
| Gizonak                                                                                     | 4         | 3         | 3         | 3         | 3         |
| <b>Zeharkako laneskua</b>                                                                   | 8         | 9         | 9         | 8         | 8         |
| Emakumeak                                                                                   | 2         | 1         | 1         | 1         | 1         |
| Gizonak                                                                                     | 6         | 8         | 8         | 7         | 7         |
| <b>Guztira</b>                                                                              | <b>12</b> | <b>12</b> | <b>12</b> | <b>11</b> | <b>11</b> |

## 6.3. Pertsonen garapena sustatzen dugu

(404-1, 404-2)

FAGOR ARRASATEk **ikasteko prozedura** bat du, hasiberriek lehenbailehen lor dezaten lanpostu bakoitzean eskatzen den maila profesionala. Programaren helburu nagusia gaitasun profesionalak etengabe eguneratu eta hobetzea da. Era berean, pertsonak sentsibilizatu nahi dira eredu kooperatiboaren inguruan eta kudeaketa-sistemaren eskakizunei dagokienez. Prozedura hori Kooperatibako langile guztiei aplikatzen zaie, hau da, bazkideei, inoren konturako langileei eta bekadunei (beste kooperatiba batzuetako birkokaturikoak barne).

Prozedurak honako elementu hauek ditu:

- **Harrera-plana.** FAGOR ARRASATEn lanpostu berri batean hasten diren guztiei aplikatuko zaie.
- **Prestakuntza-plana.** Aurreikusitako prestakuntza-jarduera guztiak prestakuntza-planean jasotzen dira, eta horrek urtebeteko iraupena izaten du gutxienez.

- **Planifikatu gabeko prestakuntza-ekintzak.** Ikasketa-planekoez gain hautatzen diren gainerako ikasketa-jarduerak —kanpoko prestakuntza-eskaintzetakoak edo barne-garapeneko proiektuetan sartuta daudenak— dagokion nagusi hurrenak eskatuko dizkio pertsonaleko teknikariari, erregistra ditzan.
- **Ikasteko jardueren jarraipena.** Prestakuntza-ekintza guztiak, planifikatuta daudenak eta ez daudenak, erregistratu egiten dira, kudeatzeko. Pertsonaleko teknikariek ikasketa-plana berrikusten dute aldizka, aurreikusitako ekintzetako antolatzaileekin harremanetan jarri eta jarduerok epe laburrera programatzeko.

**Garatuz proiektua martxan jarrita, lanpostu bakoitzerako trebetasun eta ezagutza espezifikoak identifikatu ditugu eta prestakuntza-ibilbide pertsonalizatuen oinarria diseinatu dugu.**

**Garatuz proiektuaren** bidez, erakundeko funtsezko lanpostuetarako ezagutza kritikoak identifikatu ditugu, eta eskatzen den gaitasun-maila lehenbailehen lortzeko prestakuntza-ibilbide berezia prestatu dugu. «Muntatzaile mekanikoekin» hasi da proiektua, eta «programatzaileetara», «proiektu-kudeatzaileetara» eta «diseinu elektrikoko teknikarietara» zabaltzen ari da.


Automobilgintzaren eta etxetresna elektrikoen sektoreetako inbertsio-krisiaren eta COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, 2020an eta 2021ean zorro apaleko egoera pairatu genuen. Horri aurre egiteko, plantilla murrizteko barne-doikuntzako neurriak hartu ziren, eta ondorioz, ikaskuntza-prozesuan zeuden pertsona gehienek FAGOR ARRASATE utzi behar izan dute.

Baina 2022an, prestakuntza-ordu asko berreskuratu ziren, eta ia-ia COVID-19ak ekarritako pandemiaren aurreko mailara iritsi ginen. 2023an, berriz, langile bakoitzeko prestakuntza-orduak bikoiztu egin dira ia-ia, aurreko urtekoekin alderatuta, eta pandemiaren aurreko maila gainditu dugu.

| Prestakuntza-orduak guztira, lanbide-kategoria bakoitzeko | 2023          | 2022         | 2021         | 2020         | 2019          |
|-----------------------------------------------------------|---------------|--------------|--------------|--------------|---------------|
| Zuzeneko eskulana                                         | 5.238         | 7.383        | 2.258        | 1.564        | 6.170         |
| Zeharkako eskulana                                        | 9.120         | 1.233        | 1.690        | 2.581        | 3.882         |
| <b>Guztira</b>                                            | <b>14.358</b> | <b>8.616</b> | <b>3.948</b> | <b>4.145</b> | <b>10.052</b> |
| Langile bakoitzeko batez besteko prestakuntza-orduak      | 20,6          | 12,8         | 5,6          | 5,0          | 11,3          |

**20,6**

prestakuntza-  
ordu, batez beste



| Prestakuntza-orduak guztira, lanbide-kategoria bakoitzeko (Fagor Arrasate S. Coop.) | 2023         | 2022        |
|-------------------------------------------------------------------------------------|--------------|-------------|
| Administraria                                                                       | 34           | 98          |
| Zuzendaria                                                                          | 18           | 11          |
| Departamentu- edo atal-burua                                                        | 1.007        | 635         |
| Langilea                                                                            | 2.614        | 1.366       |
| Teknikaria                                                                          | 6.070        | 2.999       |
| Orduak guztira                                                                      | 9.743        | 5.108       |
| <b>Plantilla guztira</b>                                                            | <b>561</b>   | <b>545</b>  |
| <b>Langile bakoitzeko batez besteko prestakuntza-orduak</b>                         | <b>17,37</b> | <b>5,50</b> |


# 17.37

prestakuntza-ordu  
batez beste  
(Fagor Arrasate)


| Herrialdeak /<br>eremu<br>geografikoak | 2023ko prestakuntza-<br>orduak guztira |              |               | 2023ko batez besteko<br>prestakuntza-orduak |           |             | 2022ko prestakuntza-<br>orduak guztira |              |              | 2022ko batez besteko<br>prestakuntza-orduak |             |             |
|----------------------------------------|----------------------------------------|--------------|---------------|---------------------------------------------|-----------|-------------|----------------------------------------|--------------|--------------|---------------------------------------------|-------------|-------------|
|                                        | Emak.                                  | Giz.         | Guztira       | Emak.                                       | Giz.      | Guztira     | Emak.                                  | Giz.         | Guztira      | Emak.                                       | Giz.        | Guztira     |
| Espainia                               | 773                                    | 8.970        | 9.743         | 14,6                                        | 17        | 16,9        | 1.114                                  | 4.146        | 5.260        | 20,2                                        | 8,2         | 9,4         |
| Txina                                  | 58                                     | 585          | 643           | 3,9                                         | 9         | 8,1         | 30                                     | 488          | 518          | 1,9                                         | 8,7         | 7,2         |
| Alemania                               | 0                                      | 70           | 70            | 0                                           | 10        | 8,8         | 0,0                                    | 70           | 70           | 0,0                                         | 5,4         | 8,8         |
| Mexiko                                 | 3780                                   | 0            | 3.780         | 1.890                                       | 0         | 151,2       | 0,0                                    | 2.720        | 2.720        | 0,0                                         | 209,2       | 136,0       |
| AEB                                    | 0                                      | 122          | 122           | 0                                           | 14        | 12,2        | 0,0                                    | 48           | 48           | 0,0                                         | 6,9         | 5,3         |
| <b>Guztira</b>                         | <b>4.611</b>                           | <b>9.747</b> | <b>14.358</b> | <b>64,0</b>                                 | <b>16</b> | <b>20,6</b> | <b>1.144</b>                           | <b>7.472</b> | <b>8.616</b> | <b>14,9</b>                                 | <b>12,6</b> | <b>12,8</b> |



**14.358** prestakuntza-  
ordu



**9.747** ordu gizonek  
**16** ordu batez beste




**4.611** ordu  
emakumeek  
**64** ordu batez beste

| Herrialdeak /<br>eremu<br>geografikoak | 2023ko prestakuntza-orduak |                       |               | 2022ko prestakuntza-orduak |                       |              | 2021eko prestakuntza-orduak |                       |              |
|----------------------------------------|----------------------------|-----------------------|---------------|----------------------------|-----------------------|--------------|-----------------------------|-----------------------|--------------|
|                                        | Zuzeneko<br>eskulana       | Zeharkako<br>eskulana | Guztira       | Zuzeneko<br>eskulana       | Zeharkako<br>eskulana | Guztira      | Zuzeneko<br>eskulana        | Zeharkako<br>eskulana | Guztira      |
| Espainia                               | 773                        | 8.970                 | 9.743         | 4.215                      | 1.045                 | 5.260        | 1.150                       | 1.502                 | 2.652        |
| Txina                                  | 563                        | 80                    | 643           | 448                        | 70                    | 518          | 0                           | 52                    | 52           |
| Alemania                               | 0                          | 70                    | 70            | 0                          | 70                    | 70           | 32                          | 52                    | 84           |
| Mexiko                                 | 3.780                      | 0                     | 3.780         | 2.720                      | 0                     | 2.720        | 1.076                       | 84                    | 1.160        |
| AEB                                    | 122                        | 0                     | 122           | 0                          | 48                    | 48           | -                           | -                     | -            |
| <b>Guztira</b>                         | <b>5.238</b>               | <b>9.120</b>          | <b>14.358</b> | <b>7.383</b>               | <b>1.233</b>          | <b>8.616</b> | <b>2.258</b>                | <b>1.690</b>          | <b>3.948</b> |

## 6.4. Pertsonak zaintzen ditugu

(3-3, 403-1, 403-2, 403-3, 403-4, 403-5, 403-6, 403-9, 403-10)



FAGOR ARRASATEk **Laneko Segurtasuna eta Osasuna** kudeatzeko sistema txertatua du bere kudeaketa-ereduan, eta ekoizpen-instalazio guztietan ezartzen du. 2023an, lantegi guztiek **ISO 45.001:2018** arauaren arabera ziurtagiria eskuratu dute berriro. Laneko arriskuak prebenitzeko politika, halaber, Taldearen kudeaketa-politikan txertatuta dago.

# 2023

**3.698 prestakuntza-ordu** Laneko Segurtasun eta osasunaren inguruko gaietan.

2023an honako ikastaro hauek eskaini dira:

| IKASTAROA                                                                                                                                         | ORDUAK       | %-a          |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------|
| Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko ikastaroa arduradunentzat eta muntatzaileentzat                                                         | 1.980        | % 54         |
| Laneko arriskuen prebentzioko ikastaroa honako hauentzat: elaborazio-saila, margolariak, muntatzaileak, prestaketa, logistika, Koniker, bulegoak. | 1.334        | % 36         |
| Orga jasotzaileei buruzko ikastaroa                                                                                                               | 232          | % 6          |
| Garabiei buruzko ikastaroa                                                                                                                        | 152          | % 4          |
|                                                                                                                                                   | <b>3.698</b> | <b>% 100</b> |

Laneko arriskuen prebentziorako jardunbide egokiak Taldeko ekoizpen-instalazio guztietara zabaltzen dira. Arlo horretako neurriak zabaltzeko, koordinatzeko eta emaitzak aztertzeko arduradun bat dago lantegi bakoitzean.

Pertsonen zuzendaritza arduratzen da ekintzen zabalpenaren jarraipena egiteaz. Urtean behin, zabaldutako ekintzen emaitzak aztertu ondoren, arriskuak berriro ebaluatu eta aztertzen dira, hobekuntza-ekintza berriak identifikatzeko.

**Mediku-zerbitzuak** egiten du osasuna zaintzeko jardueren plangintza, arriskuen ebaluazioaren emaitzak eta arriskuen aurrean dauden langileen ezaugarri indibidualak kontuan hartuta. Plangintzaren emaitza jasota

uzten du. Arriskuen ebaluazioaren arabera onargarria den maila berdindu edo gainditzten duten arrisku higienikoei eta ergonomikoei osasuna zaintzeko dagozkien mediku-protokoloak aplikatuko zaizkie.

Mediku-zerbitzuak zehaztuko du zein lanpostutan izango den nahitaezkoa osasun-azterketa egitea, eta horren berri emango die langileen ordezkariari, ezinbestekoa denean. Oro har, honako taula honetan jasota dauden irizpideak hartuko dira kontuan:

| LANPOSTUA / ATALA                                                                   | APLIKATZEKOAK DIREN PROTOKOLOAK                                       | DERRIGORTASUNA | ALDIZKAKOTASUNA   |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------|----------------|-------------------|
| Muntaketa <b>AUT??</b>                                                              | Zamak eskuz manipulatzeari<br>Jarrera behartuak<br>Altuerak           | Bai            | Urtean behin      |
| Muntaketa<br>Elaborazioa<br>Mantentzea<br>Garabi-gidaria<br>Biltegia eta bidalketak | Zarata<br>Zamak eskuz manipulatzeari<br>Jarrera behartuak<br>Altuerak | Bai            | Hiru urtean behin |
| Eskorga-gidaria                                                                     | Zarata<br>Ibilgailuak gidatzea                                        | Bai            | Hiru urtean behin |
| Margolaria                                                                          | Zarata<br>Arnasketa<br>Jarrera behartuak<br>Altuerak                  | Bai            | Hiru urtean behin |
| Teknikari arduradunak<br>eta proiektugileak                                         | Datuak ikusteko pantailak<br>Zarata                                   | Ez             | Hiru urtean behin |
| Zeharkako langileak                                                                 | Datuak ikusteko pantailak                                             | Ez             | Hamabostean behin |

Langileak derrigorrezko azterketa egiteari uko egiten dion kasuetan, mediku-zerbitzuak egoera jakinaraziko die langileen ordezkariari eta enpresako zuzendaritzari, dagozkien ekintzak erabaki ditzaten, eta langile horren gaitasun-egiaztapena ezabatuko du lanerako gaitasun medikoaren matrizeetik.

**Osasuna zaintzeko azterketak** borondatezkoak dira, honako kasu hauetan izan ezik:

- Mediku-azterketa egitea ezinbestekoa denean laneko baldintzek langileen osasunean duten eragina ebaluatzeko, adibidez, ingurumen-baldintza arriskutsuak dituzten lanpostuetan (margotzeko lanak, soldadura...).
- Langilearen osasun-egoera bere buruarentzat edo berarekin lan egiten dutenentzat arriskutsua izan ote daitekeen egiaztatzeko egiten denean.
- Arrisku espezifikoak (zarataren edota erradiazioen aurreko esposizioa eta abar) direla eta, legezko xedapenetan agindutako azterketa denean.
- Bereziki arriskutsuak diren jarduerari dagozkien azterketak direnean.

Prebentzio-zerbitzuaren euskarria ere badugu. Zerbitzu hori baliabide propioekin eta bazkide garen **Osarten Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak** bideratutakoekin eskaintzen dugu.

Kooperatibetako bazkideek gizarte-babeserako sistema propioa dugu, kooperatiba-mugimenduaren barruan sortutakoa. Mutualistei (afiliatutako kooperatibetako bazkideei) eta onuradunei osasun-laguntzako eta gizarte-aurreikuspeneko erregimena eskaintzea du helburu. Sistema hori **LagunAro Enpleguko BGAE** da.



Un sistema de protección social  
para socios cooperativistas



LagunArok estaldura-sistema mistoa eskaintzen du, eta barne hartzen ditu:

- LagunAroren beraren prestazioak eta
- Gizarte Segurantzako Sistema Publikoko prestazioak, Langile Autonomoen Araubide Bereziaren bidez (zu ere araubide horretan afiliatuta zaude).

**ZER ESKAINTZEN DIGU LagunArok?** LagunArok gizarte-babesa eskaintzen digu, zuretzat eta zure familiarentzat.

- Estaldura ekonomikoa, zure osasun-egoerak lan egiten uzten ez dizunean.
- Estaldura, langabeziaren eragina ahalik eta txikiena izan dadin, zure kooperatibak enplegu-arazoak baldin baditu.
- Estaldura ekonomikoa, adinagatik lana uzten duzunean.
- Zure familiarentzako estaldura ekonomikoa, zu ez zaudenean.
- Osasun-laguntza, sistema publikoak eskaintzen duenaren osagarri.

Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa **laneko arriskuen ebaluazioan** oinarritzen da. Gure prebentzioko teknikariek aldi behin eguneratu eta berrikusten dute ebaluazio hori. Arriskuen ebaluazioaren emaitzetatik maila handienekoak aukeratzen dira, eta horiek kontuan hartuta, arrisku nabarmenak murrizteko helburuak zehazten dira. Helburuak finkatu ondoren, arrisku-mailaren arabera egokitzat jotzen diren ekintzak zehazten dira, **Segurtasun eta Osasun Batzordean** edo arrisku nabarmen horiek eragindako pertsonekin berriaz osatutako taldeetan.

Finkatutako hobekuntza-helburuen eraginpeko lan-ataletatik bideratzen dira baliabide materialak (ekipamenduak, norbera babesteko ekipamenduak, prebentzio-neurriak zehazteko eta abian jartzeko dedikazio-orduak). Ekintzok, beharrezkoak diren gainerako inbertsioekin, gastuekin eta lanorduekin batera lehenesten dira.

2023an, **prebentziozko 5 helburu** finkatu dira, eta horiek lortzeko **41 ekintza** bideratu dira.

## 2023ko helburuak

1. Ezbehar-tasa murriztea.
2. 4. mailako eta hortik gorako arriskuak gutxitzea mekanizazio-arean.
3. 4. mailako eta hortik gorako arriskuak gutxitzea muntaketa-arean.
4. 4. mailako eta hortik gorako arriskuak gutxitzea prestaketa-arean.
5. 4. mailako eta hortik gorako arriskuak gutxitzea zerbitzu orokorren arean.

❖ Honako hauek izan dira 2023an abian jarritako **proiekturik garrantzitsuenak**:

- Kate zinematikoa manipulatzeko tresnen diseinua, fabrikazioa eta bilketa.
- Fagor Arrasateren etxetresna elektrikoen lerroetan behin betikoa izango ez den kanpoko itxitura jartzeko prozesua.
- Antolamendu Eredu Berriko lantegiak irekitzeko protokoloa zehaztea.

## 2023

Heriotzak edo ondorio oso larriak eragin dituzten istripuak **0** izan dira.

**18** istriputan bajaren bat izan da eta beste 5 istriputan ez da bajarik izan.


(403-9, 403-10)

Istripuengatiko absentismo-orduen gorakadarekin batera, maiztasun- eta larritasun-tasak 2022koak eta 2021ekoak baino handiagoak izan dira, baina aurreko ekitaldietan izandakoen antzekoak. Langileen artean ez da gaixotasun profesionalen kasurik erregistratu.

| Absentismoa, istripuen maiztasuna eta larritasuna | 2023  | 2022  | 2021 | 2020  | 2019  |
|---------------------------------------------------|-------|-------|------|-------|-------|
| Lan-istripuagatiko absentismo-orduak              | 6.086 | 3.248 | 896  | 6.448 | 6.365 |
| Maiztasun-tasa *                                  | 15,32 | 9,29  | 6,51 | 16,11 | 13,51 |
| Larritasun-tasa **                                | 0,65  | 0,38  | 0,10 | 0,75  | 0,64  |

\* Maiztasun-tasa: lanorduetan gertatu diren eta baja eragin duten istripuen kopurua x 1.000.000 / lan egindako orduak.

\*\* Larritasun-tasa: baja eragin duten istripuengatik galdutako lanaldiak (lan egin gabekoak) x 1.000 / lan egindako orduak.



## Lan-istripuak (maiztasuna eta larritasuna)

| Gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasa    | 2023      | 2022      | 2021      | 2020      | 2019      |
|-----------------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Gaixotasun profesionalen intzidenteen kopurua | 0         | 0         | 0         | 0         | 0         |
| Lan egindako orduak                           | 1.174.941 | 1.076.095 | 1.075.356 | 1.241.311 | 1.480.408 |
| Gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasa    | 0         | 0         | 0         | 0         | 0         |

Gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasa = gaixotasun profesionalen intzidenteen kopurua / lan egindako milioi bat ordu.

| Istripuen maiztasun-tasa | 2023      | 2022      | 2021      | 2020      | 2019      |
|--------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Istritu-kopurua          | 18        | 10        | 11        | 25        | 30        |
| Lan egindako orduak      | 1.174.941 | 1.076.095 | 1.075.356 | 1.241.311 | 1.480.408 |
| Istripuen maiztasun-tasa | 15,32     | 9,29      | 10,23     | 20,14     | 20,26     |


Istripuen maiztasun-tasa = Istritu-kopurua / lan egindako milioi bat ordu (in itinere istripuak ez dira kontuan hartzen).

| Lan-istripuek edo gaixotasun profesionalak eragindako lesioak (erakundeko langile guztientzat) | 2023  | 2022 | 2021 | 2020  | 2019  |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|-------|------|------|-------|-------|
| Lan-istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako lesioaren ondoriozko heriotzak           | 0     | 0    | 0    | 0     | 0     |
| Lan-istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako lesioaren ondoriozko heriotza-tasa       | 0     | 0    | 0    | 0     | 0     |
| Lan-istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako ondorio handiko lesioak                  | 0     | 0    | 0    | 0     | 0     |
| Lan-istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako ondorio handiko lesioen tasa             | 0     | 0    | 0    | 0     | 0     |
| Laneko istripuek eragindako bestelako lesioak                                                  | 18    | 10   | 7    | 20    | 20    |
| Laneko istripuek eragindako bestelako lesioen tasa                                             | 15,32 | 9,29 | 6,51 | 16,11 | 13,51 |
| In itinere istripuek eragindako lesioak                                                        | 1     | 0    | 2    | 0     | 1     |
| In itinere istripuek eragindako lesioen tasa                                                   | 0,85  | 0    | 1,86 | 0     | 0,68  |

Tasak kalkulatzeko: lesio-kopurua zati lan egindako milioi bat ordu.

Gure erakundeak kontrolatzen duen lana edo lantokia duen kanpoko langilerik ez dugu. Beraz, ez dago langile-profil horrekin lotutako heriotzen, lesioen edo gaixotasun profesionalen intzidentziarik.

FAGOR ARRASATEk **Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea** du. Hauxe da organoaren osaera eta funtzionamendua:



Batzordea 3 hilean behin bilduko da, gutxienez.

**Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen funtzioak** arauz finkatuta daude eta honako hauek hartzen dituzte barne:

- Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Urteko Gestio Plana egitea, Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Errektoreak onartu dezaten.
- Egun dauden laneko arriskuei aurrea hartzeko prebentzio-neurriak zehaztea.
- Antzemandako arriskuei aurrea hartu eta murrizteko beharrezkoak diren inbertsioak proposatzea Zuzendaritzari.
- Arriskuen prebentzioari dagokionez, lanpostuen jarraibideak eta espezifikazioak balioztatzea eta babes-neurrien erabilera onestea.
- Segurtasuneko eta osasuneko istripuak eta intzidentek aztertzea.
- Prebentzio-prozedurak eta segurtasuneko larrialdi-plana balioztatzea.
- Kudeaketa-sistemak laneko arriskuen prebentzioaren eremuan dituen desadostasunen jarraipena egitea.

Gure **Segurtasun eta Osasun Batzordeak** (langile guztiak ordezkatzeko dituenak) segurtasunaren eta osasunaren egoera-balantzea egiten du urtero, bere eskumen-eremuan, eta sistema berrikusteko proposamenen jasotzen ditu ondorioak. Proposamena Zuzendaritzari aurkeztu dio, onar dezan. Onartutako proposamena oinarritzat hartuta zehazten dira hurrengo ekitaldirako helburuak.


Laneko segurtasunaren eta osasunaren eremua oso araututa dago, eta ezarrita daude kexak eta erreklamazioak aginte-katearen, prebentzio-ordezkarien eta Kontseilu Sozialaren bidez jaso eta jakinarazteko kontsulta-mekanismoak. Segurtasun eta Osasun Batzordeetan eremu guztiak ordezkaturik egon daitezke, prebentzioko ordezkari nahikoa izatea da gure asmoa.

| Filialen taula /<br>ordezkari-<br>kopurua /<br>plantilla | 2023         |            |                     | 2022         |            |                     | 2021         |            |                     | 2020         |            |                     | 2019         |            |                     |
|----------------------------------------------------------|--------------|------------|---------------------|--------------|------------|---------------------|--------------|------------|---------------------|--------------|------------|---------------------|--------------|------------|---------------------|
|                                                          | Ord.<br>kop. | *Planti.   | Ord. %-a<br>/ plan. | Ord.<br>kop. | *Planti.   | Ord. %-a<br>/ plan. | Ord.<br>kop. | Planti.    | Ord. %-a<br>/ plan. | Ord.<br>kop. | Planti.    | Ord. %-a<br>/ plan. | Ord.<br>kop. | Planti.    | Ord. %-a<br>/ plan. |
| Koniker                                                  | 1            | 14         | % 7,14              | 0            | 17         | % 0,00              | 9            | 604        | % 1,5               | 10           | 699        | % 1,4               | 10           | 745        | % 1,3               |
| FA S. Coop.                                              | 5            | 561        | % 0,89              | 5            | 545        | % 0,92              |              |            |                     |              |            |                     |              |            |                     |
| FMMTK                                                    | 1            | 79         | % 1,27              | 1            | 72         | % 1,39              | 1            | 78         | % 1,3               | 1            | 105        | % 1,0               | 1            | 118        | % 0,9               |
| FADG                                                     | 0            | 8          | % 0,00              | 0            | 8          | % 0,00              | 0            | 10         | 0                   | 0            | 14         | % 0,0               | 0            | 13         | % 0,0               |
| FAMex                                                    | 1            | 25         | % 4,00              | 0            | 20         | % 0,00              | 0            | 16         | 0                   | 0            | 15         | % 0,0               | 0            | 14         | % 0,0               |
| FAUsa                                                    | 1            | 10         | % 10,00             | 0            | 9          | % 0,00              | 0            | 0          | 0                   | 0            | 0          | 0                   | 0            | 0          | 0                   |
| <b>FA Group</b>                                          | <b>9</b>     | <b>697</b> | <b>% 1,29</b>       | <b>6</b>     | <b>671</b> | <b>% 0,89</b>       | <b>10</b>    | <b>708</b> | <b>% 1,4</b>        | <b>11</b>    | <b>833</b> | <b>% 1,3</b>        | <b>11</b>    | <b>890</b> | <b>% 1,2</b>        |

2022tik aurrerako datuak abenduaren 31koak dira, gainerako urteetakoak, berriz, batezbestekoak.

Jarraian, era guztietako istripuen eta gaixotasunen (profesionalen eta ez-profesionalen) ondorioz eta bestelako arrazoi edo egoera batzuk direla medio 2023ko ekitaldian bete gabe geratu diren lanorduen kopuruak azaltzen dira, langile guztiak kontuan hartuta. Absentismo-ratioa kalkulatzeko, bete gabeko lanorduen kopurua lan egindako orduen kopuruarekin zatitzen dugu, eta ehunekotan adierazten dugu:

| Absentismoa    | 2023                             |                                  |             | 2022                             |                                  |             | 2021                             |                                  |            | 2020                             |                                  |            | 2019                             |                                  |            |
|----------------|----------------------------------|----------------------------------|-------------|----------------------------------|----------------------------------|-------------|----------------------------------|----------------------------------|------------|----------------------------------|----------------------------------|------------|----------------------------------|----------------------------------|------------|
|                | Bete gabeko lanord. (mila-kotan) | Lan egindako orduak (mila-kotan) | Absen. %-a  | Bete gabeko lanord. (mila-kotan) | Lan egindako orduak (mila-kotan) | Absen. %-a  | Bete gabeko lanord. (mila-kotan) | Lan egindako orduak (mila-kotan) | Absen. %-a | Bete gabeko lanord. (mila-kotan) | Lan egindako orduak (mila-kotan) | Absen. %-a | Bete gabeko lanord. (mila-kotan) | Lan egindako orduak (mila-kotan) | Absen. %-a |
| Espainia       | 48,9                             | 932                              | 5,24        | 49                               | 880                              | 5,58        | 60,7                             | 901                              | 6,7        | 63,0                             | 1.022                            | 6,1        | 73,9                             | 1.227                            | 6,0        |
| Txina          | 4,3                              | 158                              | 2,74        | 9,5                              | 134                              | 7,14        | 15,5                             | 132                              | 11,8       | 27,8                             | 174                              | 16,0       | 37,6                             | 203                              | 18,5       |
| Alemania       | 1,6                              | 22,5                             | 6,98        | 1,1                              | 13,8                             | 8,41        | 2,8                              | 16                               | 17,2       | 5,6                              | 19                               | 29,0       | 0                                | 23                               | 1,8        |
| Mexiko         | 1,2                              | 45                               | 2,68        | 0,5                              | 31,7                             | 1,57        | 3,1                              | 26                               | 11,8       | 0,5                              | 27                               | 1,8        | 0,5                              | 28                               | 1,8        |
| AEB            | 0,8                              | 17                               | 4,91        | 0,128                            | 16,5                             | 0,77        | -                                | -                                | -          | -                                | -                                | -          | -                                | -                                | -          |
| <b>Guztira</b> | <b>56,8</b>                      | <b>1.175</b>                     | <b>4,84</b> | <b>60,49</b>                     | <b>1076</b>                      | <b>5,62</b> | <b>82,2</b>                      | <b>1.075</b>                     | <b>7,6</b> | <b>91,4</b>                      | <b>1.222</b>                     | <b>7,5</b> | <b>112,0</b>                     | <b>1.458</b>                     | <b>7,7</b> |






**% 4,84ko**

absentismoa  
2023an

## 7. PLANETAREKIN KONPROMETITUTAKO ENPRESA GARA

*Klima-krisiaren aurrean, natura-ingurunearekin dugun harremana birpentsatu behar dugu. Erregai fosiletan oinarritutako ekonomia-eredu lineala alde batera utzi eta energia berriztagarrietan oinarritutako ekonomia zirkularraren eredurantz abiatzera behartuta gaude. Arazoaren parte bagara, konponbidearen parte ere bagarela uste dugu.*

- ❖ *Karbono-aztarna txikitzeko lanean ari gara.*
- ❖ *Gure produkzio-prozesuetan erabiltzen ditugun materialen erabilera eraginkorragoa egiten dugu orain.*



### Etorkizuneko belaunaldiei begira ingurumena zaintzearekin konprometituta dago FAGOR ARRASATE

#### 7.1. Ingurumen-kudeaketa

(3-3) (2-23, 2-24)

Etorkizunera begiratzen duen enpresa izanik, FAGOR ARRASATE konprometituta dago etorkizuneko belaunaldientzat ingurumena zaintzearekin, eta hala dago jasota Taldearen Misioan, Ikuspenean eta Balioetan, bai eta Kalitate, Ingurumen, Segurtasun eta Osasun Politikan ere. FAGOR ARRASATEK ingurumenarekin lotutako gaiak kudeatzeko sistema txertatua du bere kudeaketa-ereduan, eta ekoizpen-lantegi guztietan ezartzen du. 2023an, sistemaren mantentze-auditoretza egin eta gainditu egin dugu. Lantegi guztiek **ISO 14.001:2015 arauaren arabera ziurtagiria** dute, Kunshanekoak izan ezik.

Ingurumen-helburuak ezarrita, Taldeak lanean dihardu berotze globala geldiarazi eta ingurumenean eragiten dituen ondorioak murrizteko; besteak beste, berotegi-efektuko gasen isurketa. Ingurumen Batzordea arduratzen da helburuak finkatzeaz eta ekintzak koordinatzeaz.

Ingurumen-arriskuen ebaluazioa da ingurumen-kudeaketaren ardatza. Ebaluazioaren bidez, arriskuen inpaktua murrizteko jarduera-eremuak identifikatu eta lehenesten dira. Gobernu-organismoak urtero aztertzen ditu ingurumenaren eremuko arriskuak eta aukerak.

Era berean, Zuzendaritzak urtero berrikusten du sistema. Hala, ingurumen-kudeaketaren ikuspegia aztertzen da **Ingurumen Batzordean**, eta hobetzeko proposamen guztiak biltzen dira, arriskueta eta aukeretan sailkatuta. Kudeaketa-sistemen arduradunek ebaluatzen dituzte proposamenok, eta ondoren, hurrengo ekitaldian ikuspena hobetzeko jarduketak proposatzen dira foro batean. Bertan, proposamenak eztabaidatu eta adosten dira, Zuzendaritzarekin batera.

Gurea bezalako kudeaketa-sistema ziurtatuetan ohikoa da ingurumen-kudeaketaren eraginkortasuna ebaluatzea. Identifikatutako ingurumen-alderdi guztien egoera monitorizatzen duten adierazleen panela dugu. Adierazle horiek aukera ematen digute balizko desbideraketan aurrean neurriak hartzeko.

Ingurumen-inpaktuari buruzko ikuspegi errealagoa izateko, 2023an ere ingurumen-aztarna kalkulatzeko lanari eutsi diogu. Horretarako, karbono-aztarna (**1., 2. eta 3. irismenak**) kalkulatzeko garatutako softwarea erabili dugu. Gainera, **Transfer prentsa** baten produktu-aztarna kalkulatu eta **bizi-zikloaren azterketa** egin dugu.

## 2023

### TRANSFER PRENTSA BATEN KARBONO-AZTARNA KALKULATZEA

Azterketa horri esker:

- ✓ Produktu horren ingurumen-inpaktua zehaztu dezakegu, berotze globalaren kategorian; karbono-aztarna, zehazki.
- ✓ Produktuaren bizi-zikloaren ikuspuntua har dezakegu kontuan; kasu honetan, sorreratik bukaerara arte.
- ✓ Karbono-aztarna hobeto uler dezakegu, berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzeko aukerak identifikatzeko.
- ✓ Produktuaren karbono-aztarnaren emaitzak kuantifikatu eta aurkeztean, sinesgarritasuna, koherentzia eta gardentasuna hobetu daitezke, hirugarren batek egiazta ditzakeen kalkulu-metodologiaren bidez.

Distribución de huella de carbono del producto por etapas de su ciclo de vida (tn CO<sub>2</sub>)

| Suministro materias primas | Transporte materias primas | Producción | Distribución | Uso del producto | Fin de vida | Total     |
|----------------------------|----------------------------|------------|--------------|------------------|-------------|-----------|
| 1 323.46                   | 25.63                      | 16.41      | 86.68        | 15 150.26        | 6.89        | 16 609.33 |
| 7.97%                      | 0.15%                      | 0.10%      | 0.52%        | 91.22%           | 0.04%       | 100%      |

Bestalde, zenbait proiektu lantzen ari gara, ingurumen-inpaktua murrizteko teknikarik onenak erabiltzeko helburuarekin. Teknika horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Pieza mugikorren masa murriztea. Fabrikatu diren automatizazioetan gutxitu egin da piezen pisu mugikorra, automatizazioen efizientzia hobetze aldera. Automatizazio horiek Ekimenberrin ikus daitezke.

- Softwarean oinarritutako energiaren kudeaketa. Serboprentsetan energia kudeatzeko sistemak aplikatzen jarraitu dugu. Halaber, ultrakapazitateen bidez energia biltegitratzeko sistema garatu dugu.
- Energia berreskuratzea. Energia berreskuratzen duen kuxin elektromagnetikoa dugu, baina 2023an ez dugu merkatuan aplikatzeko aukerarik izan.
- Sistema hidraulikoak eta pneumatikoak optimizatzea. Prentsa hidraulikoen energia-kontsumoa % 50 murrizten duen garapena dugu. 2023an ez dugu merkatuan aplikatzeko aukerarik izan, 2023an ez baitugu mota horretako makinarik egin.
- Hozteko lubrifikatzaila eta olioak murriztea edo horien hornidura efizientea egitea.
- Ekodiseinuko beste neurri batzuk: denbora ez-produktiboa ahalik eta gehien murriztea, eragingailuen kudeaketa adimenduna, *stan-by*aren kudeaketa, kontsumitutako energia monitorizatzea (gure makinaren kontsumo elektrikoak monitorizatzen ditugu eta txostenak bidaltzen dizkiegu bezeroei).
- Markinako eta San Andreseko lantegietan plaka fotovoltaiakoak jartzeko egindako proiektua.
- Automobilentzako kargagailu elektrikoak egiteko proiektua.

## 2023

- **Mugikortasun-planak** zehazten jardutea, FAGOR Taldearekin koordinatuta.
- FAGOR ARRASATEn **Ingurumen Batzorde** bakarrarekin jarraitzea, eta ez lantegi-mailakoekin.
- **Kudeaketa-politika** eguneratzea, eta orain helduko diogun aldi estrategikorako egoera berrira egokitzea.
- **Softwarea** erabiltzea FA Groupen **erakunde-mailako karbono-aztarna** (1., 2. eta 3. irismenak) kalkulatzeko.
- Bigarren produktu baten (beroko estanzazioko lerroa) **produktu-aztarna** kalkulatzeko.
- **Plaka fotovoltaiako** instalazioari buruzko azterketa eta plangintza.
- **Automobil elektriko**en **karga-puntuaren** instalazioari buruzko azterketa eta plangintza.
- **NET ZERO** esparruko prestakuntza, deskarbonizazio-estrategiak zehazten joateko.

Ingurumeneko inbertsioek nabarmen egin dute gora 2023an.



**% 160**ko gorakada 2022ko datuekin alderatuta

| Urtez urteko bilakaera                           | 2023           | 2022           | 2021          | 2020          | 2019           |
|--------------------------------------------------|----------------|----------------|---------------|---------------|----------------|
| Inbertsioak ingurumenean (€-tan)                 | 303.395        | 116.863        | 8.500         | 8.522         | 193.276        |
| Gastuak ingurumenean (€-tan)                     | 51.582         | 54.707         | 65.287        | 61.077        | 64.623         |
| <b>Ingurumeneko aurrekontua guztira (€-tan)*</b> | <b>354.977</b> | <b>171.570</b> | <b>73.787</b> | <b>69.599</b> | <b>257.899</b> |

\* Gure produktuetan txertatzeko teknologia garbien garapenari dagozkion I+Garen arloko inbertsioak eta gastuak ez daude jasota aipatutako datuetan.

| 2023ko ekitaldia filialen arabera            | FA               | FMMTK        | FADG       | FAMex        | FAUSA      | Guztira          |
|----------------------------------------------|------------------|--------------|------------|--------------|------------|------------------|
| Inbertsioak ingurumenean (€-tan)             | 303.395 €        | 809 €        | - €        | - €          | - €        | 304.204 €        |
| Gastuak ingurumenean (€-tan)                 | 51.582 €         | 3.647 €      | - €        | 956 €        | - €        | 56.185 €         |
| <b>Ingurumeneko aurrekontu osoa (€-tan)*</b> | <b>354.977 €</b> | <b>4.456</b> | <b>- €</b> | <b>956 €</b> | <b>- €</b> | <b>360.389 €</b> |

FAGOR ARRASATEk kontratatuta duen aseguruak behar bezala estaltzen ditu ingurumen-arriskuak.

2023an, aurreko urteetan bezala, FAGOR ARRASATEk ingurumen-jasangarritasuneko adierazleen azterketan hartu du parte, eta MONDRAGON Taldeko industria-arloko 42 kooperatiben jarduerarekin alderatu du berea. Azterketa horretatik ondorioztatu denez, salmenten zenbatekoa parekoa izanda, energia-kontsumoan, ur-kontsumoan, hondakinen sorreran eta abarretan FAGOR ARRASATERen adierazleak sektoreko batezbestekoen azpitik daude, nabarmen. Horrek agerian uzten du gure ingurumen-efizientzia handia.

## 7.2. Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa

FAGOR ARRASATEN kudeaketa-neurriak txertatzen ditugu gure prozesuetan, jarduerak eragiten duen ingurumen-inpaktua gutxitzeko.

**Horretarako, hondakinen prebentzioan eta kudeaketan buru-belarri ari gara lanean, materialen kontsumoa murrizteko neurriak ezarriz, birziklatuz, berrerabiliz eta hondakinak berreskuratze eta ezabatzeko beste modu batzuen bidez.**



## 7.2.1. Hondakinen kudeaketa jasangarria


(306-1, 306-2, 306-3, 306-4, 306-5)

Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsu guztiak baimendutako kudeatzaileei entregatzen zaizkie, ahalik eta tratamendurik onena eman diezaieten (**hondakinak berrerabiltzea, baloratzea, birziklatzea edo geldotzea, dagokienaren arabera**).

FAGOR ARRASATEk Euskadiko lantegietan sortzen diren hondakin guztiei aplikatzen dien prozedura du ezarrita. Prozedura horren helburua da sortutako hondakinak indarrean dauden lege-betekizunen arabera identifikatu, kodifikatu, ontziratatu, etiketatu, biltegiaratu eta ondoren lagatzeko sistematika zehaztea.

Honako hau da prozedura zehatza:

**Diagrama PSG 6.8**  
**Gestión de Residuos**




| Hondakin arriskutsu nagusiak                                                                                                                                                                                                                                | Hondakin ez-arriskutsu nagusiak                                               |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|
| Erabilitako ebaketa-likidoa: egituren mekanizazio-prozesuari lotutakoa.                                                                                                                                                                                     | Txirbilak eta txatarra, batez ere egituren mekanizazio-prozesuan sortutakoak. |
| Erabilitako olioak: makinak muntatzeko prozesuan sortutakoa. Bezeroari bidali aurretik, makinak probatzeko fasean erabiltzen da olioak. Analitiketan ikusten bada olioak ez dela egokia erabiltzeko, baimendutako hondakinen kudeatzailearen esku uzten da. | Egurra, batez ere bilgarrien eta paleten hondakinak.                          |
| Pintura-hondakin likidoa: gure makinak margotzean eta azken akabera-prozesua gauzatzean sortzen da.                                                                                                                                                         |                                                                               |

Hondakin-sorreraren bilakaera monitorizatzen dugu, behar diren ekintza zuzentzaileak bideratzeko.

Jarraian, 2023an sortutako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen guztizko pisua azaltzen da (kilogramotan), osaeraren eta tratamenduaren arabera banakatuta:

| Sortutako hondakinak, motaren arabera (unitateak kilogramotan) | 2023           | 2022           | 2021           | 2020           | 2019           |
|----------------------------------------------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| Hondakin arriskutsuak                                          | 51.394         | 28.711         | 50.357         | 99.764         | 59.708         |
| Hondakin ez-arriskutsuak                                       | 553.365        | 508.726        | 443.900        | 542.148        | 631.442        |
| <b>Guztira</b>                                                 | <b>604.938</b> | <b>537.437</b> | <b>494.257</b> | <b>641.912</b> | <b>691.150</b> |



| 2023an sortutako hondakinak, motaren eta filialen arabera (unitateak kilogramotan) | FA             | FMMTK         | FADG     | FAMEX        | FAUSA        | GUZTIR A       |
|------------------------------------------------------------------------------------|----------------|---------------|----------|--------------|--------------|----------------|
| Hondakin arriskutsuak                                                              | 42.140         | 9.254         | 0        | 0            | 0            | 51.394         |
| Hondakin ez-arriskutsuak                                                           | 512.225        | 33.705        | 0        | 6.364        | 1.250        | 553.544        |
| <b>Guztira</b>                                                                     | <b>554.365</b> | <b>42.959</b> | <b>0</b> | <b>6.364</b> | <b>1.250</b> | <b>604.938</b> |

## EZABATZEKOAK EZ DIREN HONDAKINAK

| Ezabatzeakoak EZ diren hondakinak, osaeraren arabera banakatuta (unitateak kilogramotan) | 2023           | 2022           | 2021           | 2020           | 2019           |
|------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| Hondakin arriskutsuak*                                                                   | 40.600         | 21.575         | 37.705         | 87.464         | 54.420         |
| Bilgarri-hondakinak**                                                                    | 102.660        | 89.460         | 53.780         | 101.240        | 132.613        |
| Metalezko hondakin ez-arriskutsuak***                                                    | 352.545        | 364.766        | 361.830        | 390.888        | 428.683        |
| Beste hondakin ez-arriskutsu batzuk****                                                  | 3.250          | 5.000          | 4.750          | 16.220         | 3.290          |
| <b>Guztira</b>                                                                           | <b>509.055</b> | <b>480.801</b> | <b>458.065</b> | <b>595.812</b> | <b>619.006</b> |

\* Lantegian sortutako hondakin arriskutsu guztiak

\*\* Kartoia, papera, egurra

\*\*\* Txatarrak, txirbilak, brontzea, kobrea

\*\*\*\* Errefusa

| Ezabatzeakoak EZ diren hondakinak, balorizazio-eragiketen arabera (unitateak kilogramotan) | 2023           | 2022           | 2021           | 2020           | 2019           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| <b>HONDAKIN ARRISKUTSUAK</b>                                                               | <b>40.600</b>  | <b>21.575</b>  | <b>37.705</b>  | <b>87.464</b>  | <b>564.586</b> |
**Debagoiena 2030 eskualdeko garapen jasangarria bultzatzeko sarea da, ingurune horretan baitaude FAGOR Taldeko kooperatiben ekoizpen-lantegi gehienak.**

Debagoiena eskualdea jasangarritasunerako bidean jartzeko, bailarako eragileen arteko lankidetzak beharrezkoa delakoan gaude (unibertsitatea, erakunde publikoak, enpresak eta gizarte-eragileak barne direla). Horregatik, Debagoiena 2030 ekimena bultzatzea erabaki genuen 2018an. Eragileen arteko lankidetzan oinarritutako epe luzerako apustua da, eta Europako Itun Berdean zehaztutako erronkei erantzutea du helburu nagusi. Horretarako, askotariko ekimenak eta proiektuak lantzen ditu. Europako Itun Berdean jasota dauden arlo nagusiak, Debagoiena 2030 ekimenak lehentasunezko zat jotzen dituenak, honako hauek dira:

- ❖ Industria ekonomia zirkularrerantz eraldatzea.
- ❖ Trantsizio energetikoa.
- ❖ Mugikortasun jasangarria eta adimenduna.
- ❖ Tokiko elikagaien ekoizpena.
- ❖ Ekosistemak eta biodibertsitatea zaindu eta berreskuratzea.

2023an arreta berezia eskaini diogu trantsizio energetikoari **Eraginez piztu** ekimenaren bidez.

Ekimeneko proiektuak diruz laguntzeaz gain, bereziki inplikatu gara **energia-komunitateen garapenean**. Eskualdean garatzeko bidean dauden energia-komunitateetako bazkide kolaboratzaile izateko konpromisoa hartu dugu. Hala, kooperatiba-administrazioan eta -kudeaketan dugun esperientzia komunitate horien garapenaren zerbitzura jarri dugu.

Gainera, 2023an 200.000 euroko ekarpen ekonomikoa egin diogu **Tantai baso-jabeen kooperatibari**. D2030 ekimenaren aterpean sortutako kooperatiba horren helburu nagusia baso-eredu berria garatzea da, baso-ekosistemen funtzio guztiak kontuan hartuta.

## 2023

786.983 € bideratu ditugu Debagoiena 2030 proiektura.

### 8.2.2. Gizabidea fundazioa

Gizabidea fundazioaren bidez, 40 urtetik gora daramatzagu inguruneko hezkuntza-eragile kooperatiboekin lankidetzan, eskualdean **kalitatezko hezkuntza** eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturak finantzatzen laguntzeko.

Urte horietan guztietan, Gizabidea fundazioak Mondragon Unibertsitatea garatzeko lanean jardun du bereziki, unibertsitatea eskualdearen eta bertako enpresa-sarearen garapenerako eragile estrategikoa delakoan.

2022an zenbait hitzarmen sinatu ditugu MGEPrekin, HUHEZlrekin eta Arizmendi Ikastolarekin, eta horietan hamarkada batez diruz lagunduko diren proiektuak zehaztu ditugu.

Guztira 586.983 € bideratu ditugu 2023an Gizabidea fundaziora.

«Hezkuntza berezko eta ezinbesteko euskamía da, gízarte-ordena gízatiar eta bidezko berria sustatzeko».

J.M. Arizmendiarrrieta


### 8.2.3 Tokiko elkarteen sustapena

**COFIP**en zati bat FAGOR Taldeko kooperatibak kokatuta dauden udalerrietako elkarteen jarduerak diruz laguntzera bideratzen dugu. 2023an, zehazki, **187.835 €** bideratu ditugu sustapen horretara.

## 8.3. Euskal Herria

**Garapen Jasangarrirako Helburuei erantzun egokia eta berritzailea ematea helburu duten proiektuak babesten ditugu**

Euskal Herria da Fagor Taldearentzat hurrengo eremu naturala. Kasu horretan, gure eragiteko ahalmena eskualdean duguna baino txikiagoa da; horregatik, gure esku-hartzea mugatua da.



### 8.3.1. Fagor Herrigintza

2022an jarri genuen abian Fagor Herrigintza lankidetza-programa, euskal gizartetik sortutako ekimenak babesteko eta haiekin elkarlanean aritzeko bitarteko gisa. Deialdi publiko bidez egin da prozesua, eta 3 laguntza banatu ditugu guztira.



2023an, Fagor Herrigintza lankidetza-programaren bigarren edizioa gauzatu dugu. 17 proposamen jaso dira Fagor Taldearen web-orrialdean horretarako sortutako atalean. Proposamenek deialdiaren oinarriak betetzen zituzten edo ez aztertu ondoren, aurrez ezarritako balorazio-irizpideetan oinarrituta, bozketa-fasera igaro ziren 9 proiektu aukeratu genituen Gizarte Eraldaketarako Batzordean. Bukatzeko, gure kooperatibetako bazkideek bozketa bidez aukeratu dituzte Fagor Herrigintza lankidetza-programako laguntza jasoko duten proiektuak. Bozketan 327 lagunek hartu dute parte eta honako 3 proiektu hauek aukeratu dituzte:

- **Amillubi proiektua (Biolur): 60.000 euro**
- **Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarentzako (GKEFrentzako) egokitutako furgoneta erostea: 40.000 euro**
- **Iñurri: 20.000 euro**

Fagor Herrigintza lankidetza-programaren dirulaguntzak jaso dituzten proiektuez gain, beste elkarte batzuk ere lagundu ditugu 2023an. Guztira 23.746 € bideratu ditugu Euskal Herriko beste proiektu batzuetara.

## ¿Qué tipo de proyectos se priorizarán?

El Grupo Fagor priorizará los proyectos relacionados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible alineados con la estrategia de sostenibilidad Fagor 2030. Precisamente los objetivos 5, 7, 11, 12, 13 y 17 son los que tienen un peso específico en la estrategia de sostenibilidad de Fagor. En relación al objetivo 11, el Grupo Fagor prioriza proyectos relacionados con la cultura vasca, la inclusión y la movilidad sostenible.



**ODS 5**  
Igualdad de género



**ODS 7**  
Energía asequible y no contaminante



**ODS 11**  
Ciudades y comunidades sostenibles



**ODS 12**  
Producción y consumo responsables



**ODS 13**  
Acción por el clima




**ODS 17**  
Alianzas para lograr los objetivos

### 8.3.2. Euskal Herri mailako beste proiektu batzuk

Fagor Herrigintza lankidetzaren programaren dirulaguntzak jaso dituzten proiektuez gain, beste elkarte batzuk ere lagundu ditugu 2022an. Guztira 25.146 € bideratu ditugu Euskal Herriko beste proiektu batzuetara.

### 8.4. Garapenerako lankidetzaren



#### 8.4.1. Mundukide fundazioa



#### Zer egiten dugu?

- Desarrollo agrícola
- Captación de personas
- Asistencia técnica
- Intercooperación
- Asesoramiento cooperativo
- Transformación social

Kooperatibismoaren bokazio unibertsalaren ildotik eta garapen-bidean dauden herrialdeei garapen komunitarioko prozesu endogenoak sortzen laguntzeko, duela hamar urte baino gehiago Mundukide fundazioa sortu genuen MONDRAGONeko zenbait kooperatibarekin eta tokiko gobernu kanpoko erakunde

batzuekin batera. Mundukidek Mozambiken eta Brasilen egiten du lan batez ere, eta urteak daramatza hango komunitateen garapen endogenoa sustatzen, kooperatiben filosofiarekin bat.

Patronatuko kide gara eta aktiboki hartzen dugu parte Fundazioaren erronketan. Erakundearen jardura finantzatzeaz gain, gure kooperatibetako bazkideek aukera dute Mundukideren programetan kooperante gisa parte hartzeko.

2023an **224.793 €** bideratu ditugu Mundukide fundaziora, **Pobrezia desagertzea** aldarrikatzen duen **Garapen Jasangarrirako 1. Helburuarekin** dugun konpromisoaren haritik.

## 8.4.2. Garabide



Hizkuntza gutxiak berreskuratzeko prozesuetan lankidetzan diharduen erakundea da Garabide. Euskararen berreskurapen-prozesuan ikasitakoa beste herrialde batzuetako prozesuetan partekatzen du, eta, aldi berean, haien esperientzietatik ikasi. Komunitate horiekin egiten du lan, haien garapen sozioekonomikoa hizkuntzaren berreskurapen-prozesuarekin aberasteko.

2023an, **10.000 €** bideratu ditugu Garabide elkartera.

## 8.5. Informazio fiskala

(201-1, 201-4, 207-1)

FAGOR ARRASATEk **kudeaketa arduratsuaren** bidez ere erakusten du lan egiten duen lurraldeekiko konpromisoa.

Kudeaketa arduratsu horren barruan sartzen da, besteak beste, dagozkion finantza- eta zerga-betebeharrak betetzea. 2023ko ekitaldian, honako hauek dira FAGOR ARRASATEren zerga aurreko irabazi bateratuari herrialde bakoitzak egindako ekarpena eta ordaindutako irabazien gaineko zergei buruzko zein jasotako dirulaguntza publikoei buruzko informazio fiskala:

| Zerga aurreko irabaziak | 2023  | 2022  | 2021  |
|-------------------------|-------|-------|-------|
| Espainia                | 8.679 | 3.091 | 4.134 |
| Txina                   | 1.939 | 328   | -370  |
| Alemania                | 47    | 429   | 47    |
| Mexiko                  | 193   | -157  | 311   |
| AEB                     | 277   | -454  | 14    |

Datuak milaka €-tan

| <b>EKITALDIKO<br/>ZERGAK /<br/>SORTUTAKOAK</b> | <b>2023</b>    | <b>2022</b>   | <b>2021</b>   |
|------------------------------------------------|----------------|---------------|---------------|
| <b>Espainia</b>                                | 400.000        | 36.412        | 0             |
| <b>Txina</b>                                   | 261.513        | 0             | 4.327         |
| <b>Alemania</b>                                | 263            | 0             | 6.175         |
| <b>Mexiko</b>                                  | 86.423         | 42.913        | 57.218        |
| <b>AEB</b>                                     | 12.948         | 1.247         | 8.917         |
| <b>GUZTIRA (€-tan)</b>                         | <b>761.147</b> | <b>80.572</b> | <b>76.637</b> |

## 9. TXOSTENA EGITEKO PROZEDURA

(2-2, 2-3, 2-4)

Txosten honek FAGOR ARRASATEren Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria aurkezten du, honako hauek ezarritako eskakizunekin bat: **11/2018 Legea**, abenduaren 28koa, Merkataritza Kodea aldatzen duena; Kapital Sozietateen Legearen testuategia, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta 22/2015 Legea, uztailaren 20koa, Kontu Auditoretzarena, informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari buruzkoa. Txostenak osatu egiten du Taldearen bigarren Jasangarritasun Txostena (urterokoa). Azken hori gure gai materialetan oinarritutako jasangarritasun-estrategiaren informazioa zabaltzeko egin da.

Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria dokumentu bereizi batean aurkeztu bada ere, Informazio ez-finantzarioaren egoera-orriaren edukia Kudeaketa Txosten Bateratuaren parte da.

Txostenak FAGOR ARRASATE Taldearen bilakaera, emaitzak eta egoera ulertzeko behar den informazioa biltzen du, bai eta bere jarduerak ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-gaietan duen eragina ulertzeko behar den informazioa ere, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartekoa. GRI estandarren metodologiaren arabera egin da, funtsezko aukerari jarraikiz, eta FAGOR ARRASATEk **bere interes-taldee** ematen dien garrantzia eta **jasangarritasunaren alde egina duen apustua** islatzen ditu. Horrenbestez, zera bermatu nahi da: Taldearen jarduera ekonomikoa bat datorrela denboran jasangarriak diren garapen sozial eta ingurumenekoa ahalbidetzen duten oinarritzko printzipioekin, eta, horrela, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) sustatzen dituela.

Txosten hau egitea ez da soilik kontuak emateko gardentasun-ariketa bat; horrez gain, Taldearen kudeaketa-prozesuak eta estrategia hobetzen laguntzen du, epe laburrean eta ertainean gauzatu ahal izango diren hobekuntza-aukera berriak identifikatuz.

Txostena egiteko prozesuan zuzeneko parte-hartzea izan dute FAGOR ARRASATEko Gerentziak eta area nagusietako arduradunek, baita Taldeko Kontseilu Errektoreko lehendakariak ere, bazkideen ordezkari gisa.

Txostenean jasotako informazio guztia enpresa nagusiari eta kontu bateratuetan aintzat hartzen diren FAGOR ARRASATE Taldea osatzen duten filial guztiei buruzkoa da.

### 9.1. Materialtasun-analisia

Materialtasun-analisia **Jasangarritasun Txostena** egiteko **abiapuntua** da; izan ere, aukera ematen du erakundearen ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-inpaktuak jasotzeko orduan **garrantzitsutzat jotzen diren gaiak** zehazteko, bai eta interes-taldeen balorazioetan eta erabakietan eragin nabarmena duten gaiak ere, erakundearen balioari eragin diezaioketenak.

Jasangarritasunarekiko konpromisoa FAGOR ARRASATEren parte da, eta haren jardueraren garapenari atxikita dago. Horren erakusgarri, Kooperatibak 11/2018 Legearen eskakizuna bete du informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari buruzko gaietan, eta urtero egin du Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria.

Gainera, jakinarazpenaren esparruko eskakizun berriei bat etortzeko, 2022an FAGOR ARRASATEk **materialtasun bikoitzeko** ikuspegia erabili zuen materialtasun-analisia eguneratzeko prozesuan, jasangarritasunari buruzko gaiak —**finantzen ikuspegitik eta gizarte-, ingurumen- eta gobernantza-arloko (IGG alderdien) inpaktuaren ikuspegitik garrantzitsuak direnak**— lehenesteko helburuarekin. Prozesu horrek, 11/2018 Legearen eskakizuna betetzea ez ezik, 2020ko GRI eguneratzeekin lerrokatzea ere ahalbidetzen du.

Materialtasun bikoitzeko analisia egiteko prozesuan aintzat hartu ziren Europako finantza-informazioko aholkularitza-taldearen (EFRAGen) jarraibideak eta Global Reporting Initiative (GRI) erakundeak xedatutakoa.

**Materialtasun bikoitza** lantzeko prozesuari begira, erakundearen dokumentazioa berrikusi zen, eta munduan izandako aldaketen ondorioz azken urteetan garrantzirik handiena hartu duten gaiak baloratu ziren.

Era berean, IGG alderdien arrisku-analisia ere egin zen sektore-mailan, *Risk Horizon* tresnaren bidez. Alderdi horiek aintzat hartu ziren 2022ko materialtasun bikoitzeko matrizea egitean.

**Materialtasunak** zehazten du zer gaitan jarri behar duen arreta erakundeak kudeaketari eta informazioari dagokienez.

### 9.1.1. Gure interes-taldeak

(2-29)

Interes-talde hauek identifikatu dira:

| INTERES-TALDEA     |                         |
|--------------------|-------------------------|
| Kanpoko balorazioa | Bazkideak               |
|                    | Administrazioa          |
|                    | Gizarte-eragileak       |
|                    | Bezeroak                |
|                    | Hornitzaileak           |
| Barruko balorazioa | Zuzendaritza Kontseilua |
|                    | Kontseilu Errektorea    |

**Bazkideak.** Kooperatibetan, bazkide langileak barruko interes-taldea eta kanpoko interes-taldea dira aldi berean. Jasangarritasunaren kudeaketaren ondoretarako, kanpoko taldetzat hartzen dira, Kooperatibako langile direnez beharrak eta aurreikuspenak baitituzte lanari, segurtasunari, ordainsariari, kontziliazioari, prestakuntzari eta abarri dagokienez, eta horiek entzun eta kontuan hartu behar dira.

**Administrazioa.** Erregulazio, araudi eta legeen bidez, Administrazioak bere egungo beharrak agintzen ditu, eta FAGOR ARRASATEk aintzat hartu behar ditu. Arau bidez adierazitako behar horietatik haratago, beste behar eta aurreikuspen batzuk izan daitezke, eta horiek ere identifikatu egin behar dira, etorkizunean sortzen diren aukerak eta arriskuak ebaluatzeko.

**Gizarte-eragileak.** Beste gizarte-kezka batzuk ere badaude lantegiak ditugun inguruneetan, eta era askotako erakundeen bidez bideratzen dira, askotariko eremuetan. Epe luzera, eragiteko gaitasuna metatzen dute, eta gaitasun hori araudi berrien bidez eta gure erakundeari zuzenean eta zeharka egindako eskaeren bidez bidera daiteke. Horregatik, interes-talde dira guretzat.

**Bezeroak.** Interes-talde horrek aktiboki eskatzen digu jasangarritasunaren eremuan —maila ekonomikoan, ingurumenekoan eta gizartekoan— inplika gaitezen. Proiektuak esleitzeko orduan, gure proposamenak homologatzeko eta ebaluatzeko irizpideetan gero eta nabariagoa da alderdi horiei ematen dieten garrantzia. Gainera, bezero gehienak korporazio multinazional handiak dira, batez ere automobilen eta etxetresna

elektrikoen sektoreetako OEMak eta siderometalurgiaren sektoreko korporazio handiak, eta horiek trakzio-efektua eragiten dute beren hornidura-kate osoan, gu tartean gaudela.

**Hornitzaileak.** Ez da ohikoa interes-talde horrek bere beharrak eta aurreikuspenak proaktiboki adieraztea. Nolanahi ere, gure industria-ereduak batez ere ingeniartza-enpresa garena erakusten duenez, hornitzaileekiko dugun mendekotasuna oso nabarmena da, batik bat lehengaien, soldaduraren, mekanizazioaren eta muntaketaren arloetako hornitzaileekiko duguna.

**Zuzendaritza Kontseilua.** Zuzendaritza-taldea da, bere osaeragatik, inpaktu-mota guztiak —barrukoak zein kanpokoak— ondoen integra ditzakeena, diziplina anitzeko ikuspegitik. Hala, partekatutako ikuspegi horretatik, erakundearen egungo eta etorkizuneko lehentasunak ezar ditzake.

**Kontseilu Errektorea.** Kooperatibako Kontseilu Errektorea bazkide guztiek bozketaz aukeratutako organoa da. Kooperatibako bazkideen interesak ordezkatu eta defendatzea da haren eginkizuna. Beraz, bazkideen atalean aipatutako barruko interes-taldearen izaera adierazten du.

Interes-taldearen garrantziari erreparatuta, lan-jardunaldi batean zehaztu zenez, bazkide langileen, bezeroen eta hornitzaileen pisu espezifiko gainerako kanpoko interes-taldeena baino nabarmen handiagoa zen. Era berean, antzeko garrantzia eman zitzaion identifikatutako barruko bi interes-taldee.


Askotariko **komunikazio-kanalak** erabiltzen ditugu interes-taldeekiko harremanetan. Talde nabarmenei dagokienez, inkestak erabili dira ordezkariekin harremanetan jarri eta informazioa jasotzeko. Horren nabarmenak ez diren interes-taldearen kasuan (Administrazioa eta gizarte-eragileak), berriz, FAGOR Taldeak lortutako balorazioak erabili dira; izan ere, Taldeko kooperatiba guztientzat egin du prospekzio hori.

### 9.1.2. Materialtasun bikoitzeko analisisia FAGOR ARRASATEn


(3-1, 3-2)

2022an, FAGOR ARRASATEk eguneratu egin zuen materialtasun-analisisia, eta **materialtasun bikoitzaren** ikuspegi berria txertatu zuen bertan. IGG (ingurumen, gizarte eta gobernantza) eremuetako inpaktuaren ikuspuntuari finantza-ikuspegi berria gehitu zaio.

**1. FINANCIERA:** Efecto negativo o positivo que tiene o puede llegar a tener el entorno sobre el valor económico de la empresa. Grupos de interés internos.



**2. DE IMPACTO:** Efecto negativo o positivo que tiene o puede llegar a tener la empresa en el entorno ambiental, social y económico, contribución al desarrollo sostenible. Grupos de interés externos.




## 1 Materialidad financiera

El efecto de las cuestiones no financieras sobre la organización.

### Evolución, resultados y situación empresarial

- Remite a la **significatividad financiera**: cómo el valor de la empresa se ve afectado.
- Presentar información relacionada con otros aspectos importantes en el entorno global, tal como el clima, para comprender la **evolución, los resultados y la situación de la empresa**.
- Perspectiva de gran interés para los **INVERSORES**.




El impacto climático de la empresa puede ser financieramente significativo

## 2 Materialidad del impacto

El efecto de la organización sobre el entorno

### Impacto de las actividades de la empresa

- Denota **significatividad medioambiental y social**.
- Presentar información relacionada con aspectos ASG para comprender las **repercusiones externas de la empresa**.
- Perspectiva de interés para **CONSUMIDORES, SOCIEDAD CIVIL, EMPLEADOS, INVERSORES**



RECOMENDACIONES DEL TCFD

DIRECTIVA SOBRE DIVULGACIÓN DE INFORMACIÓN NO FINANCIERA (EINF)

Eguneratze horri esker, FAGOR ARRASATEren interes-taldeentzat garrantzitsuenak diren alderdiak eta negozioan eraginik handiena dutenak identifika ditzakegu, bai eta enpresaren etekinari, posizionamenduari eta balioari eragiten dieten alderdiak ere.

Zehaztapen-prozesu horretan, Global Reporting Initiative (GRI) delakoaren «Jasangarritasun-txostenak egiteko gida» izeneko idatzian adierazten diren printzipioak hartu dira kontuan txostenaren edukia zehazteko, hain zuzen ere, «**GRI 3: Gai materialak**» estandarrean jasota daudenak.

Prozesua honako fase hauetan antolatu da:

- 1) **IDENTIFIKAZIOA.** Landu den metodologiak zenbait input identifikatu ditu Taldearen materialtasun bikoitzeko matrizearen ESG inpaktuari (Y ardatza) eta finantza-inpaktuari (X ardatza) dagokienez.

Taldearen materialtasun bikoitza lantzeko, 2020ko ekitaldian egindako analisi materiala hartu da kontuan. Horretan, aintzakotzat ematen da Taldearen kanpoko eta barruko interes-taldeek ikuspuntua. Taldearen gai garrantzitsuak berriro ebaluatu dira, IGG irizpideen arabera inpaktuekin

lerrokatuta. Horretarako, sektoreko benchmarking-azterketa egin da, interes orokor handieneko arloak zehazteko, 2022ko ekitaldian gorabidean ziren joera berriei jarraikiz.

Gainera, finantza-inpaktuaren ikuspegi berriarekin bat, gai garrantzitsuak identifikatu dira barruko, sektoreko eta munduko arriskuei buruzko azterketa baten bidez. Metodologia horretan kontuan hartzeko input gisa, azpimarragarria da gai garrantzitsu bakoitzaren inguruan interes-taldeei egiten zaien kontsulta, finantza-ikuspegia oinarri hartuta, Taldearen balioari dagokionez inpakturik handieneko areak zehazteko helburuarekin.

- 2) **LEHENESTEA.** Alderdi materialak hautatzeko, Talde barruko lantaldeekin (FAGOR ARRASATEren zuzendaritzarekin eta lehendakariarekin) egindako partaidetzako saioak hartu dira kontuan; horrek aukera eman du identifikatutako puntuen garrantzi-maila ezagutzeko.

Kontsultaren bidez, hautatutako gaien garrantziari buruzko ikuspuntua eman da.

Prozesuaren ondorioz, FAGOR ARRASATE Taldearentzat eta bere interes-taldeentzat lehentasunezkoak diren gaiak identifikatu dira. Garrantzi handiko gaiak jo dira gai materialtzat, materialtasun bikoitzeko matrizean ikusten denez. Bertan, IGG inpaktuaren eta finantza-inpaktuaren arabera sailkatu dira gaiak.

- 3) **BERRIKUSPENA ETA BALIOZTAPENA.** Zuzendaritzak aztertu ditu prozesuaren emaitzak, eta enpresaren jasagarritasunarekiko duten koherentzia baloratu eta balioztatu du.
- 4) **GAI MATERIALAK.** Jarraian, aztertutako gaiak zehaztuko ditugu:

| FAGOR ARRASATEren gai materiala                      | Risk Horizon arriskuak                 |
|------------------------------------------------------|----------------------------------------|
| Etika eta osotasuna negozioetan                      | Bussines ethics                        |
| Komunikazioa eta gardentasuna                        |                                        |
| Gobernu korporatiboa                                 | Competitive behaviour                  |
| Errentagarritasuna/Jarduera                          |                                        |
| Gardentasun fiskala                                  | Anti-bribery                           |
| Hornidura-katearen kudeaketa arduratsua              | Materials sourcing                     |
| Isurtzeak, klima-aldaketa eta energia                | Energy management                      |
| Hondakinen kudeaketa                                 | Hazardous materials, Waste management  |
| Ekonomia zirkularra                                  |                                        |
| Laneko segurtasuna eta osasuna                       | Health & safety                        |
| Prestakuntza eta garapen profesionala                |                                        |
| Berdintasuna eta diskriminaziorik eza                |                                        |
| Proiektu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza | Product design & life cycle management |
| Tokiko komunitateen inplikazioa                      |                                        |
| Euskara                                              |                                        |


## MATERIALTASUN BIKOITZEKO ANALISIAREN EMAITZA

Lan-saioen ondoren, finantza-inpaktuaren eta gizarte- eta ingurumen-inpaktuaren arabera alderdi bakoitzaren garrantzia zehaztuz egin zen materialtasun bikoitzaren analisia.

Jarraian, letra lodiz idatzita azaltzen dira FAGOR ARRASATErentzat garrantzitsutzat jo diren gai materialak:

| MATRIZ FINAL            |                                                              | EJE X       | EJE Y       | TOTAL       |
|-------------------------|--------------------------------------------------------------|-------------|-------------|-------------|
| GRI                     | Temas materiales                                             |             |             |             |
| NO GRI                  | <b>Innovación aplicada al desarrollo de nuevos productos</b> | <b>4,12</b> | <b>4,22</b> | <b>8,34</b> |
| GRI 403                 | <b>Seguridad y salud en el trabajo</b>                       | <b>3,49</b> | <b>4,43</b> | <b>7,92</b> |
| GRI 201                 | <b>Rentabilidad/Desempeño</b>                                | <b>3,65</b> | <b>4,07</b> | <b>7,72</b> |
| NO GRI                  | Gobierno Corporativo                                         | 3,03        | 3,64        | 6,67        |
| GRI 302                 | <b>Emisiones , Cambio climático y Energía</b>                | <b>2,67</b> | <b>3,80</b> | <b>6,47</b> |
| GRI 205, GRI 206        | <b>Ética e integridad en los negocios</b>                    | <b>2,35</b> | <b>3,96</b> | <b>6,31</b> |
| GRI 404                 | <b>Formación y desarrollo profesional</b>                    | <b>2,42</b> | <b>3,88</b> | <b>6,30</b> |
| GRI 306                 | Gestión de residuos                                          | 2,27        | 3,56        | 5,83        |
| GRI 204, GRI 308, GRI 4 | Gestión responsable de la cadena de suministro               | 2,91        | 2,80        | 5,71        |
| NO GRI                  | Comunicación y transparencia                                 | 2,01        | 3,68        | 5,69        |
| NO GRI                  | Economía circular                                            | 1,85        | 3,69        | 5,54        |
| GRI 207                 | Transparencia fiscal                                         | 2,20        | 3,26        | 5,46        |
| GRI 405, 406            | Igualdad y no discriminación                                 | 1,84        | 3,56        | 5,40        |
| NO GRI                  | EUSKERA                                                      | 1,23        | 4,00        | 5,23        |
| NO GRI                  | Implicación en las comunidades locales                       | 1,47        | 3,34        | 4,81        |

- Gobernanza
- Medioambiente
- Social



Azken bileran, azken zerrenda balioztatzeko eta materialtasun-matrize berriaren emaitzak aurkezteko helburuarekin, honako ondorio hauek atera ziren:

- **Euskara eta Gobernu korporatiboa** gai materializat hartzea erabaki zen. Gai horiek lehentasun handikotzat jo dira Y ardatzean (inpaktu-materialtasuna) eta X ardatzean (finantza-materialtasuna), hurrenez hurren.
- **Energia, Isurtzeak eta Klima-aldaketa** kontzeptuak bateratzea erabaki zen.



Hurrengo taulan, inpaktu-materialtasunaren eta materialtasun bikoitzaren emaitzen konparazioa azaltzen da:

| Análisis comparativo         |                                                       |                                |                                        |
|------------------------------|-------------------------------------------------------|--------------------------------|----------------------------------------|
| Ámbito                       | Tema                                                  | Materialidad de impacto        | Doble materialidad                     |
| Económico                    | Rentabilidad/ Desempeño                               | ✓                              | ✓                                      |
| Ética y gobierno corporativo | Ética e integridad en los negocios                    | ✓                              | ✓                                      |
|                              | Gobierno Corporativo                                  | ✓                              | ✓                                      |
| Productos y servicios        | Innovación aplicada al desarrollo de nuevos productos | ✓                              | ✓                                      |
| Prácticas laborales          | Formación y desarrollo profesional                    | ✓                              | ✓                                      |
|                              | Seguridad y salud en el trabajo                       | ✓                              | ✓                                      |
| Medioambiental               | Emisiones, Cambio climático y Energía                 | Emisiones y Cambio climático*✓ | Emisiones, Cambio climático y Energía✓ |
| Social                       | Euskera                                               | Tema no existente              | ✓                                      |

Prozesua amaitu eta gaiak garrantzi-mailaren arabera sailkatu ondoren, materializat jo dira **finantza-materialtasunari** dagokionez zein **gizarte- eta ingurumen-inpaktuari** dagokionez garrantzi handikoak diren gai guztiak.

Jarraian, FAGOR ARRASATEren gai materialik nabarmenenak azaltzen dira:

## EKONOMIA- ETA GOBERNANTZA-EREMUA

### Errentagarritasuna/Jarduera

(GRI 201)

### Etika eta osotasuna negozioetan

(GRI 205 eta 206)

### Gobernu korporatiboa

(EZ GRI)

## INGURUMEN-EREMUA

### Isurtzeak, Klima-aldaketa eta Energia

(GRI 305 eta 302)

## GIZARTE-EREMUA

### Laneko segurtasuna eta osasuna

(GRI 403)

### Proiektu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza

(EZ GRI)

### Prestakuntza eta garapen profesionala (GRI 404)

### Euskara

(EZ GRI)

FAGOR ARRASATEk plan estrategikoekin batera **eguneratzen ditu gai materialak**, hau da, lau urtean behin. **2023aren bukaeratik** eta **2024an zehar**, Fagor Arrasate lanean ari da Jasangarritasunari buruzko Informazioaren zuzentarau berriarekin (**CSRD**) lerrokatzeko. Zuzentarau horrek enpresaren balio-kate osoa aztertzearen garrantzia azpimarratzen du. Zuzeneko eragiketetatik haratago, ur gora eta ur behera egindako jarduerak kontuan hartu behar direla dio. Hori dela eta, Fagor Arrasatek materialtasun bikoitza egokitzeko prozesua lantzen ari da, CSRD zuzentaruaren metodologia berriaren arabera. Ildo horretan, **inpaktuen, arriskuen eta aukeren analisia ezarriko** du, alderdi materialak balioztatzeko eta nabarmentzeko oinarri gisa.

## 9.2. 11/2018 Legearen trazabilitatea

| 11/2018 Legearen edukiak informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari dagokienez | Estandarra                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | Txostenaren atala / Zuzeneko erantzuna                                                                                                                               |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>NEGOZIO-EREDUA</b>                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                      |
| <b>Taldearen negozio-ereduaren azalpena</b>                                       | GRI 2-1. Antolamendu-xehetasunak<br>GRI 2-2. Jasangarritasun-txostenak egiten parte hartu duten erakundeak                                                                                                                                                                                                                                                                                                | 3.1. Gure nortasuna<br>3.2. Misioa, ikuspena eta balioak<br>4.1. Gure negozio-eredua<br>4.3. Mundu osoan dihardugu                                                   |
|                                                                                   | GRI 2-6. Jarduerak, balio-katea eta beste merkataritza-harreman batzuk                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 2. 2023a begiratu batean<br>3.1. Gure nortasuna<br>4.1. Gure negozio-eredua<br>4.6. Berrikuntza FAGOR ARRASATEN<br>4.7. Gure produktuak<br>4.8. Gure hornidura-katea |
|                                                                                   | GRI 2-22. Garapen jasagarriko estrategiari buruzko deklarazioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 1. Lehendakariaren gutuna<br>3.2. Misioa, ikuspena eta balioak<br>4.5. Kudeaketa-sistema integratua                                                                  |
|                                                                                   | GRI 2-29. Interes-taldeak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 6.1.5. Harreman soziorabialak<br>9.1.1. Gure interes-taldeak                                                                                                         |
|                                                                                   | GRI 2-23. Konpromisoak eta politikak<br>GRI 2-24. Konpromisoak eta politikak gehitzea                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | 3.2. Misioa, ikuspena eta balioak<br>4.5. Kudeaketa-sistema integratua<br>5.2. Jokabide-kodea                                                                        |
|                                                                                   | Eragiketa-testuingurua (ekonomikoa eta sektoriala)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 4.1. Gure negozio-eredua<br>4.2. Joerak eta arriskuak                                                                                                                |
|                                                                                   | Etorkizuneko bilakaeran eragina izan dezaketen faktore eta joera nagusiak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 4.1. Gure negozio-eredua<br>4.2. Joerak eta arriskuak<br>4.6. Berrikuntza FAGOR ARRASATEN                                                                            |
|                                                                                   | GRI 3-1. Gai materialak zehazteko prozesua<br>GRI 3-2. Gai materialen zerrenda                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 9. Txostena egiteko prozedura                                                                                                                                        |
| <b>Orokorra</b>                                                                   | Txostenean aipatzea atal bakoitzean sartutako emaitza ez-finantzarioen funtsezko adierazleak hautatzeko erabilitako nazioko, Europako edota nazioarteko jakinarazpen-esparrua.<br>GRI 2-2. Jasangarritasun-txostenak egiten parte hartu duten erakundeak<br>GRI 2-3. Txostenak helburu duen aldia, maiztasuna eta harremanetarako bidea<br>GRI 2-4. Informazioa eguneratzea<br>GRI 2-5. Kanpo-egiaztapena | 9. Txostena egiteko prozedura                                                                                                                                        |

| INGURUMEN-GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA |                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                           |
|-------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Politikak                           | Taldeak aplikatzen dituen politikak, honako hauek barne: arreta egokiko prozedurak, arrisku eta inpaktu nabarmenak identifikatu, ebaluatu, prebenitu eta arintzeko; eta egiaztatzeko eta kontrolatzeko prozedurak, baita zer neurritan hartu diren ere.                       | GRI 3-3. Gai materialen kudeaketa (ingurumenari dagokionez)<br><br>GRI 2-23. Konpromisoak eta politikak | 4.5. Kudeaketa-sistema integratua<br><br>7.1. Ingurumen-kudeaketa<br><br>7.2. Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa<br><br>7.3. Isurtzeak: klima-aldaketa eta kutsadura                                                            |
|                                     | Politika horien emaitzak, jarraipena ahalbidetuko duten emaitza ez-finantzario egokien funtsezko adierazleak barne.                                                                                                                                                           | GRI 2-24. Konpromisoak eta politikak gehitzea                                                           | 4.5. Kudeaketa-sistema integratua<br><br>7.1. Ingurumen-kudeaketa                                                                                                                                                                         |
|                                     | Taldearen jarduerekin zerikusia duten gai horiekin lotutako arrisku nagusiak; horien artean, egokia eta neurrizkoa denean, merkataritza-harremanak, produktuak edo zerbitzuak, eremu horietan eragin negatiboa izan dezaketenak, eta taldeak arrisku horiek kudeatzeko modua. | GRI 3-3. Gai materialen kudeaketa (ingurumenari dagokionez)                                             | 4.2. Joerak eta arriskuak<br><br>4.5. Kudeaketa-sistema integratua<br><br>7.1. Ingurumen-kudeaketa                                                                                                                                        |
| Ingurumen-kudeaketa                 | Enpresaren jarduerak ingurumenean eta, hala badagokio, osasunean eta segurtasunean egun dituzten eta izan ditzaketen ondorioak.                                                                                                                                               | GRI 2-26. Aholkua eskatzeko eta kezkak azaltzeko mekanismoak                                            | 4.5. Kudeaketa-sistema integratua<br><br>5.2. Jokabide-kodea                                                                                                                                                                              |
|                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                               | GRI 308-2. Ingurumen-inpaktu negatiboak hornidura-katean eta hartutako neurriak                         | 4.5. Kudeaketa-sistema integratua<br><br>7.1. Ingurumen-kudeaketa<br><br>Ingurumen-legeria eta -araudia ez betetzeari dagokionez, erakundeak ez du identifikatu ingurumen-arauak ez betetzearen ondoriozko isunik, zehapenik edo auzirik. |
|                                     | Ingurumen-ebaluaziorako edo -ziurtapenerako prozedurak                                                                                                                                                                                                                        | Ez GRI, ingurumen-ebaluazioa edo -ziurtapena                                                            | 7.1. Ingurumen-kudeaketa                                                                                                                                                                                                                  |
|                                     | Ingurumen-arriskuei aurrea hartzeko baliabideak. Ingurumen-arriskueterako hornidurak eta bermeak.                                                                                                                                                                             | Ez GRI, ingurumen-inbertsioak                                                                           | 7.1. Ingurumen-kudeaketa                                                                                                                                                                                                                  |
|                                     | Zuhurtasun-printzipioa aplikatzea                                                                                                                                                                                                                                             | GRI 2-23. Konpromisoak eta politikak                                                                    | 5.2. Jokabide-kodea<br><br>7.1. Ingurumen-kudeaketa                                                                                                                                                                                       |
| Kutsadura                           | Ingurumenean kalte larriak eragiten dituzten karbono-isurtzeak prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko neurriak, jarduera baten atmosfera-kutsadura espezifiko oro kontuan hartuta, baita zarata eta argi-kutsadura ere.                                                     | GRI 3-3. Gai materialen kudeaketa (kutsadurari dagokionez)                                              | 7.3. Isurtzeak: klima-aldaketa eta kutsadura                                                                                                                                                                                              |
|                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                               | Ez GRI, isurtzeak prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko neurriak                                     | 7.3. Isurtzeak: klima-aldaketa eta kutsadura                                                                                                                                                                                              |
|                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                               | Ez GRI, kutsadura akustikoa prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko neurriak                           | 7.3. Isurtzeak: klima-aldaketa eta kutsadura                                                                                                                                                                                              |

|                                                                     |                                                                                                                                                                 |                                                                                |                                                                                                                                                                                                       |
|---------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
